

Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak

Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila



Zuzendaria: Joseba Intxausti

Euskara Institutuak argitaraturiko bestelako lanak

Eskolaren arkeologia

Fernando Alvarez-Uría eta Julia Varela

Euskararen aldeko motibazioak

Joseba Intxausti

Hezkuntzaren etorkizuna.

2000 urteranz

UNESCO

Hezkuntzaren ikerkuntza

M^a Pilar Colás eta Leonor Buendía

Hezkuntzaren teoria eta praktika

Joseph D. Novak

Hizkuntza eta talde-nortasuna

Joxe Azurmendi

Kurrikularen diseinu eta garapena

Miguel A. Zabalza

Información y pedidos/Informazioa eta eskariak:

Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Apartado 1397 P.K. 48080 - BILBAO

Tf. (94)4647700 / Ext./Luz. 2148

Fax/faxa (94) 4801314

Internet:http://www.lg.ehu.es/servicios/se_az

SOLICITE NUESTRO CATALOGO

ESKATU GURE KATALOGOA

Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak

Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak

Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila

Zuzendaria:
Joseba Intxausti


eman la zabal zazu



Universidad del País Vasco	Euskal Herriko Unibertsitatea
servicio editorial	argitalpen zerbitzua

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Ninguna parte de esta publicación, incluido el diseño de la cubierta, puede ser reproducida, almacenada o transmitida en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, químico, mecánico, óptico, de grabación o de fotocopiado, sin permiso previo y por escrito de la entidad editora, sus autores o representantes legales.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

- © *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*
Joseba Intxausti
- © 1998, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-077-4

Lege gordailua: BI-2.278-98

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea

Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak, Joseba Intxausti	13
---	----

Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (xvi-xx. mendeak), Joseba Intxausti

0. Sarrera-oharra	17
1. Lantalde euskaltzaleak	18
1.1. Lantaldeen iratzarpen berantiarra	19
1.2. Lantaldeen historiaurreaz oharra	21
1.3. Etxepareren historia «isolatua» (1545)	22
1.4. Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)	24
1.5. Eskola sara-donibandarra (1617-1643)	29
1.5.1. Axular, «konpainia onean»	30
1.5.2. Gidari eta ereduak	32
1.5.3. Talde-lagunen ideia eta jarrera linguistikoak	33
1.6. Euskal Herriaren Adiskideak (1764-1794)	38
1.7. Eusko Pizkundeko taldeak (1876-1936)	47
1.7.1. Hizkuntzaren aldeko elkarteak	49
1.7.2. Aldizkari-inguruko taldeak	51
1.7.3. Elkarte erlijioso, kultural eta politikoetakoak	52
1.7.4. Ikertzaileen lantaldeak	54
1.7.5. Iker-harreman sareak	54
2. Ohar-lan honen mugak	55
2.1. Aro Modernokoaz	55
2.2. Eusko Pizkundera	56

Los movimientos sociales en favor del catalán, Isidor Martí

1. Desarrollo histórico	57
1.1. Delimitación conceptual y cronológica	57

1.2.	Algunos antecedentes ideológicos	59
1.3.	La Renaixença y la reivindicación política de la lengua	61
1.4.	El Modernismo y la institucionalización de la lengua nacional	64
1.5.	La pugna por la autonomía y la soberanía	67
1.6.	Las primeras movilizaciones bajo el franquismo	70
2.	Los nuevos movimientos en pro del catalán hasta la actualidad	72
2.1.	Recuperar la institucionalización de la lengua (1968-78)	73
2.1.1.	1968, el año Fabra: dos iniciativas con vocación de continuidad	73
2.1.2.	Campañas por la enseñanza y la oficialidad	74
2.2.	Los límites de la cooficialidad en el Estado autonómico	76
2.2.1.	La Crida a la Solidaritat	78
2.2.2.	Otros movimientos y movilizaciones	80
3.	Evolución previsible de los movimientos en favor del catalán	82
3.1.	Posiciones ante la disolución de la Crida	83
3.2.	Los sociólogos ante el futuro de los movimientos sociales	84
3.3.	Factores que influyen en la evolución previsible de los movimientos sociales en favor de la lengua	87
	Referencias bibliográficas	88

Hikuntz politika konparatua, William Mackey

	Lehen mintzaldia. Hizkuntza politika: oinarri eta printzipioak	117
	Bigarren mintzaldia. Hizkuntz politiken azterketa eta ebaluaketa	127
1.	Helburuen azterketa	127
2.	Osagaien azterketa	128
2.1.	Hautaketa	128
2.2.	Kodifikazioa	131
2.3.	Finkapena	134
	Hirugarren mintzaldia. Euskal Herria, Katalunia, Québec: hizkuntz politika konparatuak aldaketa sozialen esparru historikoan	137
—	Terminologia oharrak	143
•	Antolakuntza	143
•	Normalizazioa	143
—	Ardibide gehigarriak	144
•	Nortasun etnikoa eta nortasun linguistikoa	144
•	Frantziako hizkuntz gutiengoak	144
•	Hizkuntza debekatzearen historiaren alde	144
•	Alfabetatzearen hastapenak European	145
•	Estandarizazioaren erlijiozko hastapenak	145
•	Estatu Batuetako hizkuntza ofizial baten alde	145
•	Ingelesaren estandarizatzea	146

Euskararen aldeko Udalerrietako mugimendu sozialak gaur egun, Kike Amornarriz eta Iñaki Arruti

0. Laburpena.....	147
1. Sarrera	149
2. Azterketaren esparrua	150
2.1. Irizpide funtzionala	151
2.2. Irizpide geografikoa	151
2.3. Epeak	151
3. Udalerrietako mugimendu sozial euskaltzalearen testuingurua	151
3.1. Gerraurreko euskalgintzarekiko etena	152
3.2. Euskal Herritik kanpoko mugimenduekiko etena	152
4. Gerraondorenetik 1980ra	154
4.1. Familia	155
4.2. Irakaskuntza	156
4.2.1. Ikastolak	156
4.2.2. Helduen euskalduntze-alfabetatzea	156
4.2.3. Udako Euskal Unibertsitatea	156
4.2.4. Euskal Udalekuak	156
4.3. Komunikabideak	156
4.4. Kulturgintza	157
4.5. Lehen kanpaina orokorrak	157
5. Mugimendu sozial euskaltzale berriaren sorrera: «Euskal Herrian Euskaraz»	158
5.1. Ezaugarri nagusiak	158
5.2. Burututako lehen ekintzak	159
5.3. Mugimenduaren lehen garapen-fasea	160
6. Hasierako estrategiaren mugak eta lehen bihurtzea	161
6.1. Etena	161
6.2. Etenak udalerrietan izandako eragina	162
6.3. Akats nagusiak	162
6.4. Ondorioak	163
7. Koordinazioaren aldeko apostua: EKB	164
7.1. Ezaugarri nagusiak	164
7.2. Ekinbideak	164
7.3. Oztupoak	165
7.4. Euskalgintzaren «inpassea»ren hedakuntza	166
8. Euskalgintza berriaren oinarriak eta eragileak: 1990-1993	167
8.1. Hamabost urteko esperientzia (borondatea)	168
8.2. José Mari Sánchez Carrión; «Txepetx» (ezagutza)	169
8.3. Arrasate Euskaldun Dezagun (erabilera)	170

9.	Udalerrri-maila	171
9.1.	Herri-ekimena	171
9.2.	Euskara elkarteak	172
9.2.1.	Sorrera-data	172
9.2.2.	Taldearen izaera	173
9.2.3.	Kokatzen diren udalerrriak	173
9.2.4.	Barne-antolaketa	174
9.2.5.	1993ko egitasmoa	175
9.2.6.	Udalekiko harremanak	175
9.2.7.	Beste erakundeekiko harremanak	176
9.2.8.	Ezaugarri nagusiak	176
9.3.	Udalak	177
10.	Nazio-maila	178
10.1.	Herri-ekimena	178
10.1.1.	Nafarroa	179
10.1.2.	Iparraldea	179
10.1.3.	Euskal Autonomi Elkarte	180
10.1.4.	Euskal Herrian orokorki	180
10.2.	Administrazioa	182

Euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina etorkizunean, *Paulo Agirrebaltzategi*

0.	Sarrera	185
1.	Terminologi arazoak	186
2.	Euskararen berreskurapenerako mugimendu soziala	190
2.1.	Euskara-mugimendu sozialaren helburua	191
2.2.	Euskararen berreskurapen osoa eta herrigintza	192
2.3.	Euskara-mugimenduaren leku soziala: elkarte	193
2.4.	Euskara-mugimendu sozialaren berezitasuna	194
3.	Euskalgintzako erakunde herritarrak eta mugimendu soziala	196
4.	Euskara-mugimenduaren barne-artikulazioa eta kanpo-eragina	197
4.1.	Koordinazioa eta konfederazioa	198
4.2.	Eragin politikoa	198
4.3.	Euskara-mugimendu soziala eta «proto-eliteak»	199
4.4.	Euskara-mugimenduaren sektorea eta erakunde motorea	199
5.	Mugimendu soziala eta plangintza instituzioanala	200
5.1.	Euskara-mugimendu sozialaren «publikotasuna»	200
5.2.	Mugimendu sozialaren protagonismoa	200
5.3.	Harreman dialektikoa	201
5.4.	Elkarlana	201

6.	Euskara-mugimendu sozialaren etorkizuna	202
6.1.	Aurrerako hiruko jauzi kualitatiboa	203
6.2.	Baldintzak	203
6.3.	Ekintza-dimentsioak eta funtzioak	204
6.4.	Mugimendu soziala eta erakunde publikoak	206
6.5.	Mugimendu sozialaren antolamendua	208
6.6.	Hiru mailako urratsak	209
6.7.	Konfidantza eta itzaropena	209

HIZKUNTZEN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALAK

1993ko udan, eta Donostian, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XII. Ikastaroen artean (Europako V. Ikastaroak zeritzenetan), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak* gaiaz hiru egunetako jardunaldiak eratu ziren. Uztailaren 19, 20 eta 21etan Miramar Jauregian zenbait irakasleri eta jakituni entzun eta elkarren artean solasik izateko parada eman ziguten jardunaldiok. Orain liburu honetan bildu ditugun hitzaldiak egokiera hartan emandakoak dira.

Gehienetan izan ohi denaren alderantziz, Ikastaro hura ez zen izan Euskal Herriko Unibertsitateak bere kabuz eta bakarrik antolaturiko zer-bait. Aitzitik, kasu honetan Unibertsitatearekin batera Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ere eskurik izan zuen. Bien arteko ekimena gertatu zen, hortaz.

Lankidetzaz horrek bazuen, noski, bere logikarik. Batetik, hainbat urtetatik hona nabaria da Euskal Herriko eta erbesteko mundu zientifikoak —Unibertsitateetakoak nahiz kanpokoak— ardurarik franko erakutsi duela hizkuntzen eta euskararen ingurumendu sozialaz. Bestetik, Erakundeek eta talde sozial gutxi-asko eratuek gogoeta, arau, ahalegin, diru eta kanpaina ugari eman izan dute hizkuntza gutxietsiei biziraupen-bideak samurtzeko.

1980. etako hamarkadan burututako ikerlanen eta politika-jardunbidearen buruan, bidezkoa ez-erik premiazkoa ikusi zen egindakoaz gogoeta ireki bat eskaintzea. Horixe izan da, beraz, hizkuntzen aldeko mugimendu sozialez topaketa hauek antolatzeko xedea: begiratu, azalpen landu batzuk eskaini, elkarrekin hitz egin, eta ahal zenetan ondorioren batzuetara iritsi.

Gaiari eskaintzen zitzaion lehen ekinaldi honetan ez dugu, alde zurretik, guttiz mugatu nahi izan «mugimendu sozialak» kontzeptu soziologikoa, jardunaldiok gogoeta ireki eta sarrera orokor bezala egin nahi baikenituen. Gero bakoitzak, ibilian —hitzaldietan, alegia— eta premien arabera

egingo zuelakoan. Liburuan zehar ikusi ahal izango du irakurleak esparrumugatzeko hori nola egin den.

Disziplinartekosuna bilatuz, jardunaldiotan Historia eta Soziologia elkarrekin batera eraman dira, Prospektiba ere ahortzi gabe. Iraganaz hitz egiten da, gaur egungoa argitzeko, betiere etorkizunaz arduratuta. Lehena, oraina, geroa: segida osoari begiratu zaio.

Krisiak jotako hizkuntz komunitateetan batik bat, une historiko ezberdinetan eta hizkuntza anitzen lurraldeetan sortu izan dira norberaren hizkuntzaren alde piztu edo eratutako mugimenduak. Horrelakoen adibideak eta kasuak ugari ekar zitezkeen hona; hala ere, praktikoak izatearren, nahiago izan dira begiratu gure etxekoari argibideak hurbilagotik eman diezazkioketenak, eta agian gainera, aurrera egiteko guretzat sustagarri gerta zitezkeenak.

Hiru kasu nagusi jarri nahi izan ditugu elkarren ondoan, ahal zen neurrian alderatzeko asmoarekin ere: Euskal Herria eta euskara, Herri Katalanak eta katala, Québec eta hango frantses komunitatea. Ziurki, Euskal Herrian ez da hau hiru kasuon berri ematen den lehenengo aldia. Aspaldidanik izan da gure artean Katalunia eta Kanada-ko albisteak eta joan-etorriak aztertze gogo eta aukerarik (urrutirago gabe, Munduko II. Euskal Batzarrean, 1987). Baina konbarazioa gisa sistematikoago batean eskaini nahi izan dugu, eta, edozein moldetan ere, mugimendu sozialei preseskiago helduz. Egitarauak zioenez, jardunaldion xedea zera zen: «Euskal Herria, Katalunia eta Québec-eko kasuak aztertu eta beren arteko gogoeta konparatiboa egitea».

Helburu horrekin, hiru hizlarik eman behar ziguten kanpokoaren berri: Isidor Marí-k Kataluniatik, eta Lise Harou eta William F. Mackey-k Kanadatik. Gure artean izan genituen, eta bakoitzak berea eman ahal izan zuen. L. Harou-k batez ere Kanadako frantsesaren normalkuntza-historia eskaini zuen, baina, zoritxarrez, honen testua ezin izan dugu hona bildu, eta hutsune hori hor gelditu zaigu. Hala ere, W. F. Mackey-ren lan luzea hemen dugunez (hiru mintzaldi), eman dion jite konparatiboarekin, horretaz esan behar ziren funtsezkoenak bilduta ditugula esan liteke.

Hango teoria eta praxia ongi ezagutzen dituen Isidor Marí-ren eskutik dator Kataluniako kasua. Eta egitarauaren puntuetara hertsiki lotu da Marí, hizkuntzaren aldeko mugimenduen historia, gaur egungo egoera eta etorkizunean iragarri edo desio litezkeenak idarokiz. Sintesi argi eta trinkoa eskaintzen zaigu, eta merezi du irakurketa arretatsu bat.

Euskal Herrikoari eta euskararenari hiru une eta hizlari ezberdinek heldu diote. Sarrera honen sinatzaileak gure historiatik ohar baliagarri batzuk egiteko aukera izan du, XVI.etik hasi eta Eusko Pizkundera arte luzatuz, azken Gerra Zibila azken mugatzat hartuta (izan ere, jarraiaz ondoko hizlariak jardun zuten). Euskararen aldeko talde-lan historikoak gogoraztean talde haien zenbait arrakasta eta porrot ezagutzeko aukera izan dezakegu, eta ahaztuxek ditugun euskaltzale-talde estimagarri batzuk aintzakotzat hartzeko egokiera.

Kike Amonarriz eta Iñaki Arruti-k aurkeztu zuten *Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun* gaia. Ez zen izan hitzaldi komentzionala, aldez aurretik luzaro landutako txostena baizik, gerraondotik hasita gure egunak arte zetorrena batetik, eta taldeak eta mugimendua, geografian ez ezik beren bilakaeran ere begiratu eta aztertu nahi zituena, bakoitzaren funtziotasunak baztertu gabe. Inondik ere, ekarpen aberasgarria da hau, arazoaren «status quæstionis» delakoa definitu ahal izateko.

Azkenik, Paulo Agirrebaltzategi-k eskaini zuen mugimendu euskaltzaileen etorkizunaz bere gogoeta. Bizi izandako esperientziatik eta eguneko ahalegin eta mugetatik geroa nondik nora joan edo eraman daitekeen erakusteko asmoz.

Oro har, uste dugunez, gurean orain arte hizkuntzen aldeko mugimendu sozialez dugun azterlan-bilduma oparoena bildu dela hemen, esango nuke. Lehen urratsa da, noski, hau euskararen aldeko gure mugimendu soziala hobeki ezagutu ahal izateko, eta hemen bereziki, mugimendu hori hautaturiko beste bi herrietako historiekin alderatzeko.

Denon zerbitzuan, ongi etorria izango delakoan gaude.

Joseba Intxausti

Ikastaroko Zuzendaria

Donostia, 1996-11-29

TALDE EUSKALTZALEEN GARAPEN HISTORIKOAZ (XVI-XX. MENDEAK)

Joseba INTXAUSTI

Hizkuntzen aldeko «mugimendu» edo «talde» deituei buruz elkarrekin hitz egiteko aukera eman zaigu hiru egun hauetako ikastaro honetan. Hautaturiko gai hau, soziolinguistek aztertuko digute batez ere, eta, seguraski, halakoei dagokien gaurkotasun biziz betetako ikuspuntu batetik begiraturaz hitz egingo digute. Hala ere eta horregatik, lehenengo hitzaldi hau Euskal Herriko talde euskaltzale historikoak gogoratzeko izango da.

Hizkuntza bat, sistema arautua ezezik tradizioa eta *segidatasuna* ere bada, eta orainalditik bezala iraganetik ere ezagutu beharreko zerbait. Horregatik, Soziolinguistikako maisuek maiz eskaini ohi dituzte, beren lanen atarian, halako sarrera historiko argigarriak. Beraz, ongi etor liteke hemen ere gaurkoak ezagutu aurretik eta ezagutzeko, egungo talde euskaltzaleak zein tradizio eta ondare historikotatik bizi diren jakitea.

Bego, bada, horrela eta beste gabe zuzenetsita gure historiari emango diogun begiratu hau.

0. SARRERA-OHARRA

Pentsa daitekeenez, euskaldungoaren historian hizkuntzaren aldeko hainbat talde euskaltzale izan da, teoriiaz baliaturaz edo ekinean ihardunez hizkuntzari biziera hoberik sortu nahi izan diona. Mota askotakoak izan ditugu taldeok, eta testuinguru historiko ezberdinei erantzun nahirik ahalagindu dira lanean.

Hiztuingoaren hizkuntz bizitzari iraupena eta segida emateko beti izan diren «berezko» taldeak albora utziz (sendia, haur-lagunartea edo auzunea, adibidez), hizkuntzaren aldeko bestelako taldeak ere ezagunak ditugu euskaldungoaren historian, nahiz eta euskal gizartea aski berantiarra izan

den une historiko larri sobera bizi izan dituen hizkuntza honen defentsarako taldeak sortzen.

Bestalde, historiatic kontzeptuetara etorritz, esan beharra dago «taldeak» aipatzean zertaz ari garen jakin premia daukagula¹. Hala ere —barka bekik ausartzia—, ez ikusiarena egingo dut hemen: «talde» hitza molderik zabalenean hartuko dut, alde zurretik gogoeta hau hitzaren adiera jakin bati lotu gabe, eta gerora beharko diren zehaztasunetan sartzeke. Talde euskaltzale historikoen tipologia egin gabe daukagu, eta azterketa monografikorik ez izanik, hobe da —hala uste dut— talde ezberdinen lehen-deskribapenari beste gabe bide ematea.

Beraz, hemengo oharpen hauek muga horien barruan doaz, gehiago gabe.

1. LANTALDE EUSKALTZALEAK

Arestian esandakoa errepikatuz, talde mintzatzaille baten kodea da hizkuntza, hiztunagoak erabili, sustatu eta segida eman ohi diona. Giza komunitate baten baitan bizi den komunikazio-tresna da, beraz, eta, ondorioz, ez da harriztekoa inoiz hizkuntzaren erabilera batzuek «taldeatasun» zentzu nabariagoa hartzea (zenbait azalpen folklorikotan, elizan, bertsolaritzan eta abarretan). Baina ez da hori guk hemen azaldu nahi duguna, beste zerbait baizik.

Krisialdi nahiz hazkunde-garaietan batik bat hiztunen baitan hizkuntzaren aldeko berezko nahiz antolatutako talde bereziak sor litezke, eta sortu, sortzen dira. Gurean ere izan da, noski, horrelakorik. Gertatutakoaren berri emateko, mugaren bat jarri behar eta, azalpena puntu hauetara bildu dugu bere edukinean:

- 1.1. Lantaldeen iratzarpen berantiarra.
- 1.2. Lantaldeen historiaurreaz oharra (XIV-XV. mendeetakoaz).
- 1.3. Etxeparearen historia «isolatua» (1545).
- 1.4. Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571).
- 1.5. Eskola sara-donibandarra (1617-1643).
- 1.6. Euskal Herriaren Adiskideak (1764-1794).
- 1.7. Eusko Pizkundeko taldeak (1876-1936)

¹ Ik. *Diccionario de Ciencias Sociales*. Madrid: Instituto de Estudios Políticos, 1975. *Diccionario de Sociología*, Madrid: Ediciones Paulinas, 1986. *Enciclopedia de las instituciones políticas*. Madrid: Alianza. 1987. BONDON, R.; BOURRICAUD, F. (1982): *Dictionnaire critique de la sociologie*. Paris: PUF. s.v. «Grupo»/»Groupes» eta «Movimiento(s) social(es)»/»Mouvements sociaux».

Azken kapitulu hau —Eusko Pizkundeari dagokiona— ikuspegi orokor bat iradokitzen zuzendu da, aipatu beharreko talde bakoitzarena luzatzerik ez zegoenez, eta hain zuzen ahalik gehienak aipatzea nahiago izan denez; baina egunen batean aztertu beharko dira taldeok ere behar eta merezi duten xehetasunekin.

1.1. Lantaldeen iratzarpen berantiarra

Euskal gizartea, *berandu iratzarri* zen —taldean edo lankidetzan eraberritu— hizkuntzari etorkizuna segurtatzeko: Aro Moderno-Garaikideetan, ez lehenago, esango genuke. Erran gabe doa, gure artean ez genuela ezagutu Erdi Aroan Toledoko Itzultzaileak bezalako talderik, adibidez (hura «taldea» izan zen neurrian ere)², edo Alfontso X.a Jakitunaren inguruko lanaren antzekorik³. Gure Erdi Aroko Erakundeek ez zuten euskararen alde horrelako talderik sustatu.

Egia da, botere politikoen aterpeetatik kanpo, agian itzaropen hobe espero zitekeela beste nonbait Erdi Aro hartan hizkuntzaren aldeko talde edo ekimen elkaturik: Elizan, edo beraren inguruan, esan nahi dut, hain zuzen halaxe gertatu baitzen zenbait tradizio kristautan. Hasteko, Kristok berak erabilitako arameiera-sirierarekin⁴, baina baita —zabalkiago eta guretzat argigarriago—, Ekialdeko beste Eliza kristauen hizkuntza batzuetan, lehenengo mendeetatik ekinda⁵.

Zoritxarrez, Ekialdea ez zegoen, ordea, Mendebaldean, eta, geroago —hain zuzen Euskal Herriaren kristautzea burutu zen mendeetan gutxi

² JACQUART, D. (1991): «La Escuela de Traductores», in: CARDAILLAC, L. (1991): *Toledo, siglos XII-XIII. Musulmanes, cristianos y judíos: la sabiduría y la tolerancia*. Madrid: Alianza Editorial. 183-198.

³ Alfontso X.aren lan normalizatzailea zerak aztertu du: NIEDEREHE, H.-J. (1987): *Alfonso X el Sabio y la lingüística de su tiempo*. Madrid: Sociedad General Española de Librería. Iradoki nahi dena ulertzeko, kapitulu bereziki interesgarria, hirugarrena: «El uso de la lengua», 107-128. or. Arazoa testuinguru zabal laburtu batean begiraturaz, ik.: MARCOS MARÍN, F. (1979): *Reforma y modernización del español*. Madrid: Cátedra. 85. or. Hainbat horrelako ezaguna da beste herri eta hizkuntzatan, Bulgariako Simeon Handiarena (893-927) edo Kiev-eko Errusian Jaroslav Jakitunarena (1036-1054).

⁴ Ik., adibidez, arameiera-sirieraren historiaiaz: SELIS, Cl. (1988): *Les Syriens orthodoxes et catholiques*. Edition Brepols. 17-21.

⁵ Legendak ere edertutako Mesrop Maxtotz-en (c. 361-c. 441) kasu bikoitza (georgierari eta armenierari, biei, eman omen zien alfabetua berorrek), eta Mesrop-ekin batera haren jarraitzaileena, miresteko da zinez. Eta alfabetuaren ondotik, berehala etorri ziren testuen itzulpen-, egokitzapen- eta sorkuntz lanak. Armenierarena ondoko autoreotan ikus liteke: NICHANIAN, M. (1989): *Agés et usages de la langue arménienne*. Paris: Editions Entente. 74-109. or. Historia berezituago baterako, ik.: FEYDIT, F. (1982): *Considérations sur l'alphabet de Saint Mesrop et recherches sur la phonétique de l'arménien*. Wien: Mechitharisten-Buchdruckerei.

gora-behera berriro⁶— Europako herri eslaviarren Ebanjelio-predikariak suertatu ziren hizkuntzen bidegurutzean, eta hizkuntz politika birdefinitu premian. Etsenplu historiko gogoangarria da paleoeslavierari Ziril eta Metodiodio-k eman zioten kultur irtenbide hizkuntz-herritarra (IX. mendearen erdialdera, kasu honetan)⁷. Berriz ere Mendebaldeko hizkuntzek ez zuten izan —ezta euskarak ere— beste hainbesteko aukerarik.

Elizen hizkuntz hautapen ezberdin kontrajarri horiek —latina nahiz grekoa hizkuntza ofizial bakartzat aitortzeak, ala herri-hizkuntzak eliz ofizialtasun osorako hautatzeak, alegia— munta sozio-kultural nabaria izan dute geroztik herri ezberdinen historian, eta ez txikiena beraien kultura eskolatu idatzietan⁸.

Hortaz, Euskal Herriari Eliza erromatarraren tradizio latino elebarkarrean edo⁹ suertatu zitzaion kristautzea. Ondorioz, Erdi Aroan ez genuen izan euskara, egokiera kultural berrirako prestatu zuen eliz lantalderik

⁶ VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la Literatura Vasca*. Bilbao: Sendoa. 36-37. or.

⁷ Greko bizantziarraren eta latin erromatarraren aurrean paleoeslavieraren arrakasta eta porrot historikoak ezagutzeko «Eslavia ortodoxoan» (Serbia, Bulgaria, Kiev) eta Moravia Handian (830-906: Bohemia, Eslovakia, Polonia) bizi izandako historia erlijioso-linguistikoko kontrajarriak ezagutzea interesgarria da: Eslavia ortodoxoan garbiak izan ziren eslaboieraren aldeko hautapena eta ondoko politika, garaipeneraino, baina Erromak berreskuratu ahal izan zituen lurralde mugatietan, Moravia Handian alegia, azken buruan paleoeslaviera hura galtzaile atera zen, eliz eta kultur bizitza osoa latintzean. Gaur egungo testu katoliko mendebaldar batek, Erromatik, honela aitortu ditu aldakuntza horiek: «Mas es digno de atención el hecho de que aún a mediados del siglo X, en tiempos de San Wenceslao [Bohemian, kristautzearen ondoko gizaldian alegia], existía una compenetración recíproca de elementos de ambos ritos con una avanzada simbiosis de las dos lenguas usadas en la liturgia: la lengua eslava y la lengua latina. Por lo demás, no era posible la cristianización del pueblo sin servirse de la lengua nativa. Solamente sobre esta base pudo desarrollarse la terminología cristiana en Bohemia y de aquí, sucesivamente, desarrollarse y consolidarse la terminología eclesiástica en Polonia» (JUAN PAULO II (1985): *Slavorum apostoli/Apóstoles de los eslavos*. (Carta Encíclica). Madrid: Ediciones Paulinas. 43. or. Argibide historiko landuak, in: VOPOIVEC, J. (1986): *Saints Cyrille et Méthode, patrons de l'Europe*. Paris/Fribourg: Editions Saint-Paul. Hizkuntzen hautapen-gatazka noraino iritsi zen jakiteko, ik. 92-93. or. Beti ere gogoan harbedi, gainera: HAMANT, Y. (ed.) (1989): *988-1988: un Millénaire. La christianisation de la Russie ancienne*. Paris: UNESCO. 19-32 eta 33-39. or. (hurrenez hurren N. Chivarov eta D. Anglekov-en lanak).

⁸ Guzti horrek literatura erusiarrarekin izan zuen eragina: PICCHIO, R. (1972): *La letteratura rusa antica*. Buenos Aires: Losada. Bereziki 13-23, 31-43. or. Aipatutako beste kasuaz, hizkuntzan bezala literaturan izandako ondorioez: FEYDIT, F. (1967): «L'Etat de la langue Arménienne au V^e siècle». (Extrait de la Revue *Pazmavep*). Venise: Saint Lazare; CHAHNIAN, K. (1988): *OEuvres vives de la Littérature Arménienne*. Antélias (Liban): Catholico-sat Arménien de Cilicie. Bereziki lehen partea: «La Littérature Arménienne classique», 19-110. or. Eta hizkuntza bereko argitalpenen historiaz: KEVORKIAN, R.H.; MAHE, J.-P. (1985): *Le livre Arménien à travers les âges*. Marseille: Maison Arménienne de la Jeunesse et de la Culture.

⁹ Ez, noski, erabateko elebarkatasun itxian, kristautzea bera ez baitzen bestela egingarria gertatuko, baina bai nonahi hizkuntz ofizialtasun eta eliz kultura jasoan (Liturgian eta eliz kultura eskolatuan), horietan latinak definitu baitzuen hizkuntz politika.

(ezagutu dugunik bederen). Eta, bestalde, gure xv. mendeko heretikoek¹⁰ ez zuten —ez dugu ezagutzen behintzat— mende berean husita txekiarrek erakutsitako herri hizkuntzaren aldeko politika erabaki hura erabili¹¹.

Beraz, gure Ernazimenduak ezin izan zuen jaso Erdi Aroko euskal Erakundeetatik edo orduko Elizatik geroko euskalgintzarako lantaldeen tradiziorik. Eta, gure ahulean, bakar-lanak ere jaio gabe geratu zitzaizkigun, kontrako gure hizkuntz hautapen instituzionalen eraginez¹².

Duen esanahi historikoagatik, hutsune ezagun hauek azpimarratuta utzi nahi nituen hemen, idazlan honen hastapenean, geroko pauso batzuen argigarri ere badirelako.

1.2. Lantaldeen historiaurreaz oharra

Izan ere izan diren taldeen historiaurre hurbilagora etorritz, ez da agian lekuz kanpo egongo hemen, lehen euskal testu literarioak euskaldunok ohizkoa izan dugun *taldekako sorkuntza-teknikaz jaiok* ditugula gogoratzea.

XIV-XV. mendeetatik datozkigun testu haietaz ari naiz, noski. Garibai, Zaldibia eta abarren bidez iritsi zitzaizkigun¹³, eta J.K. Gerra-k eskaini,

¹⁰ OLAIZOLA, J.M. (1993): *Historia del Protestantismo en el País Vasco*. Pamplona: Pamie-la. 81-87. or.

¹¹ MACEK, J.; MANDROU, R. (1984): *Histoire de la Bohême des origines à 1918*. Paris: Fayard: «La révolution hussite entraîna d'importantes transformations dans le domaine des nationalités. (...) La langue devint le thème principal du mouvement patriotique, et on se mit à souligner davantage les différences entre le tchèque et l'allemand. (...) L'accession des prédicateurs, érudits et chefs politiques tchèques aux postes clés du pays contribua à un grand essor de la langue tchèque, langue officielle du pays depuis le règne de Venceslas IV [1363-1419], qui acquit ainsi une position privilégiée dans les affaires traitées par les magistratures municipales (les livres municipaux étaient écrits en tchèque, de même que la correspondance officielle). De nouveaux ouvrages de théologie (Jacques de Stribro, Jean Rokycana) virent le jour; on s'adonnait en tchèque à des discussions savantes sur le saint-sacrement de l'autel ou sur l'office de la messe (Prague, Tábor). Jean Hus [1369-1415] avait déjà entrepris de retirer de la langue tchèque les mots étrangers, et surtout allemands, et il réforma également l'orthographe» (119. or.). Gogora bedi hemen Moravia Handiko lurraldeetan bostehun urte lehenago galdutako lehiaketa irauli nahi zutela txekieraren alde husitek.

¹² Giro lagungarri baten barnean, bakar-lanean ere egin zitekeenaren gure galeraren handia barruntatzeko, ikus zein bide ederra bete zuen gaztelaniak Elizan bertan, baina betiere Monarkiaren babespean, latinak libre uzten zituen esparruetan behintzat. Ikustekoa da, adibidez, Berceo-ren obraren tamaina harrigarria, bere azken edizio kritikoan (zinez harrituta utzi nauelako aipatzen dut euskal lurrez eta hizkuntzaz inguratuta zegoen idazle honen kasua): BERCEO, G. DE (1992): *Obras completas*. Madrid: Espasa-Calpe.

¹³ VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la Literatura Vasca*. Bilbao: Sendoa. 356-357. or. MICHELENA, L. (1990): *Textos arcaicos vascos*. Donostia: ASJU/Anejo XI. 66. or. ss.

liburu batean bilduta¹⁴. Garaiko «eresiek» batez ere sorkuntza literario haien lagunartekotasuna berekin dute. Mitxelenak esan zigunez, «según diversos testimonios fueron improvisados por mujeres a quienes respondían otras, dando lugar a debates en verso semejantes a los de los bersolaris modernos»¹⁵.

Lehen orduko sorkari literario haien talde-testuinguru hori berrikitan zabalago azpimarratu izan da, gaurko bertsolaritzarekiko kidesunak nabarmentzean¹⁶, baina bistan da haiek ez zirela zinezko lantaldeak, unean uneko egokierari erantzuteko bilduriko bertsozaleak baizik. Berant Erdi Aroko mendeetan Euskal Herrian ezagutu genuen literatura herritarrean lekutzen dira azalpenok, jendaratean eta jendarterako sortutako lanak bai, baina bestelako taldetasunik gabe.

1.3. Etxepareren historia «isolatua» (1545)

Eta gatozen euskal Literatura inprimatuaren jaio-urtera (1545). Lehen liburu inprimatuaren inguruan ez dugu aurkitzen azken Erdi Aroko erostari eta koblakari haien antzeko gizarte-ingurumendurik: itxura guztiz, idazle bakar batek bere gisara burututako obra dugu Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* poemategia (1545).

Etxeparerena, bakar-lana bezala agertu izan digute historilariak —bakarrik egina, esan nahi da—, ez baitirudi autoreak beste inorekin elkartuta egin zuenik. Lagunarte literariorik gabea da, hortaz, gure lehenengo liburua.

Hala ere, azpimarragarriak dira Etxeparerengan honen alde sozio-historikoak. Ez zen bizi izan mundutik urrunduta eta gizarteko gorabeheretatik at¹⁷, eta, aitzitik, bai garaiko aldarte politikoen sasieta trabaturik¹⁸. Soziki, izan zituen lagunak, eta etsaiak ere; historikoki, agian urrundik, baina ezagutu zituen garaiko beste kulturen aurreramenduak (inprimategiaren balioa, adibidez, ongi ulertu zuen), eta bazekien zerbait gure kultur historiaren eskastasunaz. Bi alde hauek —soziala eta historikoa— nabariak dira idazlearen hitzetan.

¹⁴ GUERRA, J. C. (1914): *Viejos textos del idioma: Los Cantares antiguos del Euskera*. Donostia. GOROSTIAGA, J. (1952): *Epica y lírica vizcaina antigua*. Bilbao. VILLASANTE 1961: 38-39.

¹⁵ MICHELENA, L. (1960): *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid: Minotauro. 42. or.

¹⁶ AZURMENDI, J. (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», in: *Jakin*, 1980, 14-15. zenb. 139-164. or. (bereziki: 147-149). AULESTIA, G. (1990): *Bertsolarismo*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia. 87-93.

¹⁷ REICHER, G. (1957): «Que sait-on de la vie de Bernard Dechepare», in: *Gure Herria*, 1957, 33-49.

¹⁸ URQUIJO, J. (1933): «Introducción a nuestra edición de *Linguae Vasconum Primitiae*, de Bernard Dechepare», in: *RIEV*, XXIV, 1933, 660-684.

Gorabehera pertsonalak aparte, bere burua aitzindari literariorik gabe ikusi zuen: gogorazten digunez, aurreko antzekorik gabe landu zuen bere liburua¹⁹. Bakardade historiko horretaz jabeturik, obraren balioekiko harrotasun guztiz pertsonala erakusten digu, zinezko mugarri historiko bat jarri zuenaren harrotasuna: *Primitiae*-k, aurreko kultur zabarkeriei hesi-muga bat ezarri nahi zien, eta berori ondoko eginkizunen abiapuntutzat har zitekeela uste zuen²⁰. Hizkuntzaren ibilbide historikoaz ere bazuen kontzientziarik²¹: hain zuzen, obraren inprimaketa gertakari historiko aberasgarri bezala definitu baitzuen autoreak berak²².

Hizkuntz hautapenean, euskal hiztungoarekiko atxekimendu hurbila erakutsi zuen Etxeparek²³, eta, halabeharrez autore-interesak mezenazgo batez zainduz, argitalpen-unean kalera ateratzen lagunduko zion aterperik ere bilatu ahal izan zuen, euskaldunen artean²⁴. Hortaz, izan zuen Etxeparek alde sozio-historikoaren (diakronia eta sinkronia esango genuke) kontzientzia pertsonala.

Hau dena gogoratu ondoren, ordea, ezin liteke esan Etxepareren lana, talde-lana izan zenik, ez sorkuntzan eta ez izan zitzakeen inguru sozial

¹⁹ DECHEPARE, Bernat (1968): *Olerkiak*. San Sebastián: Editorial Edili. 20. or.: «Miraz nago, Jauna, nola batere ezten asayatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera». Obraren lehentasun-balioa Bordeleko adiskide eta babeslearekin banatzen zuen idazleak, izan ere, «lehen inprimitzalia heuskararena hura da» (aip. lib. 130.or.).

²⁰ Irakur «Kontrapas»-ean errepikatzen duen *orai* nahiz *oraindano* haiek: «*Orai* dute forogatu / enganatu zirela (...). *Orai* aldiz hik behar duk / Ohoria orotan (...). *Orai* hura iganen da / Bertze ororen gainera (...). Orok ikasiren dute / *Orai* zer den heuskara (...). *Oraindano* egon bahiz / Inprimitu gaberik, / Hi *engoitik* ebiliren / Mundu guzietarik (...). *Orai* ezta erideiten / Heuskararen parerik». DECHEPARE, Bernat (1968): *Olerkiak*. San Sebastián: Editorial Edili. 126-128. or.

²¹ Ik. INTXAUSTI, J. (1985): «El Euskara: de su mito a la conciencia nacional / Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea, historian», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria. II. Errealitate eta egitasmo/ Realidad y proyecto*. Donostia: Jakin/Lankide Aurrezkia. 367-368.

²² «Eta zeren orai zuk, iaun noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara; zuri, neure iaun eta iabia bezala, igortzen darauritzut heuskarazko koplak batzu, ene iñorantziaren araura eginak; zeren, iauna, haiek ikhusirik eta korrejiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimierazi ditzatzun eta zure eskutik orok dugun ioya ederra, inprimiturik heuskara, *oraino izan eztena, eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara*». DECHEPARE, Bernat (1968): *Olerkiak*. San Sebastián: Editorial Edili. 20. or.

²³ «Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil eta hetan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik (...). Eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian skribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia (...). «Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden, / Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen, / Zeren ezein skripturan erideiten ezpaizten; / *Orai* dute ikasiren nola gauza ona den. / Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya». DECHEPARE, Bernat (1968): *Olerkiak*. San Sebastián: Editorial Edili. 20. eta 130. or.

²⁴ «Erregeren adokatu bidezko eta nobliari, birthute eta on guziez konplutuyari, bere iaun eta iabe Bernard Lehete-ri, Bernard Etxepare-koak, haren zerbitzari txipiak, gogo onez goraintzi, bake eta osagarri». DECHEPARE, B. (1968): *Olerkiak*. San Sebastián: Editorial Edili. 20. or.

nahiz segida literarioetan. Eta, zoritxarrez, euskaldunei lanera deitu bazien ere, bakarrik egindako lana, bakarrik geratu zitzaion, eta Bernat Etxepare ez zen heldu Frantzian eta frantsesaren alde Ronsard-ek izandako antzeko *rol* sozialik betetzera: hau da, euskarak ez zuen izan «Pléiade» bezalako talde aurreraturik²⁵.

1.4. Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)

Euskal Literaturaren hurrengo pausoa, ordea, taldean emango da: «Testamentu Berria»-ren itzulpena (1571)²⁶ *talde leizarragatarra* deituko genukeena Leizarragak eta berorren taldeak burututako lana izan zen. Garrantziko lan-bide berria dakarren gertakari sozio-literario baten aurrean gaude kasu honetan, zinezko lantalde baten aitzinean alegia. Xehetasun handiagotan sartzea beste baterako utziko badut ere, pausaldi lasaiagoa eskatzen du leizarragatarren honek²⁷.

Joanes Leizarraga ageri da, hitzaurreetan, lanaren sinatzaile bakar bezala, baina gure bigarren euskal idazleak badu bere testuan, ondoan izandako taldeari buruzko aipurik, izan ere Sinodoaren lankide-bilaketak eta berauen ahaleginak eta lan-borondatea gogorarazten baitizkigu: «hunetan [itzulpen-lanean, alegia] *enplegatatu izan direnek* bihotz harturen dute, oraindanik gogo ere duten bezala, egin denaren berriz ikusteko eta korrejitzeko»²⁸.

Leizarragaren saihets-aipu hauetatik hasita, saiatu dira ikertzaileak haren lankideen nortasunak argitzen: Vinson-ek bildutako xehetasunak osatuz (1891, 1898, 1908), Jaurgain-ek (1907) eta batez ere Lacombe-k (1931) eman dizkigute Leizarraga-ren lankideen albiste-apurrak²⁹, berrikitan

²⁵ Ronsard (1524-1585) poetaren inguruan eratutako talde literarioa zen «Pléiade» (1554), Du Bellay, Belleau, Jodelle, Baif, Pontus de Tyard eta Dorat tartean zirela osatua. (Ik. WEBER, H. (1971): «“La Défense et Illustration de la langue française” et la formation de la Pléiade», in: ABRAHAM, P.; DESNE, R. (1971): *Histoire littéraire de la France*. Paris: Editions Sociales. I, 491-494: «Ce programme n’est pas celui d’un seul individu qui signe le manifeste, il est l’expression de la volonté d’un groupe, de ceux qui se sont mis à étudier le grec sous la direction de Jean Dorat et ont découvert avec enthousiasme la richesse de la poésie grecque».)

²⁶ *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria*. Rochellan. Pierre Hautin, Imprimiçale. 1571. Ondoren egingo diren testu-aipuak (Leizarraga 1990, alegia) Euskaltzaindiaren edizioaren arabera jasoko dira: LEIZARRAGA, Ioannes (1990): *Iesus Christ Gure launaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrera. ABC edo Christinoen instructione*. Bilbo: Euskaltzaindia.

²⁷ Argitara emango den «Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)» idazlanerako geratzen da zenbait albiste osagarri (ik. *RIEV*, XL, 1995, 119-160).

²⁸ LEIZARRAGA 1990: 254 or. Eta begira zenbait esaldi: 247, 252. or.

²⁹ VINSON, J. (1983 [1891-1898]): *Essai d’une Bibliographie de la Langue Basque*. Berrargitalpena: Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaina. 2 lib.: I, 5-46; II, 521-529. JAURGAIN, J. (1907): «Le Nouveau Testament de Liçarrague», in: *RIEV*, I, 1907, 288. LACOMBE, G. (1931): «Du nouveau sur Liçarrague et ses collaborateurs», in: *RIEV*, XXII, 1931, 363-366. Gogoan har bestalde 1972ko *Euskera* XVII.ean Leizarragaz bildutako lanak.

Olaizolak gaztelaniara itzulita aurkeztu dizkigunak³⁰. Guztien iturriak Sinodo kalbindarretako agiriak eta *Rolle des offices* izeneko bat dira³¹. 1563tik aurrera, 1601eraino agertzen dira Leizarraga eta beronen inguruko-en aipuak (1580-1593etako urteetan hutsarte bat dela).

Leizarragararen talde hau ez zen sortu, taldekide izango zirenen kabuz eta ekimen hutsez. Lehenengo eta behin, Leizarraga bera Pabeko Sinodo kalbindarraren erabakiz bildu zen Bibliaren itzulpen-lanera: «Lapurdin dagoen Leizarragari hona [Pabera] etortzeko aginduko zaio, Testamentu Berriaren, otoitzen eta kateximaren itzulpena egin dezan». Eta aginduak berarekin izan zuen mantenu-eskaintza ere: «Eliz Kontseiluari eskatzen zaio bera manten dezala, etorri nahi badeza bederen». Une berean, Sinodoarena ezezik Erreginaren borondatea ere badela hori, dio Sinodoaren testuak: «La volonté de Royne est quil Vienne»³². Talde-burua izendaturik geratu zen, hortaz.

Lafitte eta Olaizolarekin batera, itzulpen-enkargu honen data, 1563an eman behar dela uste dut. Hurrengo urtean ez dugu albisterik, baina bai Oloroen ospaturiko Sinodoan (1565), han erabaki baitzen Leizarragaren lana berrikusteko lantaldea sortzea. Begira zer zioen testuak:

Testamentu Berria lau Ministrari euskaldunek berrikus eta zuzen dezate-la agindu da, eta beren familietatik at denbora luzez egon beharrean izango direnez, Bonnefont Jaunak agindu du haien gastuak ordaintzeko, egiteko horretan beren etxeetatik urrun izanen diren bitartean, eta bestalde —igan-deetakoetatik salbu— beroriek beren prediku-lanetatik aske izanen dira³³.

Zinezko lantaldea izan zen, ba, beren etxeak utzi eta elkarrengana lanerako bildua. Bakoitzari eguneroko soldata izendatu zitzaion, baina azpimarratu behar da aurrekontu ireki baten gain zihola lana, hau da, behar izango zen denbora hartzeko eragozpenik gabe. Eguneko hainbesteko batetarik ordainduko zen iharduera, horretarako Sinodoak agindu eta eskatuta zeuzkan dirulaguntzak elizetan bilduta ordainduko zena³⁴.

Lau talde-lagunen izenak ezagunak ditugu: Tardetz, Sanz Tartas, Piarres Landetxeberri eta Joanes Etxeberri (De la Rive ere deitua)³⁵. Lantalde honen eraketa kalbindarren lankidetzamoldeen tradizioaren barnean

³⁰ OLAIZOLA: aip. lib., 177-183. or.

³¹ *Synodes du Béarn de 1563 à 1579 et de 1594 à 1623*, eta *Rolle des offices et mandementz de finances expediés par commandement de Monsieur de Gramont* (1564eko apirilaren 27tik 1565eko azaroaren 28ra): azken honek itzultzaile-zuzentzaileei egiten zitzaizkien ordainketen berri ematen du. Jargain eta Lacombe-k aipatuak.

³² LACOMBE 1931: 363-364. Ik. OLAIZOLA 1993: 177-178.

³³ LACOMBE 1931: 364.

³⁴ OLAIZOLA 1993: 179-180. Pentsa liteke erbesteko eliza zaharragoetan ikusitako burubi-dea segi zela kasu honetan ere.

³⁵ Tardetz, horrelaxe agertu ohi da («z»-rekin). Joanes Etxeberri hau lapurtarra zen, donibandarra: Euskal literaturan beste bi «Joanes Etxeberri» ere baditugunez (Ziburukoa, Sarakoa), honi «Etxeberri Donibanekoa» deitu beharko genioke.

ulertu behar da. Genevan bertan ezaguna zen Artzainen arteko itzulpen- eta berrikuspen-lankidetz³⁶. Hortaz, talde-sorrerak ez zuen esan nahi Sinodoak Leizarragaren zuen konfidantza ona zalantzan jarri edo galdu zenik.

Itzulpen-programa oso bat eman zitzaizen Leizarraga eta taldeari, eta ez Testamentu Berriaren itzulpen-eginkizuna bakarrik: kalbindarrek elkar-te-bizitzan behar zituzten oinarrizko argitalpen-guztiak prestatu behar zituzten (otoitzak, sakramentuak, katexima, irakurgaiak, etab.). 1571ko argitalpenaren arabera badakigu, gainera, hamabiren bat liburu-liburuska atera zirela kalera, eta itxura guztiz, hauetako batzuek bederen aparteko edizio bereziak ere izan zituztela³⁷. Honetan ere Europako eta Frantziako hedapen-tradizio kalbindarrari jarraitu zitzaion³⁸.

Berehala —soldatak noiz etorriko zitzaizkien begiratu gabe— jarri ziren lanean talde-lagunak (Leizarraga lehenengo, zuzentzaileak gero), zeren *Rolle*-k dioskunez, 1565eko uztailaren 10ean egin zitzaizkion hari ordainketa batzuk³⁹; hilabete batzuk geroago, urte bereko udazken aurretik, eginda zeukan taldeak kontuemateko bere txostena, Salbaterrako Sinodoarentzat (1565-iraila-5)⁴⁰. Irailaren hondarretan lanean ari ziren, eta, antza, artean puska batean segitzeko asmotan⁴¹.

Taldeak bi motatako itzulpen-zailtasunak aurkitu zituen bere zereginean: Bibliaren itzulpen orori zegozkionak, eta euskara hezikaitz batekin moldatu beharrak zekartzanak. Lehenengo arazoaz asko zekiten itzulpen-talde erreformatuek, eta Leizarragak gertutik begiratu behar izan zuen aurreko hamar-kada haietako protestanteen lana⁴², berean erabil zitzakeen irizpideak alde aurretik ezagututa ihardun ahal izateko⁴³.

Bigarren oztupoaz, berriz (euskararen gaitasunaz, alegia), Leizarragaren testuetan bertan eta Sinodoetakoren batean ikus daiteke, nola arduratu ziren lankideak. Bere «Heuskalduney» atarikoan, ulergarri gertatzeko testu itzuliaren gain jarri behar zen arreta gogoratzen zuen Leizarragak, eta badakigu

³⁶ Ik. MANGENOT, E. (1912): *Dictionnaire de la Bible*. Paris: Letouzey et Ané. s.v. «Françaises (Versions) de la Bible», 2363-2364 zutabeak: «Les pasteurs et les professeurs de Genève publièrent, en 1588, une revision de la Bible d'Olivet, qu'ils avaient préparée en corps et à laquelle ils donnèrent une approbation officielle. Le principal reviseur était Bertram, (...); ses collaborateurs se nommaient Th. de Bèze, Antoine de la Faye, Jacquemot, Rotan et Simon Goulart. (...) L'œuvre de la "Vénérable Compagnie" de Genève eut une grande vogue parmi les protestants français».

³⁷ OLAIZOLA 1993: 181.

³⁸ LEONARD, E.G. (1967): *Historia del Protestantismo*. Madrid: Ediciones Península. I, 278-280. or.

³⁹ OLAIZOLA 1993: 179.

⁴⁰ LACOMBE 1931: 364.

⁴¹ JAURGAIN 1907: 288.

⁴² Frantziako higanauten artean, Olivetan-en itzulpen frantsesa (1535) izan zen ofiziala, baina behin eta berriz zuzenduta, Calvin bera ere tarteko (1545-1560), 1588an «azken» onarpen osoa izan zuen arte. Agian, Olivetan-en hartatik, Calvin-en oharrez aberastuta egindako 1561eko nahiz 1563ko edizioa izan zen Leizarragak begiratuena.

⁴³ LEIZARRAGA 1990: 252 eta 246.

hain zuzen lantaldea ere horretaz kezkatu ari zela, *ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiqui içan gaitzatza* baitio berak, pluralean, gainerako lagunak ere gogoan zituela⁴⁴. Horrela azpimarratzen du itzultzaile nagusiak, talde-lagun guztiek euskaldun ororen alde egindako hizkuntz ulergarritasunaren postura. Urte batzuk lehenago, 1565eko Sinodoari taldeak zuzendutako txostenean ageri zen hizkuntz batasun eta ulerkarritasunaren kezka bera da⁴⁵.

Itzulpen-lankidetzak hark sortutako hurbiltasun pertsonal-instituzionala ondoko hamarkadan ere luzatu zena badakigu, izan ere Leizarraga bere lankide izandakoen haurren irakasle bilakatu baitzen hurrengo urteetan, Sinodoaren testu batek diotenaren arabera (1574)⁴⁶. Horregatik Piarres Lafittek zera idatzi zuen inoiz: «Bagaude ez ote zen izan eskual ikastoletan lehen-lehena!»⁴⁷.

Garbi dagoena zera da: euskal kalbinismoak ez zituela galdu nahi hemengo hizkuntz erroak eta premiazkoa ikusten zuela, «Seminario Ttipi» edo «Lehen Seminario» bat sortzea, gerora Lescar-en, Orthez-en nahiz Paben hezi zitezkeen artzaingai gazteentzat, Erreginaren borondatez eta Sinodoaren erabaki eta diruz⁴⁸.

Leizarragatarren taldeaz eta inguruaz esatekoak bukatu aurretik kome-ni da talde hura babestu eta sustatu zuen gizarte-sektoreaz ere oharren bat egitea, izan ere Erregina eta Sinodoaz aparte, beste babeslerik ere egon zen, Joanes Leizarragak bere hitzaurreetan gogoratzen digunaren arabera. Izendatuki eman zituen babesle haien izenak⁴⁹.

Interesgarria da hemen azpimarratzea, urte haietan Erreinuko nobleziaren parte on bat kalbindar bilakatu zela, eta zeregin kultural berri hauen sustatzaile gainera, eta noblezia horrek, tradizio protestate euskaldun hori luzatuko zuen ondoko belaunik ere izan zela⁵⁰.

Babes guzti hauei esker, Leizarraga eta beronen taldearen lana ez zen gaztelu-zoko batean galdu: Sinodoak agindu bezala, «kolokioetan» (hau da, eliza kalbindarrak ezarri zituen barruti geografikoetan) banatu ziren TBren edizioa (edo edizioak) eta liburu ezberdinak⁵¹.

Baina Protestantismoak erlijio-gerrak galdu, eta buruzagia bera —Nafarroako Endrike III.a (Frantziako IV.a), hain zuzen—, katoliko erromatar bihurtu zenean, Hexagonoko Protestantismoa mugimendu galtzaile bilakatu

⁴⁴ LEIZARRAGA 1990: 254.

⁴⁵ OLAIZOLA 1993: 179.

⁴⁶ LACOMBE 1931: 365.

⁴⁷ LAFITTE, P. (1972): «Zer dakigu Leizarragaz?», in: *Euskera*, XVII, 1972, 147.

⁴⁸ Politika haren esplikabide historiko hurbila, baina orokorra, berrikitan aztertu izan da. Hainbat albiste eguneratzeko bi obra aipatuko ditut, balio eta asmo ezberdinekoak: COLLOQUE INTERNATIONAL D'ORTHEZ (1984): *Actes du... (16, 17 et 18 février 1983)*: Arnaud de Sallette et son temps. *Le Béarn sous Jeanne d'Albret*. Orthez: Per Noste. Eta lehenetik aipatua dudana OLAIZOLA 1993.

⁴⁹ LEIZARRAGA 1990: 251-252.

⁵⁰ OLAIZOLA 1993: 188-190.

⁵¹ OLAIZOLA 1993: 181, 183-184.

zen, eta, ondorioz, proiektu kultural-linguistiko oso bat sostengatu eta berri gizartean jarraibidea segurtatzeko mugimendu ahulegia.

Bukatzeke, euskararen alde lan egin duten taldeen artean, leizarragatarrena nola defini litekeen galdetuko balitzait, puntu hauetara bilduko nuke berorren talde-tipologia:

- Proiektu sozio-erlijioso baten zerbitzuan jaiotako taldea izan zen, eta erret politika erlijioso jakin baten mesedetan. Agian, asmo «nazional» nafar orokorrako baten katebegi politiko bezala ere ikus liteke hizkuntz hautapen hau⁵².
- Hortaz, talde-mugimendu sozial batetik jaio zen, eta erabaki instituzional eta eliztar baten fruitu gertatu.
- Sinodoak eta Koroak ofizialki babestu eta finantziatutako taldea izan zen.
- Egiteko eta lan-egitarau zehatza eman zitzaion taldeari, eta batez ere lan-epe jakin baten barnean egon zen indarrean talde hau (1565-1571).
- Eman zitzaion eginkizuna burutu ahal izan zuen, eta guztiok eza gutzen dugu emaitza (1571ko argitalpenak).
- Lan-prozeduraz ezer gutxi baldin badakigu ere, buruzagitza eta lehen eta azken lan astunena Leizarragari zor zaio.
- Lankideek, itzulpenaren tarteko zuzenketa- nahiz hobeketa-lan osagarria egin zuten; baina elkarren arteko egiteko horri aski erantzukizun ikusi zitzaion, ze denbora batez bederen soldata eta guzti horretarakoxe, beste lanetatik ofizialki aske, utzi baitzituzten lankideak.
- Taldeak ez zuen bigarren edo hurrengo lanetarako segidarik izan; ez dakigu zergatik, egindakoa nahikotzat jo zelako, ala batez ere Frantziako Protestantismoaren hondamendiaren ondorioz.
- Taldearen eta Leizarragaren hizkuntz ideologia, XVI. mendeko gainerako Protestantismo europarrarena bera da: euskara maite dute, lehenik bederen Jainkoaren Hitzaren hedapen-tresna bezala, baina baita euskaldunen eskubide bezala ere⁵³.
- Oro har, taldea ez zen izan guztiz beregaina, bere kabuz bakarrik bildu, jarraitu eta lana burutu zuena; baina garaikotasun nabaria izan zuen: garaikideen beharretara makurtuta egin zuten lan.
- Kasik gure egunak arte ez dugu honelako beste talderik ezagutu euskararen aldeko lanetan, eta gure historian eta gaur egun ere eredu imitagarria dugu berau.

⁵² Orthezeko *Colloque*-an (1984) behin eta berriz iradokitako ideia (G. Kremnitz, 264; R. Lafont, 381).

⁵³ LEIZARRAGA 1990: 252: «Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak bertze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoaiez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Iainko Iaina...» (ortografia egokitua).

Horrela eratu zen talde instituzional hark ez zuen izan funtsezko segida erabakiorrik, baina bai, etenaren ondoren, bi belaunaldi geroago eman zitzaion erreleborik, bestelako testuinguru batean, noski, xede berriekin zetorren Kontrarreformaren barruan eta literatur tradizio bat sortzeko lain indarrarekin, gainera.

1.5. Eskola sara-donibandarra (1617-1643)

J. Urkixok azpimarratu zuen mende honen hasieran (1907) *Donibane-Sarako idazle-taldearen batera-lana*, Materre eta Axularren, urdazubitar honen eta Etxeberri Ziburukoaren, Haranburu eta Harizmendiren arteko elkarren ezaupideak edo harremanak azpimarratzean⁵⁴.

Bestalde, batez ere Villasante izan da gure artean Donibane-Sarako talde hartaz literatur eskolatasunaren ideia zabaldu duena. Argi dago, ordea, «Eskolak» ez duela nahitaez «talde» esan nahi, izan ere elkarri jarraikiz talde izan gabe ere egin liteke literatur eskola bat. Villasantek berak, ordea, literatur korronte edo tradizio batena baino zerbait gehiago erakutsi nahi izan digu, Axular-en inguruko giroa nolakoa izan zen azaltzean:

Saran ikasi duela euskeraz, aitortzen digu, gainera, Materrek [bere *Dotrina Christiana*-n, 1617]. Eta hori gutxi balitz, Elizaren aldetik liburuaren ikertzaile bezala Axular agertzen da. Ziburuko Etxeberriren bi liburutan ere Axular azaltzen da ikertzaile edo iritzi emale bezala. Eta Axularrek berak salatzen digu bere liburua egiteko lehen ideia *laguntalde batean karga zela, eta konpainia hartan egotzi ziotela berari liburu hori egiteko kargua* (n.º 6).— Garai hartako euskal liburuak ikertuz, laster oartzten gara gauza batez: *Sarako erretorearen inguruan bazela adiskide multzo bat*: apaiz, praile, midiku eta abar, eta zorionez hoiek, elkarri *gogoa berotuz eta elkar bultzatuz*, sortu zuten euskal literaturaren mobimendua, Euskal Herriko beste eskualdeetan lo zeuden bitartean.— *Euskaltzale talde hura nork osatzen zuen* oker egiteko peril handirik gabe asma dezakegu, garai hartako euskal liburuetan ageri diren izenak ikusiz: *Klabilia, Hirigoiti, Materre, Gillentena, Axular, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, Argaignarats*, t.a.⁵⁵

⁵⁴ URQUIJO, J. de (1907): «Introducción», in.: *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas por...* Paris: Paul Geuthner. LI. or.: «Sin que parezca, por otra parte, aventurado suponer, que Materre fuera amigo y acaso discípulo de Axular y que Harizmendi tuviera presente el *Gvero* al hacer la traducción de «l'Office de la Vierge». Nos consta, además, que el famoso párroco de Sara conoció los escritos de Etcheberri de *Ciboure*, puesto que encontramos la firma «P. de Axular» al pie de las *aprobaciones* del «Manval Devotionezcoa», y del «Eliçara erabilececo liburu»; y no cabe duda de que Haramboure y Harizmendi se conocían, ya que éste dedicó a aquél unos versos, con motivo de la publicación del *Debocino Escvarra Miraila eta Oracinotegua*».

⁵⁵ VILLASANTE, L. (1972): *Axular. Mendea, gizona, liburua*. Arantzazu: Jakin. 90-91. Lagunartearen «taldetasuna» bereziki lehendik ere azpimarratuta zuen autore berak: VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la Literatura Vasca*. Bilbao: Sendoa. 67-72

Hor dago oso ongi laburtuta, lagun-andana hari buruz dakiguna, beti ere idatzi zituzten liburuetatik jaso litezkeen datuekin. Materrek Saran euskara ikasi zuenerako Axular han zegoen erretore (apaiz egin eta urte berean edo joana: 1596), eta XVII. mendeko euskal bibliografiaren kronologia begiratzan badugu, laster ohartuko gara taldean zaharrenetakoa berak izan behar zuela (1556an jaioa, hain zuzen)⁵⁶; ez da harritzekoa, ba, haren izena lehenengo argitalpenean bertan agertzea (1617).

Garaiko liburuen datak begiratzan baditugu, ongi ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, taldearen buruzagi literariotzat jo dezakegunak —Axular-ek alegia— ez zuen deus argitara eman oso berandu arte (laurogei eta gehiago urte bete arte), luma eskasagoak zituzten ingurukoek aurrea hartzen zioten bitartean. Hona, sintesian, argitalpenen kronologia:

1617	Materre	<i>Dotrina Christiana</i>	Bordele
1627	Etxeberri Ziburukoa	<i>Manual Devotionezcoa</i>	Bordele
1631	Etxeberri Ziburukoa	<i>Noelac</i>	Bordele
1635	Haranburu	<i>Debocino eskuarra</i>	Bordele
1636	Etxeberri Ziburukoa	<i>Eliçara erabiltceco liburua</i>	Bordele
1641	Argaignarats	<i>Avisu edo Exortationea</i>	Bordele
1642	Voltaire	<i>Tresora hirour lenguaietacua</i>	Baiona
1643	Axular	<i>Gero</i>	Bordele

Axular hil eta gero ere XVII. mendeak emango zuen fruitu onik Harizmendi, Aranbillaga, Pouvreau eta abarren eskutik, baina horrek urrutixko eramango gintuzke⁵⁷.

1.5.1. Axular, «konpainia onean»

Argitalpen-atzerapen hau gora-behera, pentsa liteke Axular ez zela izan idazle berantiarra, zahartzaroko argitaratzailea baizik. Apaiz-egitekoetan ondu ondoren, lana enkarguz burutzea suertatu zitzaion Axularri, lagunek eskatuta eta hauek bortxaturik izkribatu baitzuen bere *Gero* liburua, «Irakurtzaileari» idazten dizkion lehen lerro hauek diotenez:

Egun batez, *konpainia on batean*, euskaldunik baizen etzen lekhuan *ningoela*, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko

⁵⁶ Talde honetako lagun gehienak jaioturteak ezin eman izan ditu Villasantek, baina Etxeberri Ziburukoaz, adibidez, badakigu xehetasun ohargarri bat: bere senideekin batera sendotzako sakramentua Etxauz Baionako Apezpikuaren eskuetatik hartu zuen Ziburun (1599-1614.eko urteetan, beraz), eta pentsa liteke hamar-hamabost bat urte lehenago jaio zela bera (ik. VILLASANTE 1961: 71).

⁵⁷ VILLASANTE 1972: 94-95.

utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza honetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik bai-zen etziakitenentzat, egitea: eta hartan «gero» dioenak «bego» dioela erakustea. *Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua*. Eta bertze guztien artetik, *hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkanean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sarthu*. Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baiña alferrik, zeren *hain zinez batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsu baitzerauzkidaten*. Eta hala deliberratu nuen, buru-eragotzkarri⁵⁸ bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, *gero hunen gainean egitera*⁵⁹.

Garbi dago, hortaz, talde euskaltzale honek elkar berotu eta eztenkatuz egin zuela bere lana, elkarren lankide zuzen zenbateraino izan ziren ez badakigu ere. Leizarragatar kalbindarren hartan bezala, berriz ere eliz gizonen artean gaude (oraingoan apaiz katolikoaren artean), baina doniban-saratar hauen kasu honetan ez dira, itxuraz, eliz agintariak Axularri kargu edo egiteko ofizial bat eman ziotenak: Erreforma katolikoaren barruan⁶⁰ eta eguneroko apaiz-lagunartean somatutako premiei erantzun beharrak eta bileretan bildutako adiskide-bultzadak jarri zuten idazle-lanetan Axular. Ez zen, seguraski, han horrelako lehenengoa eta bakarra izan.

Baina non egiten ziren bilera formal edo informal haiek? Lagun-talde honen ustezko biltokia Villasantek iradoki du: Etxauz apezpikuak Ziburun irekitako frantziskotarren komentuan (1612)⁶¹. Maiz joaten zen hara Etxauz, eta han bizi izan ziren Materre, ziur, eta Haranburu ere agian, biak frantziskotarrak⁶²; taldekoentzat ere biltoki eroso eta erakargarria izan zitekeen inguruetako apaizgoaren zerbitzuan irekita zegoen etxe hura, batez ere ondoko herritik lotsa oneko gidari preziatu Joanes Etxeberri («Ziburuko» guretzat) bezalakoak hara inguratzen zirenean.

⁵⁸ *Buru-eragotzkarri bezala* hori «a modo de descargo» itzuli du Villasante-k (ik. AXULAR 1976: 12).

⁵⁹ AXULAR (1976): *Gero*. Arantzazu: Jakin. 13. or.

⁶⁰ Ik. MICHELENA, L. (1960): *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid: Minotauro. 59-60.

⁶¹ VILLASANTE 1972: 54-55. AXULAR 1976: 12. or., oharra. Veyrin-ek argitzen du Etxauz-ek zergatik ireki zuen komentuetxe hau: «C'est également sous l'épiscopat de Bertrand d'Echaux que se déroulèrent les lamentables procès de sorcellerie en Labourd. On sait comment sur le conseil du prélat ému par les excès de la commission criminelle, Henri IV fit rappeler le cruel conseiller de Lancre qu'on avait imprudemment doté de pouvoirs trop étendus. La fondation en 1611, sur un îlot à l'embouchure de la Nivelle, d'un couvent de Récollets dédié à Notre-Dame de la Paix, eut pour principal but de calmer l'effervescence des ensorcelés par des moyens spirituels plus efficaces que la torture et le bûcher». Ematen diren bi data ezberdinak, eraikuntza kanonikoaren eta etxearen irekierarenak izan litezke. (VEYRIN Ph. (1975⁵): *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre. Leur histoire et leurs traditions*. Paris: Arthaud. 143. or.

⁶² VILLASANTE 1972: 55. Haranburu-ren frantziskotartasunaz ik. VILLASANTE 1961: 72.

1.5.2. *Gidari eta ereduak*

Taldean, guztien gainetik, bi izan ziren gidari eta eredu miretsiak: Etxeberri hauxe, *doktore* bezala izendatu ohi zutena, eta Axular, Sarako erretorea⁶³. Beste gisa batean, mezena sustatzaile bezala alegia, hirugarren bat ere gogoan hartu behar da: Bertrand Etxauz.

Etxauzen mezenazgo literarioarekiko zertzeladak ez ditugu ongi ezagutzen, hala ere Axularrek bere gomendioan erakusten duen bihotza ezagututa, pentsa liteke, Etxauzek Baionan zegoela, eta gero ere, zerkusirik franko izan zuela taldearen lanetan⁶⁴. Baigorriko seme hau, Baionako (1599) eta Luçon-eko Apezpiku (1614) izan zen, Tours-eko Artzapezpiku (1618), eta 1606tik aurrera Frantziako bi erregeren kaperau «erremusinari» edo kaperau limosnari (Hendrike VI. eta Luis XIII. arekin).

Sara-Donibaneko idazleok gizon maitea izan zuten Etxauz, maitea eta hurbila: Etxeberri eta Axularrek liburu banatan eskaintza bihozkorrak egin zizkieten, azken honek, gainera, hilondoko eskaintza, inondik ere autorenaren eta taldearen eliz eta euskal proiektu batekin harremanean begirata hobeki uler daitekeena⁶⁵.

Axularren hitzetan, euskal kultur munduaren eta idazlearen beraren babeslea izan zen Etxauz, fede katolikoaren defendatzailea, hau da: *Gero-k* ispilatu eta zerbitzatu nahi zuen Euskal Herri katoliko berriaren aterpe⁶⁶. Euskal proiektuan (euskaraz egin nahi zen hartan), Leizarraga, Axular, Etxeberri Ziburukoa eta Etxauz sentiera berekoak ageri zaizkigu; baita

⁶³ VILLASANTE 1961: 75.

⁶⁴ Ik. VILLASANTE 1972: 52-56. Etxauz-en gutun bat: *Egan*, 1956, 3/4, 11-12.

⁶⁵ *Eliçara erabiltceco liburua*-n bata, eta *Gero*-ren «Gomendiozko kartan» bestea.

⁶⁶ «Neure iaun maitea, ioan zataizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere. — Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasan errezibituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat ateratzeko, ausartziaren hartzera.— Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarella, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaizu.— Nor da euskal-herrian alde edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? (...). *Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua*(...). *Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa*.— *Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideoke hegaletan, bethiere zentinel, eta begiraille bezala, iratzarrirek dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. (...). Eta [etxauztarrak izan dira] bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile, eta aitzinatzaile buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan, bertze anhitz lekhutan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatzer eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaioira, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. (...). Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere iauregi ederra erre zioten. Hunelakoak ziren zure aita eta bai bertze aitzinekoak ere. (...). *Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoinez orai ere zuri presentatu behar zaitzula*» (AXULAR 1976: 3-9. Azpm. nireak).*

proiektu hura fedez jantzia egin nahian ere, baina lehenengoak, Leizarragak, Erreformaren bidea lagundu zuen, eta besteok, ostera, mende-erdi bat geroago hasita, Kontrarreforma trentotarrarena. Honetan, Sinodo kalbindarren, Leizarraga eta honen lankideen kontrasinbolo dira Etxauz bezala Axular eta Donibane-Sarako talde osoa.

Babes apezpikutar hori jasotako taldeak bere buruzagiak izan zituen. Adinez, saratarra zen zaharrena; lumaz ere bera trebeena. 1643an haren izkribuak moldiztegiara iritsi zirenerako, bazuen itzalik lagunen artean; haietako batzuen zentsore izanarren (edo hori ere izan zelako agian?), ez zitzaion falta izan inguruko idazle lagunen mireспенik.

Eta garaiko mundu ofizialean hartaz zer esaten zen ere badakigu. *Gero*-ren onarpen ofizialetan zentsoreek hitz hauekin gorai patzen dute: «izen handiko gizona Euskal Herrian, eta orain gutxi arte Sarako erretore ospetsua» dela dio bata, eta besteak zera gehitzen du: «merezimenduz beteriko behinolako Sarako erretorea [da Axular] (...): ez naiz behin bakarrik txunditu jakintasun handiarekin eta aparteko jaierarekin batera autoreak erakusten duen etorri aberatsaz»⁶⁷. Haren kultura zabala eta hiztunaren tre-bezia dira aipatuenak.

1.5.3. *Talde-lagunen ideia eta jarrera linguistikoak*

Axular liburu bakarreko idazlea dugu, eta bertan utzi zigun hizkuntzari buruz izan zituen arduraren eta buruhausteen berri, seguraski idazle-lagunen artean, taldean erabilitako kezka; hamaikatxo aldiz lagunartean solasgai izandako hauetatzen ari da: euskarak bere baitan zituen balioak, eta beraz hizkuntzarekiko estimuak; beste hizkuntzen parean beronek zuen duintasunak; baina baita alde eskasagoek ere (batasunik ezaz eta kulturarako gehiago landu beharraz)⁶⁸.

⁶⁷ Latinez hitzez hitz: «viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper rectore de Sara» eta «Petro de Axular meritissimo olim rectore de Sara (...) atque uberem authoris facundiam magna cum eruditione ac singulari pietate conjunctam non semel admiratus sum» (ik. AXULAR 1976:11. or.).

⁶⁸ *Euskaraz zein gutxi idatzi den*: «Baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskribaturik, gogan behartu naiz eta beldurtu, etziren bideak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa-harri» (13. or.). «Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are herrikoen artean ere, ez-paitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.— Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franseses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berèk dute falta eta ez euskarak» (17. or.).— *Euskararen batasunik eza*: «Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarazko minzatze guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhotan. (...). Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent.— Bada eskribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz egiteko gabe (...). Eta

Axularren ondoan, baina aurretik, Etxeberri izan zen taldeko argitalpe-
netan emankorrena; eta jakitatez ere, itzal luzeko gizona⁶⁹. 1627-1636. ur-
teetan hiru liburu eman zituen argitara Joanes Etxeberri Ziburukoak.
Hauetatik bi gogoratuko ditugu hemen, berezikiago: *Manual Debozionez-
koa* (1627) eta *Elizara erabiltzeko liburua* (1636)⁷⁰.

Euskal Herriaren hizkuntz dimentsioa taldeak zenbateraino begiratu
zuen jakiteko, testu jakingarri batzuk ekarri nahi ditut hona. Nagusienetan,
bata Etxeberriri zor diogu, bestea J. Klaberiak ziburutarraren *Elizara era-
biltzeko liburua*-n eta liburu-autorearen ohoretan emana izan zen. Etxauzen
ondorengo Baionako apezpiku ez euskaldun bati eskainia da,

Lehenengo obra hartan, agintedunen eta berauen menpekoen hizkuntze-
kiko harreman-moldeak aipatzen ditu, bidenabar, Etxeberrik. Jean-Claude
Rueil Baionako apezpikuari zuzentzen dion «dedikazionean» topatzen di-
tugu puntu honetaz lehenengo hitzak. Apezpikuak badaki hainbat mintzai-
ra, baina, tamalez, euskararik ez dakielako zera dio:

*longoicoac nahi luen, Iaun Prelata, Escara
Cinaquien, nola Hebreu, Greca, Latin Erdara
Presentatçen darotçudan obraren aditçeco,
On liçela, bailitçaçu halaber laudatçeco.
Alabaiñan, guztietara eçin heda burua,
longoicoak berac baiçen, eta adimendua⁷¹.*

Etxeberrik, azken finean —arazoa horrela aipatu gabe noski—, eliz ar-
duradunek Kontrarreforman herriarekiko zituzten artzain-betebeharrak eta

hunela [aipatutako hitz-idazkerez gain] bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork
bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baitituzte (15. or. [ik. AXULAR
1976: 14. Talde-barneko ortografia ezberdinei buruz Villasanteren oharra]).— *Euskararen
identitate eta hizkuntz autonomiaz, eta izen onaz*: «Ez eta, eztitut bethiere, eskritura saildua
eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hizkuntzak
diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoagoa dela euskara. Aitzitik badirudi ezen
bertze hizkuntza eta lengoia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara
bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela.— Baiña euskara eta euskararen minzatzeko
eta eskiribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala eta lorea bezala baitira: har
ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia» (17. or.). Aipua AXULAR 1976etik.

⁶⁹ VILLASANTE 1961: 70: «Personaje de alta calidad, culto y humanista (...). En sus libros se
le llama doctor teólogo, y por ellos se echa de ver que sabía componer elegantes hexámetros
latinos». Hona *Manual debozionezkoa*-n Etxeberriren obraz eta pertsonaz zerbait esan zute-
nak: a) Axular eta P. Gillentena-ren onarpen ofizialak, Oiharard bikario jeneralaren baimena,
P. Gillentenak autoreari euskarazko laudorioa, id. I. Hegi-k latinez, eta *louange* bat latinez Et.
Hirigoiti-k (ik. VINSON 1983: I, 67).

⁷⁰ *Manval devotioezcoa, edo ezperen, oren oro escvetan erabiltçeco liburutchoa. Escaraz-
ko versu tan eguiña, eta guztia bi partetan bereçia* [eta abar]. Bordelen, Gvillen Millanges Erre-
guerren Imprimatçaillearenean. M.DC.XXVII.— *Eliçara erabilceco liburua Ioannes Etcheberri
Dotor Theologoac eguiña eta iaun Noble Bertrano de Etchhaus Tursko Apezpicu digneari dedi-
catua*. Bordelen, Guillen Millanges Erregueren imprimiçaillea baithan. 1636.

⁷¹ *Manual debozionezkoa*. 49-54. bertsoak.

irizpideak ukitzen zituen, zeharbidez; baina, apezpikua apezpiku zenez, aitzakia zurigarria ere luzatuz (Jainkoak bakarrik jakin zezakeela dena, alegia).

Euskararen aldeko arrazoiak indartzeko, erregeak ere aipatzen ditu ziburutarrak, bide batez edo: Apezpikuak euskara onberatasunez begira dezan ari da, noski. Herritarren hizkuntza ikas dezala eskatzen ez bazaio ere, halako hizkuntza «arrotzaz» diharduena entzutea ere «ondra baizen ez dukezu» eransten dio idazleak, anitz hizkuntzako menpekoak izatea Erregerentzat ohore den bezala⁷². «Dedikazionea» bi berset hauekin bukatzen du Etxeberri: «Erregeak behar ditu defendatu jendeak, / hizkuntza batekoak hain ungi nola bertzeak». Horra, ba, nola ematen duen hiritarraren berdintasun-legea testuinguru osoak, hitz estaliz bada ere, iradokitzen duen hizkuntz berdintasun-gogoarekin batera⁷³. Liburu-eskaintza batean apenas zegoen deus nabarmenago esaterik. Jakin ere ez dakigu, Etxeberri bezalako burujantzi baten neurrikoak —beharbada bere lanak aintzindari sentituz gainera— euskarari zein leku eman nahiko ziokeen garaiko kulturaren eta Elizan.

Hamar urte geroago (1636), ordea, autorearen eta apezpikuarekiko menpeko-lotsarik gabe, bestek hitz egin zuen Etxeberriren partez beronen liburu berrian: J. Klaberiak alegia. Talde osoaren hizkuntz proiektu kultural baten baitandik jaio zela kritika esango litzateke. Taldearen jokabide praktikoak bere funts teorikoa zuen, nonbait, eta izen errespetatuen aurka ere mintzatzeko prest zegoen Klaberia, Etxeberriekin sintonia onean ari zela jakinik seguraski, gainera:

*Burlatcen naiz Garibaiez,
Bai halaber Etchabez,
Cenac mintçatu baitire
Erdaraz Escaldunez.*

*Ecen cirenaz guerostic,
Escaldunac hec biac,
Escaraz behar cituzten
Eguin bere historiac.*

*Escaraz eguin ditutçu
Etcheberri ceure obrac,
Ohoratu nahiz ceure
Ahalaz herritarrac.*

*Cer errefau eder baita
Hitzkuntça arrotcetan,
Hura aditcera ematen
Daroeçu beretan.*

⁷² *Manual debozinezkoa*. 69-72. bertsoak.

⁷³ Hau honela, gero ikusiko ditugun Klaberriaren bertsoek talde-buruzagi honen ideia eza-gunotan oinarrituta zeudela pentsa liteke.

*Esquer bada eta aithor
duçula bereçia
Ceren ohoratu duçun
Herritaren mihia*⁷⁴.

Berehalako batean, bizpahiru alde nabarmendu behar dira testu honetan: lan literarioak euskal herritarren ondarea zaindu eta duitasunez janzteko balio du, eta horretarakoxe idazten da euskaraz: «ceren ohoratu duçun / Herri-tarren mihia» eta idatzi ere «Escaraz eguin titutçu / Etcheberri ceure obrac, / Ohoratu nahiz ceure / Ahalaz herritarrac». Herriaren euskaltasunari begira egindako lan bezala aitortu zuen Klaberiak Etcheberriren lana, beraz.

Eta doniban-saratarren artean ikusten zen euskalgintza hori, «bestelako» kulturgintza bati kontrajarrita definitu zen bertso horietan: Hegoaldean euskararen alde erdaraz zihardutenen langintzari kontrajarria, alegia. Eta erdaltzaletasunaren salakuntza izendatuki egiten da: Garibai eta Etxabe sonatuen lanaz «burlatzen naiz» dio Klaberiak, bi arrazoi elkar-osagarri emanez: euskaldunak zirenez eta berauei buruz ari, «Escaraz behar zituzten /Eguin bere historiatic». Ezingo da ukatu garai haietarako proposamen ausarta zela hori: goi-kultur lanak ere eman zitezela —eta halaxe egin behar zelako, gainera—, euskaraz.

Garibai erraldoiaren bizkar parre egitera iritsi zen bertso-jartzailea, hau da, garaiko eusko mito maitatuenen (tubalismo, kantabrisimo, eusko-iberismoaren) gurasoetako bati erasoz. Gogoan har Garibai (1533-1599) zela artean Euskal Herriaren «ohorea»-ren eta jatorri garbiaren predikaria, eta hortik ekinda, Espainiako noblezia onena iturburuetatik garbitzen ziotuen historilaria. Esan gabe doa, arrasatearra dela, Mariana-ren aurretik, Espainiako historia orokorra lehenengoz idatzi zuena (*Compendio Historial*, 1571), eta halako obra itzelean euskarari ere laudoriozko pasarte luzeak eskaini zizkion idazlea⁷⁵. Etxabe zumaiarraren lanak, euskaldun guztien hizkuntzaren defentsa izan nahi zuen: euskara zen honentzat gure garbitasun paregabe guztien azken froga ederrena (*Discursos de la Anti-güedad de la Lengua Cántabra*. México, 1607). Hala ere, Etxaberen lanak ere jatorrizko tatxa bat zuen Klaberiaren begitan: erdaraz egina izatea.

Horrela, momentuko arrazoi pragmatiko guztien kontra (zabalkundea, talde-interes sozialak, zailtasuna, etab.), printzipio bat nagusitu zen doniban-saratarren artean: hiztunek gorde beharko luketen hizkuntz jokabide kultural oren aurretik komunitate linguistikokoarekiko leialtasunean definitzen da.

⁷⁴ ETXEBERRI, J. (1636): *Eliçara erabiltceco liburua*. (1665eko edizioan: XVI. or.).

⁷⁵ GARIBAY, E. (1571): *Los XL Libros del Compendio Historial de las Chronicas y vniuersal Historia de todos los reynos de España*. Impreso en Anueres por Christophoro Plantino. 89-93. Cfr. CARO BAROJA, J. (1972): *Los vascos y la historia a través de Garibay*. (*Ensayo de biografía antropológica*). San Sebastián: Editorial Txertoa. Passim, baina hainbat orrialdetan berezi-kiago: 181-189, 344-348, 325-344. ZUBIAUR BILBAO, J.R. (1990): *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*. San Sebastián: Universidad de Deusto (EUTG).

Bistan dagoenez, apologistikaren antzutasun linguistiko-kulturaletik urrun dago hau. Iparraldean eta Hegoaldean, hizkuntzarekiko bi dinamika ezberdin ageri zaizkigu, ba, XVII. mendearen erdialdi hartan.

Nola emango genituzke Donibane-Sarako taldearen ezaugarriak nagusiak? Berau leizarragatarrenarekin alderatuz begiratzen badugu, ondoko alde hauek hartuko nituzke gogoan batipat:

- Esan dezagun lehenik, axulararren elkarren arteko talde-lankidetzan esanahi zabalagoan ulertu behar dela hemen, leizarragatarren artekoa baino: bakoitzak du bere lana, bakoitzak bere argitalpena, eta ez dago denen artean zuzenki landutako testurik.
- Seguraski talde euskaltzale honetan ez ziren denak idazleak izan, eta bai elkarren ondoan eskolatu nahirik bildutako lagun soilak ere.
- Berritoki ere eliz lankidetzaren behar eraginda elkarrengana ziren talde-lagunak, baina oraindik Kontrarreformaren zerbitzuan gertatu zen hori.
- Doniban-saratarrek ez zuten izan dei edo enkargu ofizialik, eta ez dakigu dirulaguntzarik jaso zutenik, lanerako bederen; baina Etxauek emandak izan zuten nolabaiteko babesik.
- Leizarragatarren pareko gidaritzarik ez zen behar izan hemen, baina Axular-en maisugo literarioa aitortua da taldekoen artean.
- Leizarragatar azaldutako euskararen aldeko sentimendu lausoago hura, beste talde honetan behin eta berriz eta espreski emana dago, argiago: euskaraz idatzi behar da euskaldunentzat.
- Idazlan orijinalak sortzeari ere leku eman zioten; batez ere prediku, katekesi eta eliz pastoraltzarako, edo eginkizun horietatik jaiotako lanak kaleratu zituzten: ez ziren itzultzaile hutsak izan.
- Euskarak hizkuntz erretorika autonomo bat lortu zuen idazle hauen lumetan, jakite eskolatuak iturri herritar jatorri zerion hizkeran emanez. Leizarragatarrek abia-hizkuntzari hain lotuta eman zuten itzulpenaren ondoan, beste hauek mintzo libre batean emateko gai izan ziren.
- Pentsa liteke prosa idatzia ezezik, hizkuntza mintzatu jasoari ere eskola bat sortu ziotela: Axularren kasua da alde honetan nabariena. Hala ere, taldea batez ere idazle-talde bezala ikusten dugu.
- Utzitako lanak, zorionez, kasu honetan segida izan zuen, eta Iparraldean bederen hizkuntz eta literatur tradizio bat sortarazi, Axularri maisugoa aitortzeraino, talde-lagunen artean ezezik ondoko belaunaldietan ere⁷⁶.

Ikusten da, beraz, aurreko mendetik pauso berria eman zela, baldintza sozio-historikoek ere lagundu zutelako, noski: lanak oihartzun sozio-kultural

⁷⁶ Ik., adibidez, Etxeberri Sarakoaren hitzak, «P. Axular Saraco errotera escuarazco autoritarik hautuena eta famatuena» kapituluak, in URKIJU 1907: 141-154.

iraunkorra izan zuen, nahiz eta artean beren kabuz jardundako lagunok ez zuten aurkitu Erakundeetan behar eta merezi adinako babes eta laguntzarik. Gaitza, ordea, ez zen Iparraldekoa bakarrik: Hegoaldea atzeratuago eta eskasago zebilen, XVIII.ean larramenditarren lanak agertu ziren arte, ez baikenuen hemen ezer parekorik izan.

Larramendiren inguru hura («taldea» ez bazen ere) berriz ere aztertu berria izan da heriotz mendeurrena tarteko zela (1690-1990)⁷⁷; hori dela eta, eta ur handiagoetan sartzeko modurik ez dugulako oraingoz jauzi egingo dugu Larramendi-ondoko beste testuinguru eta belaualdi batera.

1.6. Euskal Herriaren Adiskideak (1764-1794)

Gure XVIII.eko historia eta beronen protagonistak aipatzean, betiere *Euskal Herriaren Adiskideak* datozkigu burura, Euskal Herriaren aitzinamendu sozio-kulturalari eman zioten bultzada gogoratuz. Adiskideak «talde» zirela ziurra da, lagunarte ongi eratua hain zuzen ere; bestalde, badirudi Elkarre euskaltzale ere izan zela berori, eta prest agertu zela hizkuntzaren aldeko zenbait ekintzatan esku izateko. Hala ere, euskaltzaletasun hura nolakoa eta zenbaterainokoa izan zen jakiteko hainbat argibide zehatz falta zaigu. Beraz, horregatik eta Elkarreak izan zuen pisu historikoagatik, komeni da Elkarrearen hizkuntz politikaz zerbait esatea.

Zoritzarrez, Adiskideen euskaltzaletasunaren hau ezer gutxi aztertu da⁷⁸, nahiz eta berrikitan P. Altuna, M.T. Echenique, X. Altzibar, R. Basurto edo K. Larrañagak aztergaiak baliozko lanak eman dizkiguten⁷⁹.

Gure artean, kultur talde eraturik eta historiografiak horrelakotzat, talde bezala, aitorturik inor izan bada, Zalduntxoen hau izan da. Erregek

⁷⁷ Ik. bi argitalpen bereziki: VARI (1992): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena, 1690-1990*. Andoain: Udala. LASA BERGARA, X. (1991): *Aita Manuel Larramendi: Bizitza eta obra*. Andoain: Udala. Larramendiren obran argitalpena J.I. Tellechearen eskuetan dago: (1969-1990): San Sebastián/Donostia: Sociedad Guip. de Ediciones y Publicaciones. 4 liburuki kaleratuta.

⁷⁸ Ik. TELLECHEA IDIGORAS, J.I. (1985): «Bibliografía sobre la R.S.B. de los Amigos del País», in: *Extractos-en Kutxaren edizioan*: XII, 203-247, 257-258. or.

⁷⁹ ALTUNA, P. (1985): «Aizpitareren hiztegi argitara gabea Loiolan», in: (1985): *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz: EHU. 1096-1110. or. ALTZIBAR, X. (1985): «Euskara Adiskideen Batzarrean», in: (1985): *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz: EHU. 1119-1135. ALTZIBAR, X. (1991): *Juan Antonio Mogel (1745-1804)*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. BASURTO, R. (1986): «Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del siglo XIX: J.A. de Zamacola», in: *RIEV*, 1986, n. 3, 661-675. BASURTO, R.; ALTZIBAR, X. (1991): *Juan Antonio Zamakola*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. ECHENIQUE ELIZONDO, M.T. (1985): «Campomanes y el proyecto de un gran diccionario vasco», in: (1985): *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz: EHU. 1089-1095. LARRAÑAGA ELORZA, K. (1991): «Euskal egitate bereizgarriaren ardura eta euskararena bereziki Bergarako Erret Mintegi abertzalearen hezkuntz egitarauan», in: *Tantak. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Aldizkaria*. 6. zenb., 1991.eko Abendua. 65-85.

berak ere onartutako Lagunarte-Arautegia eta guzti izan zituen Adiskideen Elkarteak. Eta horren arabera, bere biltzar, bilera, barne-hauteskunde eta lantalde berezituak ere bai.

Adibidez, Jerónimo Grimaldik, Karlos III.aren Ministrariak, Probinzietako Koroa-ordezkariei honela deskribatu zien Adiskideen asmoa Arautegiaren onarpen-gutunean:

Los Cavalleros de las tres Provincias Bascongadas han determinado unirse en una Sociedad, bajo el nombre de los Amigos de el Pais, con el fin de cultivar las Ciencias y las Artes. Para èsto han hecho entre sí algunos Reglamèntos conviniendose en el numero de los que han de componer sus Juntas, y mètodo de trabajar los asuntos que se proponen. Como por las leyes està prohibido el celebrar èsta, ni otra especie de Juntas sin permiso de el Soberano, lo[s] autores de èste Proyecto han recurrido al Rey para que les conceda la licencia de tener sus Asambleas con formalidad; y haviendo su Magestad examinado las Reglas (...) concede S.M. à dichos caballeros la licencia de celebrár sus Juntas de el modo que mejor les parezca⁸⁰.

Azpimarratu behar da, gainera, «Azkoitiko Zalduntxo» edo euskal «Argiztatuen» Elkartearen eredia Penintsula osora hedagarria gertatu zela, Koroak ere nahi izan zuenaren bidetik⁸¹. Elkartearen helburu nagusiak bi izan ziren: Europako Zientziak eta baliabide tekniko berriak Euskal Herrian ezagutzera ematea, alde batetik, eta haiek bertako gizarte eta ekonomiaren mesedetan sozialki erabilgarri bihurtzea, bestetik. Euskal bizitzaren berriztapena zen, ba, xederik behinena. Horretarako erbestearekiko harremanak bizkortu egin ziren, eta lehenik, noski, Europako argiztatuekin. Gazteek ikasketak atzerrian ere egin zituzten —Frantziatik Suediaraino— dirulaguntzak eman zitzaizkien.

Hezkuntzari arretarik handienarekin begiratu zitzaion⁸², eta egitarauetan «letra» deituek parte on bat izan zuten, hizkuntzei ere leku egiten zitzaiei.

⁸⁰ *Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais, según el Acuerdo de sus Juntas de Vitoria. Por Abril de 1765.* San Sebastián: L.J. de Riesgo. «Carta de el Exc^{mo} Señor Marqués de Grimaldi, escrita á los Señores Caballeros Corregidores de Vizcaya, Guipuzcoa, y Diputado General de Alaba».

⁸¹ Aip. *Estatutos* (1765). Grimaldi-ren gutunean: «[Su Magestad] halla que [las Constituciones de la Sociedad] son arregladas al loable fin de su instituto, muy conformes a la maximas que su Magestad procura introducir en sus Reynos para el adelantamiento de las Ciencias, y las Artes, cuyo exemplo quisiera su Magestad, que imitaran los Cavalleros de las demàs Provincias, fomentando, como lo hace la Nobleza Bascongada, unos establecimientos tan útiles para la gloria de el Estado».

⁸² Ik., adibidez, arazoaz berrikritako ikerlan hauek: RECARTE BARRIOLA, M.T. (1990): *Ilustración vasca y renovación educativa: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Salamanca*: Universidad Pontificia. ARETA ARMENTIA, L.M. (1990): «Las ideas pedagógicas en el País Vasco bajo el reinado ilustrado de Carlos III», eta: BENITO PASCUAL, J. de (1990): «La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y las escuelas de primeras letras (1771-1793)», biak ere, in: *Las ideas pedagógicas de los Ilustrados vascos*. Vitoria-Gasteiz: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Euskara ez zen aherentzi, aipatuko ditugun zereginetan eta mugen barruan. Arautegi orokor baten barnean lehen artikulua oinarritzko burubide bezala aipatzen zuen hiru Probintzien batasuna sustatu beharra⁸³, eta bederatzi-garren artikuluan zetorren ikasgaiak taldeka nola banatuko ziren adierazten zuen araua, eta hortixe bertatik gogoan hartzen zen Euskal Herriko hizkuntza propioa ere:

IX. (...) Unos [Socios] se dedicarán à las Mathematicas, otros a la Phisica experimental, otros à la Historia Sagrada, y profana, otros à la Eloquencia, otros à la Poesia Castellana en general, yá sea componiendo sobre asuntos determinados, yá haciendo alguna version de algun celebre Poëma escrito en otro Idioma, ó yá reproduciendo las obras de algun famoso Poëta Español, que sean poco conocidas; *otros se aplicarán à pulir, y cultivar la lengua Bascongada, ò recopilar lo mas raro, y escogido que haya escrito en ella, assi en prosa, como en verso, y à perfeccionar la Poesia Bascongada (...)*⁸⁴. [Azp. nirea].

Halako erabaki batek —arauetan emanda, gainera— bere balio historiko nabaria zuen. Ondoren, ikasleentzat egindako arautegiak zioenak birretsi eta zehaztu egin zituen Elkartearen hizkuntzekiko irizpide pedagogikoak eta hezkuntz balioespena. Honela dio testuak hizkuntza bakoitzari bere lekua aitortuz:

«IX. El estudio de las lenguas ès el mas proprio para la juventud, asi por la mayor flexibilidad que se encuentra en ella para su articulacion, como por la facilidad con que se imprimen las bozes en su tierna memoria. Por esta razon, uno de los primeros encargos que se ha de darles, ès éste estudio: *Deberán empezar por el de las Nacionales, como son el Bascuence, y el Castellano*, luego se seguirán el Latín, necesario para los que han de seguir la carrera de la Iglesia, y de la Magistratura, el Francès, el Inglès, y el Italiano. Despues de esto entrarán la Geografia, la Cronología y la Historia»⁸⁵. [Azp. nirea].

Agiri hauetan ikus dezakegunez, agian lehenengo aldiz gertatu zen euskararen aldeko asmo egituratu bat Hegoaldeko Elkarte zibil batean honela erabaki eta onartzea, hain zuzen Larramendik (Loiola) eta Etxeberri Saraokoak (Azkoitia) aurreraturiko euskaltzaletasun abertzaleurrekoari jarraiki⁸⁶

⁸³ «El objeto de èsta Sociedad es el de cultivar la inclinacion, y el gusto de la Nacion Bascongada àcia las Ciencias, bellas letras, y Artes (...): y estrechar mas la union de las tres Provincias Bascongadas de Alaba, Vizcaya, y Guipuzcoa» (Aipatu *Estatutos*, 1. or.).

⁸⁴ *Estatutos*-etan, (7)-(8). or.

⁸⁵ *Reglamento para los alumnos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais*. Aurrezki Kutxaren Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundeak (SGEP) egin berri duen edizioan, 1985: II. liburukian, (9)-(10). or. Erregek, Grimaldi-ren gutunaren arabera (ik. liburukiaren azken orrialdeak), 1765eko abuztuaren 12ko datarekin onartutako arautegia.

⁸⁶ Ik. Altzibar 1985 aip.: 1122. Larramendiren obra politikoetatik bat azpimarratuko dut hemen: LARRAMENDI, M. de (1983): *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*. Donostia: SGEP. (J. I. Tellechea Idigoras-ek prestatutako ed.). Ik. ELORZA, A. (1992): «El protonacionalismo de

eta Europan agertuko ziren pre-abertzaletasunek (Bowles, 1775; Herder, 1784, etab.) euskarari buruz berehala erakutsiko zuten interesari zerbait aurrea hartuz⁸⁷.

Adiskideen Elkartek ez zuen definitu bere burua batez ere talde euskaltzale bezala, bestelako zeregin kultural zabalagoetatik baizik; ez dago, beraz, leizarragarren edo doniban-saratarren parean jartzerik: egia da, haiek ere lehenik beren xede eliztarrak izan zituztela, baina berorien barruan euskalgintzarako bildu ohi ziren, zuzenki eta espreski. Adiskideen artean, oro har, ez dirudi horrelakorik izan dugunik, Adiskideen lagunarte mugatuagoren batean bilduta eta une jakinen batean izan ezik, baina apenas dugun horren berririk.

Era bertsuan, beti gogora liteke Adiskide honek edo hark bakarka eta bere kabuz egindako euskal lanik (Munibek berak, Mogel, Ubillos eta abarrek), baina ez da hori, noski, hemen berezikiago interesatzen zaiguna. Eta bai, aldiz, halako Elkartek, lagunarte gisa, hizkuntzaren ardura ere aitortu eta hartuta izatea, hori benetan datu berria baitzen gurean, mota hartako erakunde batean behintzat⁸⁸.

Hala ere, elkarte osoaren bizitzan, hizkuntz politika ofizial onartua eta zinez burutu zena bereizi beharra dago, batzuetan, nahi izanda ere, ez baitziren Adiskide euskaltzalegoen programa eta asmoak onartuak izatera iritsi Elkartean. Eta, onartuak izan zirenetan ere (arau eta erabakietan onartuak), begiratu beharra dago gero, praktikan, bete zena, ezinak, ahuldadeak nahiz borondate eskasek asmo hobe haiei hegoak nola moztu zizkieten inoiz.

Adiskide arteko barne-bereizketa sozio-politikoak, izan zuen hor pisurik. Iritzi ezberdinek ezetik, denboren aldarretek ere hizkuntz arloan badi-rudi politika eta sentierak jarrera-aldaketak ekarri zituztela: 1776ra arte, honetan, Azpeitia-Azkoitia-Bergarako talde euskaltzaleak pisu handiagoa izan zuen Adiskideen artean, beti ere Espainiako sistema borbondarrak ametitu zien esparru-mugen barruan, noski⁸⁹.

Eskolagintzak Elkartearen egitarau kulturean izan zuen pisuagatik eta hezkuntz sistema modernoago eta eguneratu hartan hizkuntz politikari

Larramendi», in: LAKARRA, J.A. (ed.) (1992): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena, 1690-1990*. Andoain: Udala. (Obra osoak ere harekiko gure jakitate eguneratzen lagun lezake). LASA BERGARA, X. (1991): *Aita Manuel Larramendi. Bizitza eta obra*. Andoain: Udala.

⁸⁷ Aintzakotzat hartzekoak dira Basurto eta Altzibarren lanak, eta K. Larrañagak argitaratzeke duenen bat.

⁸⁸ Euskal elizbarrutietako hizkuntz politika (XVI-XVII. m.), Kalagurrikoan bezala Iruñekoan, ezingo da baztertu. Ik. INTXAUSTI, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: E. Jaurlaritza. 79-83.

⁸⁹ Goian aipatutako Larrañaga 1991 lana eta ondoko X. Altzibarren hau dira Adiskideen euskaltzaletasunaz diharduten oinarritzkoenak: ALTZIBAR, X. (1985): «Euskara Adiskideen Bartzarrean», in: (1985): *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz: EHU. 1119-1135. or. Honek jasoa da data mugarri honen hipotesia: 1121. or.

eman zekiokkeen zereginagatik⁹⁰, euskarari Adiskideek eskolan eman zioten lekua nolakoa izan zen jakiteak interes berezia du historilariarentzat. K. Larrañagak ikertu du Bergarako Mintegiaren hezkuntz egitarauan euskarari aitortu zitzaion tokia; berriz ere gauzak euskararen kontra aldatuz nola joan ziren gogoratzen digu:

Ordea [erakutsi zuten hizkuntz kontzientzia eta ardura tarteko, alegia], jakin, badakigu, bestalde, denboraren harian eta hainbat gorabehera izanik medio, [euskararen aldeko] hezkuntz egitarau hori berregokitu beharrean aurkitu zirela, eta horren ondorioz, hasiera bateko asmo eder horiek neurri handi batetan behintzat behera utzi behar izan zituztela⁹¹.

Arautegietako asmoak asmo eta «Argiztapen» borbondarrak izan zioten barne-kontraesan eta zalantzetan sasi-trabatuta, Adiskideek ez zuten sartu euskara ikasketen plangintzan, baina badakigu Adiskide «eraikileen» seme zenbaitek (Peñaflorida, Narros eta abarrenek) jendaurrean eman zituela euskarazko esataldi batzuk.

Baina, aldeko ahaleginetan, ez ziren denak hain epel eta uzkurak izan. Adiskideetako euskaltzaleenak, agertu zuten hezkuntzan egiten zen hizkuntz politikarekiko ezinegona ere. Arabatik sortu zen, gainera, ahotsik bortitzena, gutunaren edukin eta bidal-prozeduragatik haserrea piztu zuena (1772, 1775)⁹². 1772ko *Extractos* deituetan soma liteke, une batzuetan Adiskideen artean hizkuntz arazoa noraino ozpindu zen, izan ere izengoiti batekin («el Amigo Alabés» bezala aurkezten dena berau) jasotako gutunari erantzunez zera idatzi baitzen:

Al mismo tiempo han prevenido las Comisiones haber recibido una carta con fecha de 24. de Julio ultimo en Armiñón firmada *el Amigo Alabés*, y escrita en letra contrahecha, y un estilo que tiene más de sátira que de verdadera critica; y aunque por estas circunstancias debiera ser comprendida en la ley general que la Sociedad se ha impuesto de no contextar à esta especie de escritos, creen los Comisionados que acaso convendría el hacer excepción con esta carta en la parte que tiene relación con este asunto

⁹⁰ Urte gutxi lehenago hitz egina zen Aita Kardaberaz (1761) haur euskaldunei eskoletan egiten zitzaizkien hizkuntz bidegabekeriez: *Eusqueraren berri onac, eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac: Cura jaun, ta escola maisu celosoai Jesus-en Compañiaco Aita Agustin Cardaberazec esqueñitcen, ta dedicatcen dieztenac*. 1761. urtean. Iruñean Liburuiguille Antonio Castilla-ren echean. 17-18. or.

⁹¹ LARRAÑAGA 1991: 66.

⁹² Adiskide arabarren zenbait berri ezagutzeko: ARETA, L.M. (1983): «El período del racionalismo. Siglo XVIII», in: LLANOS, A. (ed.)(1983): *Alava en sus manos*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Kutxa. III, 182-183. Ez da gaizki etorriko zerak begiratzea ere: RUIZ DE LARRINAGA, J. (1924): «Samaniego, vasco y vascófilo», in: *Euskalerrriaren Alde* 14, 1924, 245-255. APRAIZ, R. (1948): «El ilustre alavés D. Eugenio de Llaguno y Amírola. Su vida, su obra, sus relaciones con la Real Academia de la Historia y con la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País», in: *BRSBAP* 5, 1948, 53-95. Ik. Tellechearen bibliografian (*Extractos* XII, 203-247) beste hainbat argitalpen, bereziki Areta, González de Echávarri, Vidal Abarca-renak.

de Escuelas públicas, por quanto la erudición y autoridades que vierte en impugnarlo pudieran preocupar à algunos, que no se hiciesen cargo de la equivocación en que se funda⁹³.

Halako sumina sortu zuen gutun hau ez zetorren, *Extractos*-ek bestelakorik iradoki nahi badute ere, ezjakin batzuen lumatik: horregatik eman zuen min, eta horregatixe erantzun nahi izan zitzaion. Nor zen eta zertaz ari zen, ba, *adiskide arabarra*? Gutunaren gurasoen artean Landazuri, Egiño, etab. zeuden, eta Euskal Herriko erdal eskolagintzari buruz mintzatzen ziren gutunean, *Extractos*-en laburpenaren arabera:

Dos puntos son los que intenta ridiculizar el Anonimo en su carta. El 1.º la idea de introducir el uso de la Gramática Castellana en Escuelas Bascongadas. Y el 2.º el pensamiento de formar Extractos para este fin. Para el primero cita las autoridades de Mayans, el Barbadiño, Rolando Marsio, el Abate Fleuri, Lami y Lancelot, para establecer que la primera gramatica que debe enseñarse à los niños es la de la lengua nativa: concluyendo de aqui, que siendolo para estas Provincias la Bascongada y no la Castellana, el intento de la Sociedad es diametralmente opuesto à la doctrina de estos Sabios, y à lo que estilaban los Griegos y Romanos⁹⁴.

Bi arrazoiketa-maila ezberdinetatik erantzun zien Elkarteak *arabarrak* emandako arrazoiei: Elkarteak ere haurraren jatorrizko hizkuntzari lotsa bera ziola eta irizpide berarekin jokatzeko zuela esanez, alde batetik, eta, ondoren, gaztelaniari Erreinu osoan zegokion lekua argitan jarritz. P.S. Abril-en autoritate (Apuntamientos)⁹⁵ eta Baltzola maisuak⁹⁶ Bergaran egina aipatuz zurtzen du Elkarteak bere burua:

⁹³ *Extractos* (1772), 97-98. or.

⁹⁴ *Extractos* (1772), 98. Ik. ALTZIBAR 1985: 1120.

⁹⁵ *Extractos* 1772: 99: «Ha tenido presentes [la Sociedad] las autoridades mas clasicas sobre esta materia, y con particularidad la del cèlebre Español Pedro Simon de Abril, cuyo dictamen debe dár la ley en la Nacion, sin necesidad de mendigar otros en las estrangeras». Ik. ondoko oharra ere.

⁹⁶ Irakaslea zen Ignacio de Balzola, eta Bergaran (1773-74), Azpeitian (1778), Elgoibarren (1779-88) eta Madrilén (1789-93) egin zuen lan. *Extractos*-etan aipatuta dago (1773, 98; 1774, 78 eta 1775, 108). «Don Ignacio Xavier de Balzola, Profesor de latinidad en el Real Colegio de Vergara, y Don Martin de Herro, Profesor igualmente de la villa de Andoain, han presentado unos rudimentos de latinidad, precedidos de un discurso dirigido à reivindicar á la Nación Española del poco decoro con que la tratan las Estrangeras en punto á literatura: y á demostrar que los métodos mas decantados de ellas, determinadamente en lo respectivo á la latinidad, no son mas que una reproduccion de los que publicaron antiguamente los célebres Españoles Pedro Simon de Abril, y Francisco Sanchez de Brozas» (*Extractos* 1973, 98). Abril-en obra, *Apuntamientos*, 1589an argitarata eman zen. Francisco Sánchez de las Brozas «el Brocense»-ren *Minerva, seu de causis linguae latinae*, hainbat bider berrargitaratua, lehenengoz 1587an inprimatu zen Salamancan. Biak ere, beraz, XVI. mendekoak ditugu (Azken autore honen historia ezagutzeko begira: SÁNCHEZ DE LAS BROZAS, F. 1976): *Minerva o De la propiedad de la lengua latina*. Madrid: Ediciones Cátedra. Eta MICHELENA, L. (1975): «El Brocense hoy», in ID. (1985): *Lengua e Historia*. Madrid: Paraninfo. 113-125.).

Asi lo verifica [la Sociedad] tambien en la idea de introducir el uso de la Gramatica Castellana en las Escuelas pùblicas tomada de esta misma preciosa obrita; *porque el primer error en el enseñar la Gramatica es no enseñar primero à los niños la Gramatica de su propia lengua en las escuelas donde les enseñan leer y escribir en ella, como se sabe que lo hacian los Latinos y Griegos en las suyas.* (b.) De aquí se infiere quan distante está la Sociedad de incurrir en el error que se le imputa. — Luego (replicará el Anonimo) se contradice asimismo en aplicar la Gramatica Castellana à las Escuelas Bascongadas. Aqui está la equivocación. 1.º Porque aunque la lengua peculiar del Pais es la Bascongada, la de la Nación es la Castellana, y consiguientemente la nativa de todos los Españoles. 2.º Porque por disposición del Gobierno no puede en las Escuelas del Pais usarse de otra lengua que de la Castellana; por lo qual todas las cartillas, libros, manuscritos y materias que se dán a los muchachos son en Castellano, prohibiendose al mismo tiempo el Bascuence en tanto grado, que hay establecido un anillo, que pasa de mano en mano entre los que se descuidan en este punto: de modo que aquel en cuyo poder se encuentra al fin de la semana, tiene su castigo determinado. 2.º Porque haciendose por estos medios familiar la inteligencia de la lengua Castellana en las Escuelas Bascongadas, y reduciendose el fin de la doctrina, de que aqui se trata, à enseñar la Gramatica en lengua que se sabe de ante mano, se logra perfectamente esto con el medio dispuesto por la Sociedad⁹⁷.

Elkartek bere baitan zuen barne-gatazka kulturala —hizkuntzarekikoa, bederen— oso zaila izango litzateke hain laburki eta hobeki eman ahal izatea, eta merezi du pasarte horrek ohar batzuk gehitzea:

- 1) Elkartearen erantzun ofiziala da hau, eta bazkide batzuen iritziaren eta idazkiaren kontra zuzendu zen.
- 2) Hala ere, ados datoz solaskide denak Euskal Herriko eskoletan euskal gramatikari lehenengo lekua eman behar zaiola esatean.
- 3) Baina Elkarteak uste du erdal gramatika ere eman beharra dagoela, «nazio» osoaren hizkuntza gaztelania zelako eta legeek halaxe eskatzen zutelako.
- 4) Baina argudio horrek, berez esan nahi zuena baino gehiago esateko balio izango dio Elkarte-erantzunari, Koroaren debekuek (erantzunean espreski aipatuek) azken buruan euskara irakats ezina bihurtzen baitzuten.
- 5) Praktikarako, Elkartearen erantzunak osorik hartzen du Monarkia-
ren hizkuntz politika (hartu, itxuraz, onartutzat emateraino), bide posible bakartzat ikusten zuelako, noski.
- 6) Kontraesan larri horretan (euskara onartzen da, baina ezingo da eman eskolan), erantzunak ez du erreparorik zigor-eraztunarena

⁹⁷ *Extractos* (1772), 100-101. or.

bera ere egiten den hautapen politikoaren aldeko argudiotzat erabil-
tzeko⁹⁸.

- 7) Bestelakorik eskatzeko arrazoirik ez falta arren, borbondarren hiz-
kuntz politikaren barnean jardutea erabaki zuenez, sistema ezarria-
ren joko-arauak onartu zituen Elkarteak⁹⁹.

Formalki, lehentasuna zein gramatikari emango zitzaion eztabaidatzen
zen bitartean, egiaz eta benetan euskal gramatikak, erdarazkoaren ondoan,
inolako lekuren bat izan zezakeen erabaki zen, beraz. Azken buruan, Mo-
narkiaren politika ofizialaren aterpera biltzen da Elkartearena ere 1770ko
hamarkadan, baina, seguraski, ez derrigorrez erreparorik gabe, bazkide as-
koren ustetan halabeharrez eta ahal zena salbatzearren baizik. Izan ere,
bortxaz edo gogoz aldatuz joan zen Elkarte-izpiritua aldarteak gorabe-
hera, eta praxi eskasak ahanzi gabe, Adiskide zenbait («eragileetakoak»
batzuk) euskararen alde ahalegindu ziren, bide horretan eskura zituzten
ahalbide mugatuak erabiliz. 1775ean Eginio arabarrak (berriz ere Arabatik)
aurkeztutako euskal apologia eta gramatika baterako lehen zirriborroa dira
kezka horien lekuko on bat¹⁰⁰.

Peñaflorida kontea euskal Literaturako autoretzat daukagu Azkoitiko bi-
leretarako egin zituen lantxoengatik eta *El Borracho burlado* antzerki elebi-
duna tartean dela¹⁰¹. Bestalde, Elkartearen enkarguzko euskal lanik ere izan
zen: J.M. Aizpitarte elgoibartarraren Hiztegia, adibidez (1773-1785), kasu
honetan Campomanesek iradokitakoari jarraikiz¹⁰².

⁹⁸ Urte batzuk lehenago, 1761ean, Kardaberazek egindako salakuntza ez zegoen urruti —ez
denboraz, eta ez lekuz, Arabaz ari baitzen— hemen eskuartean zebilen eztabaidatik (ik. *Eusque-
raren berri onac*, 17-18. or.).

⁹⁹ Urte ber-berekoa da (1772) Lorenzana Mexikoko Artzapezpikuak eskatuta Amerikako
hizkuntz politika gidatu eta arautzeko emandako Erret Dekretu ezaguna. Testuinguru orokor
hura ezagutzeko, ik. [INTXAUSTI, J.] (1978): «Ikuspegi politikoa», in: EUSKALTZAINDIA (ed.)
(1978): *Euskararen liburu zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia. 116-119. or.

¹⁰⁰ ALTZIBAR 1985: 1124-1126.

¹⁰¹ Ikus bestelakorik ere: ALTZIBAR 1985: 1126-1131.

¹⁰² Ik. ALTUNA 1985: 1107-1108. ALTZIBAR 1985: 1122-1123. Ik. GARATE, J.; RUIZ DE
ARBULLO, F. (1971): «El lexicógrafo José María de Aizpitarte, vecino de Vitoria», in: *Bole-
tín de la Institución «Sancho el Sabio»* 15, 1971, 257-267. MICHELENA, L. (1965): «El dic-
cionario vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la obra
de José María Aizpitarte «Instrucción para la formación de un diccionario de la lengua bas-
congada», in: VARI (1965): *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipuz-
coa. VI. Fascículo especial dedicado a las conmemoraciones centenarias de la fundación
de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. San Sebastián: Imprenta de la Di-
putación de Guipúzcoa. 99-126. (Aizpitarte eta Elkartearen arteko harremanen dokumenta-
zioa biltzen du). Interesgarri izan liteke gainerakoan MITXELENARENA: adibidez, *Sobre His-
toria de la Lengua Vasca*, I, 374-375, eta (1970) *Estudio sobre las fuentes del diccionario
de Azkue*. Bilbao. Orobat: ID. (1961): «Euskal-iztegigilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan»,
in: *SHLV I*, 361-372.

Adiskideen hizkuntz politikaz asko dago aztertu eta argitzeko, eta ez da oraindik iritsi arazoaz «azken» epaia emateko unea, baina X. Altzibarren sintesi honek balio lezake ikuspegi orokorren bat izateko:

Aiton- seme ilustratuok euskalzale ditugu. Ilustrazioak nobleteriaren pentsamoldea aldaerazi du, gurean euskararen onerako.— Literaturgintza hezkuntzari eta herriaren —Euskal Herriaren— aurrerakuntzari lotzen zaio, [euskarazko edo euskararen aldeko] lanotan ikus daitekeenez. Ez naiz hemen ideia estetikoek ariko. Peñafiorida euskal idazle, antzezleri, musikari etab. izateaz gain, gidari da alor honetan ere. Bokantzak —Larramendi eta J. Etxeberriek esango luketenez— aparteko garrantzia du garai honetan. Retorika Peñafioridarentzat «el Arte más maravilloso de todos» da. Besteak beste, hizkuntza bat garbitzeko, finkatzeko, aberasteko, jasotzeko bide bat izan da, eta gurean ere bai. Egia da Batzarreak gaztelera bultzatu, trebatu eta garatu zuela. Bestalde Batzarreak bileretan hitzaldi, arenga, laudorio bidez elkarri zuzentzeko ohitura berria ekarri zuen.— Euskarak ordura arte pulpitora baizik ez zuen beste inorako sarrerarik. Zalduntxo gazte hauen eskutik, jendeurreko forora ere, areago, goi mailako kulturadunen fororako ere ukan zuen sarbide.— Hitzaldiak, laudorioak eta arengak ditugu gaztelerez. Azkenak bakarrik, oraingoz behintzat, euskaraz¹⁰³.

Irakaskuntzaz edo argitara emandako lanez iritsi zaigunaz aparte, gaur egun Adiskideen hizkuntz politika orokorragoaz dakiguna, gehiago ikasi dugu haien arau, egitarau edo harremanen albisteetatik, izan zituzten ideia, jarrera eta jokabide praktikoen historiatic baino: izan zuten praxi soziolinguistikoa orokorrean historiatic beharra daukagu, aipatutako ikerlanekin kontatu eta aurrera eginez.

Ilungune anitz dugu oraindik Adiskideen hizkuntz jokabideari buruz dakizkigunetan, eta, hasteko, ez txikiak bi hauek: 1) Adiskideen Elkar-te-barneko hizkuntz joera ezberdinei buruzkoetan, eta 2) beraien hizkuntz hautapen kulturalak Koroaren hizkuntz politika orokorrarekin izandako loturetan.

Taldeari egin diogun lehen hurbilketa honen ondoren, azken begiratu bat emanez zera esan dezakegu:

- Adiskideen «taldea» zinez molde berri batekoa gertatu zen Euskal Herrian: gure aitorsemeek sortua, beste hainbat herritarri irekia, erret onarpen ofiziala zuena. Ofizialtasun horren barruan euskararen defentsa eta sustapenari ere leku egin zitzaion.
- Hastapen orokorrenetatik arau zehaztuagoetara iritsiz, euskalgintzari aitorten garbi bat egin zitzaion arautegian, gainerako hizkuntzen artean, eta teoriar ez berau, gainera, atzerriko hizkuntzen atzean utziz. Iparralde-Hegoaldeetan ez zen ordurarte horrelakorik ezagutu ez-eliztarren artean.

¹⁰³ ALTZIBAR 1985: 1132.

- Hala ere, Elkartek ez zuen izan bazkide guztiena izan zitekeen euskararen aldeko politika orokor eta iraunkor praktikorik.
- Nolanahi ere ezagutzen ditugu: a) Zenbait bazkideren beren kabuzko eta Adiskideen lagunartean burututako euskal lanak, eta b) Baita Elkarteari egindako irakaskuntzarekiko hizkuntz proposamen ausartik ere.
- Oro har, Elkartek ez zuen: a) Koroaren hizkuntz politika hertsia gaitzeko ahalmen, adore edo borondaterik izan, b) Ezta defentsa teoriko ongi landu eta propiorik ere, eta c) Irakaskuntzaren munduan (hain maitea zuena, bestalde) ez zuen lortu euskararen aldeko politika garbi bat bideratzea. Agian, une historikoak ez zuen hainbesterako ematen.
- Aurrerazale eta aintzindari zen Elkarte honek zenbait ideia berri eta ekintza osagarri izan zuen, baina hizkuntzaren prozesuari bultzada erabakiorrik eman gabe.
- Euskararen aldeko lan-egitarau orokorrik ez zuenez, emaitzak ere unean unekoak izan ziren.
- Besteak beste, euskalgintzaren asmoari antolamendu sozial egokia falta izan zitzaion, eta, aitzitik, sobran aurreko mendeetako euskaldunon utzikeriaren inertzia eta Koroaren garaiko politika ofizialaren kontrakarga.
- Euskararen aldeko lanak (bestelako gehienak bezalatsu, edo areago) bazkideen borondate onaren gain egin ziren, salbu enkarguzko lanen bat edo beste.
- Elkarte edo talde bezala egindako lanak guztiz bakanak izan ziren, eta horrelako ihardueretarako gogoan urteen buruan epelduz joan zitzaion Elkarteari.

Honelatsu deskriba liteke «talde» honen historia: ederra izan zitekeena, lorpen berriak ekarri zituen, baina beste alor sozio-kulturaletan eredutasun bera lortu ahal izan ez zuena. Eusko Pizkundea ez zen XVIII. mendearen hondarretan jaio, mende oso bat geroago baizik.

1.7. Eusko Pizkundeko taldeak (1876-1936)

Mendez mende gatozenez, heldu gara XIX.era, eta beronekin *Eusko Pizkundea* deitu izan den horretara (1876-1936). Hirurogei urtetako epealdi honek hizkuntzaren kontzientzia eta haren aldeko lanetan gogo arduratua erakutsi zuen, eta, ondorioz, euskal gizartean euskararen aldeko hainbat eta hainbat lantalde edo talde eragile sortu zen gure artean. Ditugun orrialdeetan ezinezkoa da guztien historia xehea hemen biltzea. Zilegi izan bekigu, besterik ezinean, begiratu orokor bat.

Lehenik, Pizkundaurrea ere gogoan izan beharko genuke: Urruñan Abadiak hasitako jaietatik (1853) azken karlistadaren bukaerara doana

(1876)¹⁰⁴. Hamarkada horietan euskararen aldeko jaialdi edo bilketa-lanetan talde gutxi-asko elkartuak baditugu. Abadia beraren ingurukoak kasik ez ditugu batere ezagunak, eta berehala Bonaparte Printzearen lankidegoa¹⁰⁵. Hark jai horien lanak eramateko bildu zuen jendea, betiere festa-giroan; hau, ostera, herriz herri eta lankidez lankide euskalkien ezaugarriak jasotzen ahalegindu zen, hainbat euskaltzaleren lankidetza eskatuz, sustatuz eta finantziatuz.

Euskararen aldeko taldeak mota guztietakoak izan genituen Eusko Pizkundean. Lehen aurkezpen baterako bost gisatako taldetan banatuko nituzke, nahiz eta sailkapen hauek arriskutsuak eta mugatzailegiak izan:

- 1) Hizkuntzaren alde espreski antolatutako Elkartek, eta Elkarte bezala jaiok, agian gerora taldearen bozeramailetarako aldizkariren bat ere eskuetan zutela: «Asociación Eúskara de Navarra» izan liteke adibiderik aipatuena.
- 2) Aldizkari euskaltzaleren baten inguruan bildu eta zabaldutako talde edo lankidegoak: anitz dira honelakoak, eta beharbada nabarmena Donostiako *Euskal-Erria*.
- 3) Bestelako elkarte edo talderen batean (kultural, erlijioso nahiz politikotan) babestutako talde euskaltzaleak: «Jaungoiko-Zale» lagunarte eliztarra, esate baterako.
- 4) Euskaltzale gidariren baten inguruan lan zehatzetarako elkarretaraturiko lankidego euskaltzaleak: Azkueren lankideak, adibidez.
- 5) Azkenik, talde-talde izan gabe, euskara lantzeko eta berorri buruzko ezagumenduak bildu eta hedatzeko eraturiko harreman-sareak: J. Urkixok gidaturiko RIEV-en ingurua izan liteke adibiderik egokiena.

Sailkapen horrekin batera, taldeak denbora-lekutzeko, premiazkoa geratzen da Eusko Pizkundera epekatzea ere, urtealdi oso ezberdinak izan bait zituzten hirurogei urte haiek. Hemen hiru alditan bana liteke Pizkundera:

- Lehen aldia 1876tik 1906eraino: karlistada bukatu eta berehala hasi zen Euskal Herriaz gogoeta berri bat, pentsalari eta gidari ezagunekin (Kanpion, Manterola, etab.). Azkueren hiztegi handia (1905-06) eta RIEVen jaiotza (1907) eman litezke mugatzat.
- Iraganbidezko bigarren aldi bat, 1906tik 1918rainokoa: euskalgintzaren kontzientziatze berri baten gain hizkuntzaren defentsarako

¹⁰⁴ A. Abadiari buruzko argibideak, eguneratuta: «Antoine Abbadia. XIX. mendeko euskal zientzialaria», in: *Elhuyar*. 1993, 73-74. z. (dossier). Bereziki: DAVANT, J.L. (1993): «Abbadia eta Euskara». Iparraldean Abadia aipatzen baldin badugu ere, ondoko *Eskualduna*-ren ingurukoak eta beste euskaltzaleenak ez ditugu hemen jaso (Eskualzaleen Biltzarra ezik), baina CHARRITTON, P. (1985): *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Paris: CNRS, eta INTXAUSTI, J. (1972): *Iraultzaren hildotik*. Arantzazu: Jakin, bi liburuetan ikus litezke. Ik. egin berri den Abadiari eskainitako Biltzarreko lanak (1997).

¹⁰⁵ Bonaparte Printzeari eta beraren lankideei buruzko xehetasunak azken mendeurrenaren ospakizunetan (1991) emandako albiste gaurkotuetan ikus litezke.

erakundetze-proposamen herritar eta instituzionalak landu zituzten talde euskaltzaleen garaia (*Euskal-Esnalea*, Gasteizko Kardaberaz Mintegia, etab.).

- Oñatiko Biltzarretik Gerra zibilera doan epea, 1919tik 1936raino-koa. Lehenengo ekinaldi instituzional bizi baten ondoren, Diktaturarekin ahalegin-mota hori epeldu egin zen, baina 20ko hamarkadaren hondarretan (1926-30) prestatu zen Errepublikako loraldia (1931-36).

Kronologia hori argigarri dugula, aipatutako multzo ezberdin haiei helduko diegu, talde bakoitzaren historia beste baterako utzita ere, aipugisa bederen irakurlearen aurrean aurkeztuta uzteko.

1.7.1. *Hizkuntzaren aldeko elkarteak*

Hizkuntzaren aldeko Elkarteak Iruñean izan zutela hasiera nagusia esan beharko genuke: Iturralde-Suit¹⁰⁶ eta Kanpionen eskutik antolatutako «Asociación Eúskara de Navarra»-ri eman behar zaio lehenengo lekua, kronologiagatik ezezik (1877-97), izan zuen pisu sozio-ideologikoagatik ere¹⁰⁷. Elkarte honek aldizkaria ere izan zuen: *Revista Eúskara* deitua (1878-83), baina lagunarte haren oroitzapena Kanpionen lanari lotuta iritsi izan zaigu batik-bat. Euskarari eta euskal historiari eskaini zizkien Elkarte hark bere ardura eta ahaleginak¹⁰⁸. Elkarte honen ekintza nagusietan zerak daude: zenbait euskal pertsonaiari egindako omenaldiak (Iparragirreri horien artean), Lore-Jokoen antolakuntza (1878, 1885), euskarari babes ofiziala eman zekion eskariak (1885-87: katedra eskatu eta lortuz, Erreginari euskaltzaletasuna eskertuz, erdal maisuen arazoa astinduz). Diputazioak euskararen aldeko elkarte zabal bat sortzea erabaki zuenean (1897), deliberatu zuen Elkarteak lagunartea desegitea, xedeak betetzat emanik.

Urte bertsuetan, Donostian ere lortu zen erakunde euskaltzale bat ofizialki sortzea. Agirre Miramon, Manterola eta beste euskaltzale donostiarren aurreko urteetako ahaleginen fruitua izan zen: «Consistorio de las Fiestas Florales Eúskaras» deitu zitzaion (1882). Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Aldundiaren elkar-lanean eratu eta bizi izan zen, eta beti ere hiriko euskaltzaleen lankidetzaren bizkar. Erakunde ofizial eta beregain

¹⁰⁶ ESTORNES ZUBIZARRETA, I. 1990: 56.

¹⁰⁷ BELTZA (1976): *El nacionalismo vasco. 1876-1936*. San Sebastián: Editorial Txertoa. 68-69. or. Bertan bazkide-izenak. Elkartearen Aktetako albisteak ezagutzeko: INTXAUSTI, J. (1990): «Nafarroako euskararen historiaz», in: *Jakin*, 1990, 56. z., 17.25. or. SÁNCHEZ GRANJEL, L. (1986): «*Revista Eúskara* (Una aportación a la historia vasca ochocentista)», in: *Erna-rosa*, 3, Nov. 1986, 199-222. ESTORNES ZUBIZARRETA 1990: 60-61, 132.

¹⁰⁸ Lehenengo bileran Elkarte berriaren xedeak honela mugatu ziren: «con el objeto de fundar una sociedad que velase por la conservación de la lengua é historia vasco-navarras» sortzen zela adierazi zen.

honi esker, mende hondarretatik aurrera (1896) Donostian ezezik Probintziako herrietan ere ospatu izan ziren Euskal Festak (dakigunez, Arrasate, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia eta Oñatin bederen, 1902rarte). Jai hauen inguruan hainbat talde herritar euskaltzale ibili ohi zen, antolatzailelanetan ezezik, baita ospakuntza ezberdinetan parte hartuz ere (bertsolariak, antzerkizaleak, etab.). Zoritxarrez, «mugida» honetako talde eta talde-lagunen historia egiteke dago, baina badago argitalpenik Donostia eta Gipuzkoako Euskal Festa hauen balioespena egiteko¹⁰⁹.

Bizkaian, Bilbo (1882), Markina (1883) eta Durangaldean ospatu ziren lehenengo Euskal-Jaiak (Durango 1886 eta Iurreta 1891), eta gero, Gernika (1888), Bilbo (1896), Areatza (1897) eta Bilbon (1905), berriz ere izen berearekin¹¹⁰. Bilbok 1901ean antolatu zituen bere lehenengo Lore-Jokoak, Unamunoren partaidetzarekin¹¹¹.

Hizkuntzaren aldeko ospakuntza hauek atzetik hainbat lagun eta talde, gutxi-asko formalak, zituzten. Jakina denez, Abadiaren eraginez sortu zen Hegoaldean Jai hauetarako grina (Elizondon lehenengo, 1879), euskarazko kulturaren eta Euskal Herriaren aldeko antsia kulturala nolabait ere azaltzeko.

Aurrera baino lehen esan beharra dago, urteoroko jai handi haiek beselako talde txiki berezituak ere sortzen lagundu zutela. Adibidez, Donostian eta herrietan eratutako antzerti-taldeak: P. Artolaren Donostiako «Euskaldun Fedea» izan zen horietako bat (1896)¹¹².

Urteoroko ekinaldietarako talde edo elkarteek zuten egonkortasuna baino zerbait iraunkorrago eta eraginkorragorik ere ezagutu zen Euskal Pizkundean. Aspalditxotik zegoen euskal Akademia baten asmoa eta eskea, eta Iparraldean ere, Hegoaldekoekin izandako harremanak tarteko zirela (Hendaiako bileran erabakitakoari jarraiki)¹¹³, 1902an sortu zen «Euskalzaleen Biltzarra» (1902), gure egunak arte iraun duena¹¹⁴.

Hegoaldean, berriz, leku nagusia aitortu behar zaio Gregorio Mujikaren inguruko «Euskal-Esnalea» Elkarteari (1907)¹¹⁵. Eusko Ikaskuntzak

¹⁰⁹ Liburu koadernatu batean bilduta dauden argitalpen sakabanatuak, adibidez (Donostiako Udal Liburutegian: R-3-24).

¹¹⁰ Euskal Jaiak bezala izendatutakoen zerrenda, ik.: LASÚEN, V. de (1986): *Crónica de las Fiestas Eúscaras*. Bilbao: CAV («Temas vizcaínos», 133. z.). Bizkaian ospatutakoen kronika laburra ere bertan dago.

¹¹¹ Ik. (1901): «Primeros Juegos Florales en Agosto de 1901. Programa», in: *Euskal Erria*, 1901, XLIV, 524-530.

¹¹² LABAYEN, A.M. (1965): *Teatro Eúskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco*. San Sebastián: Ed. Auñamendi. I, 40, 43, 52

¹¹³ VILLASANTE, L. 1961: 386-387.

¹¹⁴ Xarriton eta Goienetxe arduratu dira ikertzeaz.

¹¹⁵ ONAINDIA, S. (1977): *Euskal Literatura*. Bilbao: Etor. V. 1915-1940. 335-344. Elkar-teaz, aldizkari eta argitalpenez ari da. Ik. Elkar-tea eta aldizkariaren lanen albiste zehatza *Euskal Herriaren Alde*, XXI, 1931, 335-336. zenbakietan. ESTORNES ZUBIZARRETA 1990: 122, eta bereziki interesgarria: 157-159 (Gernikako Biltzarraz, 1922).

euskalgintzari eman zion bultzada¹¹⁶, ikerlanetan ezezik bere baitan sortutako lantalde euskaltzaleetan ere begiratu behar da¹¹⁷: «Euskeraren Adiskideak» (1925, Iruñea)¹¹⁸, «Baraibar» (Gasteiz, 1928) eta «Euskal Elkarte Bazpatza» (1928)¹¹⁹.

Taldeon historian Errepublikarekin eite berria hartu zuen ihardunak: Aitzolek sustatu eta gidatutako «Euskeltzaleak» (1926) edo «Eusko Pizkunde» taldeek alde herritarra eta alde intelektuala, biak zaindu nahi izan zituzten, aldizkari bozeramalea ere ahanzi gabe (*Yakintza* tartean zela)¹²⁰.

Guztion artean ez dira ahanzi behar, noski, Euskaltzaindia (1918-19), euskararen aldeko lantalde ofizial instituzionala, eta beronek eraturako ospakizun, sariketa eta bestelako lanak, euskal Akademiak iker-lana ezezik bere baitan izan baitu beti babes eta susta-lana ere.

1.7.2. Aldizkari-inguruko taldeak

Beste molde libreago batean, baina aldi aldiko egitekoari lotuta Eusko Pizkundeko euskaltzaleentzat erakarmen handiko bilguneak suertatu ziren garaiko aldizkari batzuk, gehienetan ere bertako gidariek halakoxe erakarmena zutelako noski: abilak izan ziren horretan Jose Manterola edo Gregorio Mujika, hura bere *Euskal-Erria*-rekin, eta hau, *Euskal-Esnalea*-n. Nortasun handiko zuzendari haiek, elkarteak edo lantaldeak —iraunkorrak edo unean unekoak— sortzeko gaitasun bizia erakutsi zuten.

Donostiako *Euskal-Erria* (1880-1918) izan zen, hasieran, molde hauetako aldizkaririk hedatu eta pisurik handikoena, Manterolarekin (1880-1884) eta gero Artzak (1984-1904), López Alen (1904-1910) eta Loyarteren zuzendaritzarekin (1910-1918). Aldizkariaren kroniketan ikus liteke garai-ko euskaltzalegoaren nondik norakoa. Gisa berean *Euskal-erriaren Alde* (1911-1931) aldizkariak ere odol berri eta gogo pizgarria ekarri zuen euskal lanetara, batez ere euskalgintzaren sustatzaile eta gidari suharra izan zen G. Mujikaren eskutik.

Baina Errepublika aurreko mende-laurdenean eta beti ere euskalgintzari gagozkiola *Euskal-Esnalea* (kasu honetan aldizkari azken garaia, 1908-1931)

¹¹⁶ EI/SEVren inguruetan edo barnean babestu ziren taldeen lanaren historiaz, (ik. ESTORNES ZUBIZARRETA 1990: 203, 68. oh.

¹¹⁷ ESTORNES ZUBIZARRETA, I. (1983): *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko-Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*. Donostia: Eusko-Ikaskuntza. 146-155, 173-188 eta 189-214. or.

¹¹⁸ ONAINDIA 1977: 413-414.

¹¹⁹ Direktorioaren azken urteetan (1927-1930) sortu zen belaunaldi gaztearen mugimendua euskaltzaleaz, ik. Estornés Zubizarreta 1990: 197-203.

¹²⁰ UGALDE, M. (1988): «Biografía de Aitzol», in: ARIZTIMUÑO «Aitzol», J. (1988): *Idazlan guztiak*. Donostia: Erein. 49-66. or. IZTUETA 1991: 497-499. Gogoan har dezagun «Euskeltzaleak»-en barnean «Euskal-Idazle-Batza» ere eratu zela, zenbait sariketaz ardura zedin: ib. 498. ESTORNES ZUBIZARRETA 1990: 202, 251 (Bergarako Euskeraren Eguna, 1930: Aitzol).

da hizkuntz leialtasun berri bat erakutsi zuena, euskarari berari kazetaritzan leku emanez. Neurri batean bederen Erakunde Publikoen babespean-edo zebiltzan Eusko Pizkundeko euskaltzale askoren ohitura makurra hautsi egin zuen *Euskal-Esnalea*-k: euskal kulturaz eta euskarari buruz erdaraz eta erdara hutsez ere jarduteko ohitura, alegia. Izen bereko aldizkari eta elkarteko lankidegoa talde bezala interesgarrienetakoa bezala ageri da bi hamarkadetan behintzat (1911-31).

Aldizkariak, dakigunez, ugariak izan ziren urte haietan¹²¹, eta behin baino gehiagotan talderen baten emaitza ziren. «Taldea/aldizkaria» bikote hori batera datoz ondoren aipatuko dugun kasuan.

1.7.3. *Elkarte erlijioso, kultural eta politikoetakoak*

Beren xede zuzena euskalgintza ez, baina bestelakorik izan arren, euskara ere bultzatu nahi izan zuten taldeak eta haien aldizkariak edo argitalpenak gogoratu behar ditugu, hurrengo. Honelakoak —esanda dugu— kultur, erlijio- edo politika-erakundeetan agertu ziren.

Aipatu da Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindia sortu eta gero ere, bere baitan izan zituela talde euskaltzale eratuak; baina erlijioso-etxe eta apaizgaitegietan agerturiko taldeak dira garai haietako lantalde iraunkorrenak, nahiz eta etxe-barnekoak izan gehienbat.

Talde hauek, beren lan-egitarauen aurretik, oinarri teorikoak ere landuta izan zituzten, Kardaberazren ideiak jasoz, misionologia katolikoak eta herrien eskubideen eliz doktrinak esandakoak gogoan izanik. Inoiz, gainera, espreski eman nahi izan zitzaion pentsamendu horri formulazio idatzia¹²². Pentsamendua landu beharra zegoen, hain zuzen pentsamolde aldakaitz baten kontra ekin behar zelako ere.

Jesuiten *Jesus'en Biotzaren Deya*-ren inguruan (1917)¹²³ edo kaputxi-noen *Zeruko Argia*-ren lankidetzan (1919)¹²⁴ biltzen ziren luma gazteak eta irakasle-gidari euskaltzale eliztarrak. Honelako lankidetzak eliz ikasbarnetegietan euskal mintegiak ere sortu ohi zituen, aldian aldiko lankidetzak segurtatzeaz gain gazteen trebakuntzarako ere lagungarri zirenak¹²⁵.

¹²¹ Hogeigarren mendeko lexikoa aztertzeko UZEIk Euskaltzaindiarentzat egindako katalogoan asko dira gerraurreko urte haietakoak, eta hainbat kasutan hemen aintzakotzat hartu beharrekoak, gainera. Bego ohar hau hemengo argibide mugatuaren argi-osagarri bezala.

¹²² URRUTIA'tar Gotzon (1931): *Jauparia eta egia. (Txonitza)/El sacerdote y la verdad (Oración sagrada)*. Zornotza: Jaingoiko-Zale'ren Irarkolan.

¹²³ ONAINDIA 1977: 145-152.

¹²⁴ ONAINDIA 1977: 412-413. VILLASANTE 1961: 397.

¹²⁵ Gerraondorako eginda dago honelako taldeen azterketa: [IZTUETA, P.] (1981): «Eliz ikas-tetxeetako aldizkariak», in: *Jakin*, 1981, 21. z., 49-71. or. Gerraurreko beste haiena, berriaz, moztzago begiratu da. Hala ere, autore berak, aip. lib., 490-493. or. Ohar labur bat: LEKUONA, M. (1984): «Kardaberaztarrak (Histori-begiratu labur bat)», in: *Idazlan guztiak*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión. VIII, 525-526.

Horrela jaio zen Gasteizko Seminarioan ere euskal mintegi-taldea (euskal idazle-eskola bezala), «Kardaberaz» Akademia (1924), ikaslegoaren beraren ekimenez eta irakasle euskaltzaleen laguntza eta babesarekin¹²⁶.

Apaizgaitegietan emandako pausoez eta lekuan lekuko pastoralgintza-ren premiek izan zezaketen herrietan talde-segidarik, eliz euskalgintzan. Horixe gertatu zen «Jaungoiko-Zale» elkarte bizkaitarrarekin¹²⁷: 1912tik aurrera, gerra lehertu arte, lan gaitza burutu zuen, sariketa eta euskarazko katekesi-jaiak eratuz, aldizkako (*Jaungoiko-Zale* aldizkaria; *Ekin* astekaria) eta banakako argitalpenak argitara emanez (*Egutegia*), Zirilo Artzubiaga eragile zuela¹²⁸ eta Eguzkitza, Manterola edo Ibargutxi bezalako idazleak lantaldean zituela. Eguneroko euskalgintza herritarrean ezezik hizkuntzaren kulturagintza jasoagoan ere (orri, aldizkari eta asteroko herritarretatik teologi argitalpen jantziagoetaraino iritsiz). Epe laburreko ekin-tzetatik luzaroagoko lanetaraino luzatu zuen begirada talde honek, eta me-reziko luke azterketa historiko pausatuagoa.

Eliz testuinguru bertsuan koka liteke *Argia* astekaria ere (Donostia, 1921-36)¹²⁹, baina aurreko talde/aldizkarien artean honek hartu zien aurrea gainerakoei lortutako bere hepapen zabalagatik, urteoro banatu izan zen «Egutegia»-rekin batera. Bizitza aski luzea eta aldikotasun zintzoa eta irakurlegoarekiko hurbiltasun erraza lortu zituen Zatarain, B. Garitaonandiak eta bultzatu eta gidatu zuten talde honek, beti ere eliz bizitzari her-tsiki lotuta.

Eliz eremutik at, elkarte politikoetan adibidez, euskalgintzan jardun-dako taldeak ere gogoratu behar dira hemen, zeren abertzaletasunak bere pentsamendua mamitu eta bide sozio-kulturala urratu ahala, euskararen arazoari ere heldu baitzitzaion.

Talde bakoitzak bere helburu eta ideia politikoak zabaltzeko egin ze-zakeen hizkuntz erabilpenaz gain, alderdiek zuzenean euskararen azter-ke-tarako edo haren aldeko kanpainetarako zituzten taldeak gogora litezke batez ere. Besteak beste, «Euzkeltzale-Bazkuna»-k, gerora PNV-Aberri-ren ildo hurbiletik joango zenak, aintzakotzat hartzea merezi du, Bilbon

¹²⁶ IZTUETA 1991, aip. lib., 484-488. Ez da ahantzi behar Lekuona eta Barandiaran han-go Seminarioan ari zirela lanean, mende honetako bigarren hamarkadatik aurrera. LEKUONA, M. (1984): *Idaz-lan guztiak*. Donostia: Kardaberaz Bilduma. VIII, 355-357. ONAINDIA 1977: 233.

¹²⁷ VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la Literatura Vasca*. Bilbao: Sendoa. 393-395. ONAINDIA, S. 1977: V, 154-160. «Euzko Jaupari-Bazkuna» zuen izena elkarteak, bere Araute-giak zioenez: (1914): *Kistar-Irakaskintzia Zabalkundia. Euzko Jaupari-Bazkunaren Araute-gija*. Bilbao: Imprenta de Jesús Alvarez. Eta *Asociación de Sacerdotes Vascos para el Apostola-do Popular. Reglamento* da erdal edizioaren titulua (Gobernadoreak 1912an ofizialki sinatua).

¹²⁸ Ik. AMUXALDE [AKESOLO, L.] (1966): «Zirilo Arzubiaga «Jaungoiko-Zale» ta «Ekin»-en biotz izan zana», in: *Zeruko Argia*, 1966, 179. z. 202. (Ik. AKESOLO, L. (1989): *Idazlan guz-tiak*. Larrea-Zornotza: Karmel Sorta. 1080-1082).

¹²⁹ ONAINDIA 1977: 348-349, 350-352. VILLASANTE 1961: 396-397.

abertzaleen artean euskararen alde gidatu zuen ahaleginagatik ezezik (1918ko ikas-metodoa, eta eskolak), baita bere aldizkaria ere kaleratu zuelako (*Euzkerea*, 1929-1936)¹³⁰.

1.7.4. *Ikertzaileen lantaldeak*

«Taldetasun» murriztagoa zuten lankidegoak ere izan zituen euskarak Eusko Pizkundean: zinezko talde izan gabe, gidari on baten inguruan lan bererako bakoitzak bere ekarria eginez, ihardunean zihardutenak. Honelako lanak batez ere bilketa-lanak izan dira (folklorean, dialektologian, etab.).

Aipatu da Bonaparterekin ibili zirenen taldea; baina Pizkundean beharbada R.M. Azkue izan zen lankidego euskaltzale emankorrena bildu zuena. Haren hiztegi handia da horren lekuko: inork ordurarte izan ez zuen talde zabala egokitu zuen hori burutzeko. Lankide nagusien zerrenda zehazki eman zuen Azkue obraren hitzaurrean¹³¹. Euskalari lekeitiarrak halako mira batez gogoratu zituen non eta nola egin izan zituzten lankide informatzaileen bilerak¹³².

1.7.5. *Iker-harreman sareak*

Azkenik, ikerkuntza edo ezagumenduen trukaketa eta zabalkunderako gune baten inguruan antolaturiko harreman-sareak ere gogora litezke. Euskarari buruz bakarrik ari zena ez izan arren, bere esanahi historiko berezi eta bakarragatik hona ekartzekoa da, Julio Urkixok *RIEV* aldizkariaren inguruan sortutako mundu irekia, nazioartekoa gainera.

Hogeita hamar urtetako bizialdia izan zuen argitalpenak, 1907tik 1936ra. Lankidegoa ez zen, honelako kasu gehienetan bezala, benetako taldea, baina hainbaten artean harreman hertsiagoak sortu ziren, eta maiz euskalaritzaren barruan elkarren arteko hurbiltasunak estutzeko balio izan zuen. Aldizkaritik eta beronen idazkaritzarako joan-etorriak, edo Zuzendaritzaren inguruan egindako bilera eta proiektuek ez dute oraindik historilarien arreta onik izan¹³³.

Gizarte-testuinguru bertsutik, eta euskararen ezagumendu hobe bultzatzeko gogoz jaiotako jakitunen talde formalagorik ere izan da gure ar-

¹³⁰ ONAINDIA 1977: 152-154. IZTUETA 1991: 496.

¹³¹ AZKUE, R.M. (1905-1906): *Diccionario Vasco-Español-Francés/Dictionnaire Basque-Espagnol-Français*. Bilbao/Paris: Autor/P.Geuthner. I, X-XIII. or.

¹³² «Al efecto [de recoger el mayor número de sinónimos y variantes] promoví reuniones dominicales de honrados artesanos, bizkainos y guipuzkoanos en su mayoría, con algún nabarro que otro [...] en la casa núm. 10 de la calle de Jardines, en Bilbao, donde casi a un tiempo se fundaron una escuela para niños, un teatrillo que llamamos Euskaldun Biltokia, la revista *Euzkaltzale*, y esta rústica academia, que duró dos años y medio». AZKUE, aip. lib., I, X. or.

¹³³ Hala ere, ikus *RIEV* aldizkarian (XXVIII, 407-473: 1976, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca) V. García de Diego, J.R. de Urquijo, M. Lekuona, J. Bilbao-ren lanak.

tean, geroko Euskaltzaindiari aurea hartuz eta agian gerora «akademia» bat sortzen lagun zezakeela pentsatuta eratu zen lagunarterik: *Cercle d'Etudes Euskariennes* taldeaz ari naiz (Baiona, 1911-1914). Jakitun gutxi batzuek eratu zuten (Gavel, Urkixo, etab.), beren arteko jakite-trukaketak egiteko eta denen ikerlanak ere sustatzeko. Bizitza laburra izan zuen, behala iritsi baitzen Gerra Handia¹³⁴.

2. OHAR-LAN HONEN MUGAK

Hasieratik esan dugunez, ez dugu izan hona talde guztiak ekartzeko asmorik. Eta, aipatu ditugunetan, bi molde ezberdinetara egin dugu: Aro Modernokoak patxada hobean aurkeztu dira, nahiz eta kasu hauetan ere aurkezpena beti motz geratu. XIX-XX. mendeetakoak ugariago aipatu ditugu, baina ez dugu modurik izan beraien azterketan harago iristeko: hor ere ez ditugu begiratu batean interesgarrienen aipuak baizik eman. Izango al da hurrengo batean zerbait borobilagorik egiteko egokierarik. Beude, oraingo, horrela.

2.1. Aro Modernokoaz

Hiru talde ukitu ditugu arreta handiagoz: leizarragatarrak, Axularren ingurukoa, Euskal Herriaren Adiskideak. Hala ere, hirurok beharko dute azter-lan zainduagorik.

Leizarraga kasu paradigmaticoa da garaiko Europan. Horregatik, ez zen batere orijinala gertatu testuinguru europarrean, baina, segun noiz, orijinaltasuna ez da izaten derrigorrez lanaren baliorok premiazkoena. Hori gorabehera, gure historian euskal prosaren sortzaile handia bera izan genuen. Talde honen esangura ulertzeko historiografia protestante modernoaren baitandik behatuz ere lan egin beharko dela gogoratu nahiko nuke, berriz ere. Oraingo, hemen, iradokita bakarrik geratu da hori.

Axularren lanak zorte hobea izan du ikertzaileen artean azken 30 urteetan, lehenagoko Urkixorenak ahanzi gabe. Ez da harrizkoa: hobeki ezagutu izan da gure artean Kontrarreforma, Erreforma protestantea baino. Eta gero, Axularren idazle-maisugoa gureganaino iritsi zaigu tradizio baten harian, Leizarragarena ez bezala. Hala ere, taldea zinez ezagutzeko Axularren talde-lagunak dira ezagutu beharko genituzkeenak. Haietako hainbati buruz, ordea, deus gutxi dakigu oraindik ere.

Euskal Herriaren Adiskideen historia ezagutzeari, egia esan, beste horienari baino lehentasun premiatsuagoa iritziko nioke nik. Hauei buruz

¹³⁴ CHARRITTON, P. 1985: 111-112, 248-253. GAVEL, H. (1912. 1914): «Cercles d'Etudes Euskariennes», in: *RIEV*, 1912, 533-537; eta 1914, VIII, 161-168.

galderak bata bestearen atzetik datoz: Adiskideen hizkuntz ideia, jarrera, proiektu eta jokabideak aztertzeak ez ote luke lagunduko Euskal Herriko hizkuntzarekiko geroko burubide orokorrak argitzen? Arlo honetan, eza-gutu ote zituzten haiek atzerriko ideiak? Zertan aurreratu ote ziren, zertan atzeratuta geratu?¹³⁵ Nola ezkondu zuten beren euskaltzaletasuna borbon-darren hizkuntz politikarekin?

2.2. Eusko Pizkundera

Eusko Pizkundeko taldeena bestelako kasua da: Pizkundera gure orainaldiaren bezpera baizik ez da, eta bizitza labur nahiz luzeko talde aski izan dugu. Hauen banakako azterketari heltzeko hobespen batzuk nahitaezkoak dira. Guztien artean lehena, Gregorio Mujikaren «Euskal-Esnalea» delakoan nago, eta beronen inguruko argibideak dira bilatu behar direnak.

Berri-iturriak bilatuz, Pizkundeko aldizkariak albistegi aberatsak dira, Estornes Lasak bere *Literatura Vasca*-n erakutsi digunez («Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco», Donostia: Auñamendi); baina sintesi landuago baten beharrean gaude, eta, nolana ere, gure asmoetarako, «talde» kontzeptuaren ikuspidetik egin beharreko lana eginkizun geratzen da. Ostera, artxiboek zer eman dezaketen ikusteko dago oraindik. Zoritxarrez, garai honetarako artxiboak ez daude beti eskura eta erabilgarri, publikoak ordenatu gabe ditugulako, edo pribatuak, familiartekoen etxeetan galdurik daudelako.

Dena den, Eusko Pizkundeko taldeek oso egingarri den historigaia eskaintzen diote ikertzaileari, dagoeneko tartean dugun denbora-aldea lagungarri izan litekeelako ere.

Bukatzeko, aipa dezadan frankismoaren epea. Sintesi bide-erakusle batzuk¹³⁶ eta gehiago ere¹³⁷ baditugu, eta banan banako lanei heldu behar-ko zaie lehen bait lehen¹³⁸, lehen bait lehen diot, zeren oraindik bizirik ditugun lekukoekin kontatu behar-ko bailitzateke, beroriengandik «Ahozko Historiaren» emaitzak ere jaso nahi baldin badira bederen.

¹³⁵ Hasi dira, jada, Elkarte horren euskaltzaletasunaz lanak argitara ematen, eta, azken orduan jakin dudanez, K. Larrañagak badu eskuartean hezkuntzan euskarari eman zioten lekuaz ikerlan bat bidean.

¹³⁶ IZTUETA, P. (1985): «Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1937-1984)», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*. Donostia: Jakin. 392-403.

¹³⁷ IZTUETA 1991: 787-1020. Eta azken aldian han-hemen alfabetatzeaz argitara emanda-koak.

¹³⁸ *Jakin* aldizkariak sarritan eskaini ditu euskal kultur taldeei buruzko lan monografikoak. Lehen pauso bezala balio lezakete.

LOS MOVIMIENTOS SOCIALES EN FAVOR DEL CATALAN

Isidor MARI

1. DESARROLLO HISTORICO

1.1. Delimitación conceptual y cronológica

Nuestro propósito al repasar la historia, la actualidad y el desarrollo previsible de los movimientos en favor de la lengua no es puramente especulativo, sino que nos guía el interés de identificar las razones que han propiciado la aportación de esos movimientos al proceso de normalización lingüística y que pueden potenciar esta función en el futuro. Es con esta finalidad, por tanto, que tratamos de identificar los rasgos comunes o distintivos entre los tres casos considerados —el vasco, el quebequés y el catalán—, y ello en tres planos complementarios:

Primeramente, en los aspectos discursivos o ideológicos que presentan los movimientos analizados: su interpretación de la realidad sociolingüística y su contribución a la formación de una consciencia lingüística favorable entre la sociedad.

En segundo lugar, en los aspectos sociológicos y organizativos: el contexto en que surgen los movimientos, su desarrollo y forma de organización, sus relaciones con el entorno.

Y en tercero y último lugar, su función en el cambio sociolingüístico en relación con la política institucional —partidos políticos, entidades locales, gobierno(s) autónomo(s)—.

Para aproximarnos a este objetivo, parece indispensable empezar por delimitar el concepto de «movimiento social por la lengua», ya que bajo este término pueden comprenderse formas muy diversas de acción social colectiva, según que su interpretación tienda a hacerse en sentido amplio o restrictivo:

- a) Según la posición de estos movimientos respecto al grado de transformación sociolingüística que se proponen conseguir, podríamos

incluir entre ellos, en sentido amplio, a cualquier movimiento que se proponga en alguna medida activar el uso de la lengua, sin cuestionar su estatus (movimientos de animación o dinamización lingüística). Sin embargo, estrictamente sólo nos ocuparíamos de los movimientos que se proponen cambios sustanciales en el sistema sociolingüístico o más aún cambios **de** sistema sociolingüístico, alterando el estatus de la lengua.

- b) Según su alcance o el grado de participación que consiguen, si bien en sentido amplio podríamos tratar de todos los grupos de interés o de acción con un mínimo de presencia pública (activismo o militatismo lingüístico), en rigor sólo deberíamos atender a los movimientos de masas con una incidencia territorialmente generalizada y una participación social altamente diversificada.
- c) Si nos fijamos en su estabilidad o continuidad —grado de persistencia—, podríamos incluir en sentido amplio a muchas iniciativas coyunturales que no perduraron, pero estrictamente habría que ceñirse a los movimientos que mantienen su incidencia al menos en un período de varios años.
- d) En cuanto a la relación de estos movimientos con la lengua, viéndolos ampliamente podríamos observar a todos aquellos que influyen incluso implícita e indirectamente en la revitalización de la lengua; sin embargo, en sentido estricto sólo analizaríamos a los que tienen como objetivo explícito —único o primordial— la recuperación de la lengua.
- e) Por su posición histórica, podemos considerar todos los movimientos culturales y políticos o ideológicos cuya relación con la lengua ha sido especialmente significativa, incluso anteriores al siglo XIX; no obstante, hay que entender que estrictamente sólo en la Edad Contemporánea se producen movimientos sociales propiamente dichos, y que a partir de los años 60 adquieren un carácter diferenciado, como formas postmaterialistas de contestación social, lo cual permite identificarlos como «nuevos» movimientos sociales (Ronald Inglehart).
- f) Con respecto a su relación con el sistema político, estos movimientos pueden comprender en sentido amplio a las formas de contestación cívica promovidas incluso desde los grupos o partidos políticos —como las que durante el franquismo o la transición hicieron un papel sustitutivo ante la ausencia de cauces de participación democrática—. Sin embargo, estrictamente sólo habría que centrarse en los movimientos desvinculados o contrapuestos al sistema político (partidos, instituciones) o que pretenden trascender las formas de participación política propias de partidos e instituciones.

Ante todas estas disyuntivas, no nos queda otro remedio que flexibilizar nuestro punto de vista, atendiendo sobre todo a los movimientos defi-

nidos en sentido estricto —especialmente a medida que nos acerquemos al presente—, pero sin olvidar las demás formas de acción afines ampliamente consideradas, puesto que constituyen su contexto en el contínuum social en que se inscriben.

Por lo que respecta a nuestra delimitación cronológica, dividiremos la aproximación en tres etapas: la primera, sobre los antecedentes y los primeros movimientos en favor del catalán, hasta llegar en los años 60 a los llamados «nuevos» movimientos sociales; la segunda se centrará precisamente en estos nuevos movimientos y su evolución hasta la actualidad, y la tercera planteará su evolución previsible en los próximos años.

1.2. Algunos antecedentes ideológicos

Aunque los movimientos sociales propiamente dichos no surgen, como decíamos, hasta el siglo XIX, como respuesta a los efectos no deseados del proceso de modernización —en el cual se incluyen los de industrialización, organización del estado-nación como mercado, centralización, urbanización, etc.—, hay que subrayar que no surgen entonces de la nada: los primeros movimientos en favor del catalán hallan ante sí una determinada *interpretación* o *representación* ideológica dominante acerca del carácter plurilingüe —plurinacional y pluricultural— del área hispánica —o Reino de España—, así como encuentran también ya relativamente elaborada una cierta contestación o réplica crítica frente a estas construcciones cognitivas «establecidas».

La herencia que la Edad Moderna transfiere a la Contemporánea se había configurado en torno a la conocida afirmación de Antonio de Nebrija en su gramática de 1492: la lengua, compañera del imperio. Hay que especificar que al hablar entonces de «imperio» Nebrija no podía referirse aún al imperio de los Austria, sino a cualquier poder político soberano. Lo aclaran las frases siguientes de su prólogo, menos divulgadas: *«después que Vuestra Alteza metiesse debaxo de su iugo muchos pueblos bárbaros i naciones de peregrinas lenguas, i con el vencimiento aquellos ternían necesidad de recibir las leies quel vencedor pone al vencido i con ellas nuestra lengua»*. Según ello, los pueblos políticamente subordinados necesitan (!) que se les imponga la lengua del vencedor junto con sus leyes.

Los intelectuales renacentistas elaboran este principio en múltiples textos. Luca Marineo, que ya había afirmado en su *Laudibus Hispaniae* (1497) la preeminencia de la lengua de Castilla sobre todas las demás de Hispania, hablará en *De rebus Hispaniae* (1530) del vasco como «antigua» lengua de España, sustituida gradualmente como el árabe de los moriscos por *la lengua que agora se usa en España* (el castellano, obvia-

mente). La contraposición entre lenguas pretéritas y lengua de futuro se completa con la justificación ideal de su superioridad: «*la lengua española haze ventaja a todas las otras en elegancia y copia de vocablos (...) y la causa de ser muy más perfeta que todas las otras lenguas vulgares es por la conformidad que tiene con la latina*». Juan de Valdés completaría el esquema de supremacía en su *Diálogo de la lengua*, con la pretensión sin duda exagerada de que el castellano era de uso general y socialmente distinguido: «*entre la gente noble tanto bien se habla en el resto de Spaña*».

Estas tesis son en parte adoptadas por algún intelectual del área catalana. Así, Pere A. Beuter asume en su *Primera parte de la Corónica general de España y especialmente del reyno de Valencia* (1546) que «*como el tiempo ha traydo la diversidad de tantos reynos como en España se partieron por la vida de los moros en un general y solo señorío —excepto el Reyno de Portugal— parece que el mesmo tiempo requiere que sea en todos una común lengua, como solía en la monarquía primera de España, en tiempo de godos*». Se trata de una temprana y clara formulación del mito —aún actual— de la lengua «común».

Paralelamente, aparecen sin embargo las réplicas a la abusiva identificación de España con Castilla y al desplazamiento de las demás lenguas por la castellana, temprana y significativamente rebautizada como «española». Son buena muestra de ello los *Col·loquis de la insigne ciutat de Tortosa* (1557) de Cristòfor Despuig (v. Solervicens).

La confrontación entre esas dos concepciones puede rastrearse a lo largo de los siglos XVII y XVIII. La polémica de los años 1635-36 sobre la predicación en catalán o en castellano (v. Modest Prats) presenta la contraposición entre los partidarios de «*la lengua del Imperio*», «*la común del Reyno, que generalmente entienden todos*», el «*idioma común de la Monarquía de España*», frente a quienes niegan la condición de «común» de una lengua que la mayoría no entiende y afirman que la lengua generalmente conocida en Cataluña no es otra que el catalán.

La *Representación* que elevan al Rey los diputados de la antigua Corona de Aragón con motivo de las Cortes de 1760 (v. Moreu Rey) es otra defensa de la concepción pluralista de la monarquía, precisamente cuando se afianzaba el Despotismo Ilustrado, para el cual la modernización implicaba la supresión de las identidades distintas de la oficial castellana. Muchos de los movimientos de protesta popular durante esta época pueden ser interpretados como resistencia ante la anulación de sus respectivas tradiciones culturales, y no como suele hacerse, como reacciones contra el progreso. Había otras ideas de progreso, como la que había planteado a fines del XVII Narcís Feliu de la Peña desde posiciones neoforalistas.

Así, aunque Antoni de Capmany se refería al catalán como lengua *muerta hoy para la república de las Letras* y la Sociedad Económica Ma-

lloquina de Amigos del País se proponía elaborar un diccionario y una gramática para erradicar la lengua catalana de Mallorca, no faltaron otros ilustrados más sensibles al devenir de las ideas: Jovellanos proponía en su *Memoria sobre la educación pública* (1802) la adopción del catalán de Mallorca como lengua de enseñanza y vehículo de cultura.

Esta nueva actitud es la que siguió por razones oportunistas —pero no por ello menos efectivas— el mariscal Augereau durante la ocupación napoleónica de Cataluña, en que el catalán alcanzó un uso cooficial con el francés, el Diario de Barcelona apareció en versión bilingüe y se proyectó una traducción catalana de la Convención (con la cual tendría al parecer relación la gramática catalana que Ballot publicó por aquellos años). La utilidad del catalán en la propaganda política aparece con toda claridad también entonces en el primer periódico en lengua catalana, el «Diari de Buja» (1812-13) con el que el trinitario mallorquín Miquel Ferrer arremetía furibundo contra los constitucionalistas.

Al llegar el breve paréntesis constitucional de 1820-23, la identificación de la lengua catalana con las corrientes de liberalismo se pondrá de manifiesto tanto en Cataluña —donde Oetham Itram (Mateo Martí?) propugna la traducción al catalán de la Constitución y los textos oficiales para general entendimiento y Josep Robrenyo alcanza una enorme popularidad con su teatro de propaganda liberal en catalán—, como en Valencia —donde Manuel Civera difunde también las ideas liberales por medio de popularísimos *col·loquis*— o en Mallorca —en la cual Joan Josep Amengual publica en catalán su «Semmanari Constitucional, Polític y Mercantil», en cuyas páginas aparecerá la primera traducción catalana de la Constitución de 1812— (v. Antoni-Lluc Ferrer).

Esta será la situación de partida al iniciarse el movimiento de la *Renaixença*, el primero que podemos reseñar como consciente y plenamente orientado a la revitalización de la lengua catalana.

1.3. La *Renaixença* y la reivindicación política de la lengua

Al inicio del siglo XIX confluyen en la sociedad catalana la irrupción de nuevas corrientes de pensamiento —políticas: liberalismo, constitucionalismo, democracia; culturales: romanticismo, popularismo, medievalismo— con la formación de nuevos colectivos sociales —la burguesía industrial, opuesta a la nobleza terrateniente; las clases obreras, contrapuestas a los propietarios— y con el intento de implantar un Estado-nación unitario de corte liberal en España, que origina el replanteamiento de las relaciones entre naciones y lenguas en este nuevo estado en vías de fundación.

La *Renaixença* —restauración romántica de la literatura culta en catalán— coincidirá en los años 1860 con las corrientes populares tradiciona-

les —teatro, periodismo, corales— próximas al republicanismo y se politizará gradualmente a causa de la marginación de los dirigentes catalanes por parte de la política estatal —fricciones entre los industrialistas partidarios del proteccionismo y los agraristas pseudolibrecambistas— hasta dar lugar en los años 1880 al catalanismo político.

Aunque suele datarse el inicio de la Renaixença con la publicación de la oda *La Pàtria* (1833) de Bonaventura Carles Aribau, la primera declaración programática explícita del propósito de restablecer una literatura en catalán independiente de la castellana se encuentra en el prólogo de Joaquim Rubió i Ors a sus poesías de *Lo Gayter del Llobregat* (1841): Cataluña puede aspirar todavía a la independencia, no a la política (...), pero sí a la literaria (v. reproducción facsímil del texto en el Anexo I).

Poco después (1843) «Lo Verdader Català» propugnaba el restablecimiento de la prensa en lengua catalana y las agrupaciones corales promovidas desde 1845 por Josep Anselm Clavé empezaban a cantar en catalán (1854).

La verdadera plataforma de la Renaixença fueron, sin embargo los Juegos Florales, restaurados en 1859 a propuesta tanto de conservadores —Antoni de Bofarull— como de liberales —Víctor Balaguer—. Contaron con apoyo institucional —el Ayuntamiento de Barcelona, y ocasionalmente la misma Monarquía—; mostraron la viabilidad del catalán como lengua para los actos públicos más solemnes; difundieron gracias a una amplia red de correspondientes la evolución de la literatura renaciente a todo el territorio lingüístico —e incluso internacionalmente—; establecieron un eficaz liderazgo de opinión por medio de los discursos de los mantenedores —personalidades de todos los ámbitos de la sociedad y no meramente literarias—; promovieron las ediciones y la prensa culta en catalán; expandieron el propósito de codificación ortográfica y gramatical de la lengua; partiendo de la poesía, ampliaron sus convocatorias a otros géneros narrativos y de ensayo, fomentando así la consolidación de la prosa catalana; etc.

Sin embargo, este proceso de recuperación de la literatura culta en catalán podría haber quedado reducida a círculos minoritarios si no hubiera confluído en los años 1860 con la literatura popular. La intensa tradición teatral en catalán adquirió en aquellos años una audiencia creciente con el teatro satírico de *Serafí Pitarra* —pseudónimo de Frederic Soler—, Conrad Roure y Eduard Vidal i Valenciano. Estos mismos escritores colaboran con Josep Roca en las primeras publicaciones periódicas satíricas de éxito: «Un Tros de Paper» (1865-66), «La Campana de Gràcia» (1870-1934) y «L'Esquella de la Torratxa» (1874-1938). En 1865, como signo de la confluencia entre la literatura culta y la popular, Vidal y Valenciano estrenan con éxito su primer drama en catalán, *Tal faràs, tal trobaràs*, seguido poco después por el primer éxito teatral no jocoso de Frederic Soler, *Les joies de la Roser*.

Tal vez haya que señalar a la intervención de la torpeza política oficial con respecto a la lengua y la literatura catalanas como uno de los factores que contribuyeron a la politización de la *Renaixença*. Aparte de la exclusión total del catalán al establecer la enseñanza pública obligatoria (ley Moyano, de 1857), el Gobierno prohibió en 1867 —seguramente preocupado por el florecimiento del teatro catalán— las representaciones exclusivamente en lengua catalana. La respuesta —incluir en cada obra a un personaje grotesco de lengua castellana— fue el justo castigo a la estúpida medida. No deja de sorprendernos, sin embargo, que el primer republicanismo federalista no incorporase la lengua entre sus reivindicaciones.

Los primeros signos de politización del movimiento cultural de la *Renaixença* surgen al parecer en torno a la sociedad *La Jove Catalunya* (1870) y a su revista «La Gramalla», en donde se agruparon escritores como Francesc Ubach i Vinyeta, Francesc Matheu, Francesc Pelagi Briz o Angel Guimerà. Fueron al parecer los primeros que intuyeron el potencial simbólico de la canción tradicional *Els Segadors*, origen del actual himno nacional de Cataluña. Les encontraremos más adelante en la *Unió Catalanista* (1891) promotora de las *Bases de Manresa* (1892).

Hizkuntz politika bat ez da bakarrik gauzatzen. Maizenik beren dialektoa hizkuntza idatzi bilakatzen ikusten duten pertsona —kazetari, idazle, irakasle, artista, olerkari, kantugile...—, edo talde baten nahikundean dauka abiapundua eta, noizean behin, hiztegi-gile edo gramatikazale baten baitan. Hizkuntzaren eraikitzaileek dute hizkuntza bat eraikuntza bihurtzen (*Ausbau*): hemen, Heinz Kloss gure lagun zenaren ahapaldia errepikatzen dugu (1983). Egoera horretan, pertsona zenbait gogoratzen ditugu: frantsesari dagokionez, Du Bellay, François I.a eta Richelieu kardenala; italiarari dagokionez, Dante (*De vulgare eloquentia*) eta Cosimi dukea; hungarierari dagokionez, Kossuth eta Petöfi.

Bestalde, hor ditugu hizkuntzaren eta honen aldakien egoerari buruzko azterketak, jendetzaren jokamoldeaz eraman inkestak eta aldakuntza menturazkoen ebaluaketa. Seinala ditzagun adibidez, Grégoire apezak Frantses Iraultza garaiko frantsesari buruz egin inkestak (De Certeau 1975), Laurendeau-Dunton Batzordeak Kanadan burutuak, Gendron Batzordeak

Quebecen kudeatuak, Bastarache Batzordeak Akadian gauzatuak eta berrikitan Euskal Herrian eta Katalunian egin direnak.

Inkesta horien emaitzak ikertuta, eta maiz lehenago ere, erakunde batzuek sortzen dira hizkuntzaren hobekuntzaz, antolakuntzaz edo garbitasunaz arduratzeko: *Accademia della Crusca* (1582) italierentzat, *Académie Française* (1635) frantsesarentzat, Suediako *Académie Royale* (1786) suedierentzat, *Academia de la lengua vasca* (Euskaltzaindia) euskararentzat (1918), *Office de la langue française* (1974) Quebecentzat, *Fryske Akademy* frasierentzat, adibide zenbait jartzearren. Norvegiera bezalako hizkuntza zenbaitek, bi erakunde badauzkate, lurraldean jauntasuna nahi luketen hizkuntza mota ezberdin bakoitzarentzat bana (Haugen 1987). Beste hizkuntza batzuek, arabierak adibidez, oraino gehiago badituzte.

Erakunde guzti horiek, izenak antzekoak dituzten arren —«akademia», «bulego», «batzorde», «zuzendaritza», «kontseilu»—, ez dituzte eginkizun berdinak. Bakoitzaren ekintzak bere ahalekin araberakoak dira eta batez ere egoerari egokitzeko finkatuak izan diren helburu ezberdinen araberakoak.

Batzuen xedek oso orokorrak dira: hala nola lurralde berean hizkuntza baten bi aldakiren presentziak sortu arazoei konponbide baten aurkitzea, hizkuntzen arteko lehiaketari dagozkion arazoak, hizkuntz separatismoa, hizkuntza bat bestearen mailara iristea. Beste erakunde zenbaitek berriz, alderdi ekonomikoa dute jomugatzat: lan merkatuaren kudeantza, Estatu-Nazio barneko lan-indarraren mugimendu askatasuna. Beste batzuen helburua, aldakuntza politiko nahiz ekonomikoen ondorioak diren arazo sozialei, hizkuntzaren bidez, aterabide baten aurkitzea da. Azkenik egitasmo bereziak daukate: nortasun kulturalaren edo etnikoaren baloratzea, ondare kulturalaren babestea, ideologia bateratzaile batzuek zokoratu hizkuntzen askapena, ama-hizkuntzan ikasteko eskubide unibertsalaren aldarrikapena, hots, hizkuntzaren estatutuari nahiz baliapideari doazkion arlo guztiak.

Erakunde linguistikoek ordea, helburu teknikoagoak, zehatzagoak daukate: alfabetatzeari, ortografiari, hizkuntzaren garbitasunari, hitzen estandarizatzeari, hiztegiaren gaurkotzeari, idazkeraren erreformari edo berdin hizkuntzaren zabalkundeari, hizkuntz baliapideen ugaritzeari bai eta erabiltzen dituen eremuei hala nola afitxei, beraz, hizkuntza zeinu sistema gisa hunki lezakeen edozein arlori kasu emanez.

BIGARREN MINTZALDIA

HIZKUNTZ POLITIKEN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

Hizkuntz politika bat herritarren baitan lortu nahi duenaren arabera eta dituen osagaiak aztertuz ebalua daiteke.

1. Helburuen azterketa

Helburu bakoitzarentzat, sistemaren maila bakoitzean duen agerpidearen deskribapen zehatza, programak eta metodoak erdietsi beharko ditugu. Hori egin eta, helburu bakoitza bere zergatiaren, egingarritasunaren, emankortasunaren, erabilgarritasunaren, eta menturazko aplikapenaren arabera aztertzeko gai izanen gara.

1.1. *Zergatia*

Lege aldetik eta administratiboki, helburu hori zer heinetaraino garai hartako hizkuntz politikaren aplikapena da? Politika horren barnean, helburuak ba ote du lehentasunik?

1.2. *Egingarritasuna*

Helburu hori, zer heinetaraino gauza liteke? Hizkuntz ikasketen kasuan, badakigu helburu batzuk bete ezinak direla, beste zenbait aldiz ez direla osoki kunplitzen, azken zenbait, berriz, hizkuntz politika kudeatu nahi lukeen jendetzaren zati batek baizik ez dituela lortuko.

1.3. *Emankortasuna*

Helburu hori lortzeko, zein da denbora eta diru aldetik unitate bakoitzaren gosta-saria? Ba al da loturarik prezio horren eta hizkuntz lehentasunetan helburu horrek daukan tokiaren artean?

1.4. *Erabilgarritasuna*

Zer lotura dago helburu zehatz horren eta helburu horren lortzeko gizakiak menperatu beharko dituen hizkuntz ezagutza eta automatismoen artean? Helburua funtzionala al da?

1.5. *Menturazko aplikapena*

Irakaskuntza arloan, helburua nahiko argia ote da bakoitzaren hizkuntz joera indibidualean bilatzen diren aldakuntzen bideratzeko?

Helburuen azterketan, aterabide xingleegiak baztertu behar dira. Adibidez, helburu bat justifikatua gerta liteke baina haren gauzatzea ezinezkoa, egingarria gerta liteke baina ez emankorra, erabilgarria izan liteke baina aplikatzen ezina. Arazoa helburuen mugatzean eta osagaien araberako hauen azterketan datza.

2. Osagaien azterketa

Edozein helburu finkaturik ere, edozein hizkuntz politikak batzuetan izen ezberdinak dituzten oinarritzko lau osagai badauzka. Terminologia nolana izanik ere, hizkuntz politika batek honako urratsak badaramatza: hautaketa, kodifikazioa, apailakuntza, finkapena. Horrek badu baldintza bat: hizkuntza baten aldaki bat hautatu beharko da gero bere ingurumenean finkatzeko. Bi funtzio horiek boterearen esku daude. Beraz, politika gai bat dugu. Politika horren gauzatzeko, hautatua izan den aldakia kodifikatu behar da eta haren finkapenaren oinarri ziren betekizunentzat gai izan beharko du. Beraz, kodifikazioa eta apailatzea, gramatika, hiztegi, hitz bitxien hiztegi eta antzeko argitalpenei esker egingen dira. Hemen, hizkuntzalaritza sailean gaude, edo, xuxenago erraiteko, hizkuntz antolakuntza sailean. Quebecen, bi eginkizun mota horiek bi erakunde ezberdinen esku daude: frantsesaren «*Conseil*» eta «*Office*» deituena hain xuxen.

Zergatik horrelako banakuntza zereginetan? Hizkuntza baten hautua eta gizartean finkatzea duen estatutuaren, funtzioen eta bai harekin egin daitekeenaren —lan egin, ikasi, gauza publikoak kudeatu...—, araberakoak dira. Ondorioz, horrek politikari dagozkion lege eta araudiak eskatzen ditu (Mackey 1979a).

Aitzitik, fonemen kodifikazioa, alfabetoen sortzea, ortografiaren estandarizatzea, lexiko eta gramatiken finkatzea bai eta terminologia sistemen osatzea, hizkuntzaren gaurkotzea eta estiloaren erreberritzea hizkuntzalaritzari dagozkio. Alde batetik, baditugu, beraz, hautaketa eta finkapena eta, bestetik, kodifikazioa eta apailatzea. Bizkitartean, lau urrats hauen artean lotura bat bada —etengabeko harat-honata—: hizkuntz politikaren dinamika. Quebecen adibidez, afitxa munduko izendegiaren finkatzearen emaitza legeak baieztatu lezake. Hitzak Quebecoko *Gazette officielle* agerkarian daude.

Har ditzagun bata bestearen ondotik hizkuntz politikaren eta hizkuntz antolaketaren osagaiak, hizkuntzalaritzari horrek sortzen dizkion arazo eta desfizioez jabetzeko asmoz.

2.1. Hautaketa

Lehenik, hizkuntzaren aldakiaren hautaketa. Badira arazoak eta aterabideak edo, hobeki erraiteko, hautaketa erizpideak. Lehenik arazoak aipa ditzagun. Printzipioz baieztatzen badugu norberak baduela bere

ama-hizkuntzan oinarrizko ikasketen egiteko eskubidea, nola baitiote Eskubide eta Libertateen Arautegiak, Unescoren politikak eta India bezalako anitz herriren konstituzioak, politika horren gauzatzeak arazo gotorra sortzen digu. Ama-hizkuntzaren eskubidea unibertsala denaz gain, printzipio hori mundu mailan azertu behar da. Zenbat ama-hizkuntza ba ote da munduan? Ongi zehaztuak eta, doi bat bederen deskribituak diren hizkuntzetan —dialektoak barne—, xoilki mugatuz, berri-kienik egina izan den ikerketaren arabera —Grimes jaunak (1988) burutuaren arabera—, hots, 6.170 hizkuntza badira, dialektoak gehitu gabe. Hizkuntza horietarik bakoitza lurra banatzen duten 168 Estatu burujabeetarik batean nahiz gehiagotan agertzen da. Hizkuntzalariek onesten dituzten hizkuntza horietarik arras guti dituzte Estatuak «hizkuntza»-tzat hartzen.

Behin hizkuntza hautatuz geroz, zein estatutu emanen zaion —hizkuntza ofizial, hizkuntza nazional, tokiko hizkuntza, hizkuntza erabilia ala hizkuntza ararteko estatutua—, erabaki ondoren, kodifikatua, apailatua eta finkatua izanen den dialekto nahiz hizkuntza aldakia aukeratu behar da. Hizkuntza zenbaitek badituzte elkar ulertzea ezinezkoa zaien eskualde dialektoak, dozenaka. Hindierak, Indiako hizkuntza ofizialak, ehun bat baditu; ingelesak, berriz, bakar batzuk ditu. Hizkuntza baten dialekto kopuruak ez du hiztunen kopuruarekin zerikusirik. Inuktitut hizkerak, hiztun kopurua Bilboko biztanlegoarena baino apalagoa duelarik, bost eskualde zabaletan barreiatuak diren hogeit bat dialekto baditu. Dialekto kopurua ez da eremuaren zabaltasunaren araberakoa. Kontinentearen zati nagusian hedatua bada ere, ingeles-amerikarrak frasierak baino dialekto gutiago du, honen aldakien eremua herri ttipi baten (Holanda) xokoño bat delarik. Are ohargarriagoa zaigu, bost dialekto dituen romanchearen kasua. Horietarik zeinek beharko luke hizkuntz estatutua? Badakigu euskararen zazpi euskalkiek zer nekeziak sortu dituzten, 1919. urtez geroz Akademiak hizkuntzaren batzeko nolako entseguak egin dituen eta, idatzirako euskara batuaren alorrean, euskalki nagusien artean zer tirabirak badiren oraino.

Hizkuntza estatutuaren gai izateko, egun, hizkuntza batek idatzia izan behar du. Dialekto edo aldaki bat aukeratuta, nola idatziko den erabaki behar da. Lehenik, zein alfabeto edo sinbolo sistema erabili? Dialektoak bere idatz sistema baldin badu, hobetu beharko ote da? Bi sistema edo gehiago baldin badira, zein hautatu? Hizkuntza zenbaitek idatz sistema ezberdinak erabiltzen dituzte; hala nola santali hizkuntzak, Indian, bost idazkera badituen (erromatar alfabetoa, sanskritoaren aldaki bat den devanagaria, hizkuntza honentzat bereziki asmatu olcement sistema, bai eta eskualde sistemak diren oriya eta bengalera). Hargatik, sistema erabiliena ez da baitezpada munduko hizkuntza guztientzat egokiena. Hizkuntza amerindiarrei dagokienez, adibidez, badakigu idazketa silabikoaren sistemak, James Evan jaunak iragan mendean Manitoban asmatuak laguntza

ederra ekarri diela kri eta inuktitut bezalako hizkuntzei bai eta Kanadako beste hizkuntza batzuei ere.

Idatz sistema aukeratuta, hautaketa arazoak ez dira urrundik ere agortuak. Orain, alfabeto eta sistema silabiko guztientzat, sinboloaren eta soinuaren arteko auzia trenkatu behar da eta horrek, ortografia finkatu aitzin, hizkuntz fonetikaren alde zurretikako azterketa funtzionala eskatzen du. Baina hizkuntza batzuek jadanik beren ortografia badute. Fonologiari egokitzeko, aldakuntzak ekarri beharko ote dira? Eta zer egin hizkuntza bategi, bretoierak eta frasierak bezala, bi ortografia badituenean, edo berdin romanche-ak eta indiar hizkuntza zenbaitek bezala hiru badituelarik? Zein hauta? Eta pentsa arazo are larriagoak topatuko ditugula gramatikari edo lexikoari lotzerakoan. Guzti horrekin, batzuetan erabakitzea ezinezkoa dela frogatu nahi izan dugu. Nabarmentzen hasiak ziren hizkuntza batzuen kasuan, auzi horrek hizkuntz antolaketa osoa eten duen paralisi bat sortu du. Inoiz erabiliko ez den hizkuntza baten apailatzea alferrikako lana da (Mackey 1979b).

Bakan erabili dira barne kriterioak hala nola hizkuntza idatzi autonomo (ez fonologiko) baten apailatzea, txinerarekin gertatzen den bezala edo, funtzionala izan dadin, dialekto guztietarik aski gertu bil legokeen erdibideko aldaki baten eratzea (Mackey 1971,1972,1976).

Iragan aspaldian, hizkuntza bilakatu den aldakiaren aukera gehien bat kanpo erizpide batzuetan finkatuz egina izan da: erizpide politiko, ekonomiko, sozial nahiz kulturalak erabiliz hain xuxen. Maiz, hautuan nagusitu den erizpidea xoilki hauxe izan da: azkarrenak azken hitza bere. Korteko hizkera, hizkera noblea bihurtzen da. Testu sakratuetako hizkera adibidez, Koranean nahiz Bibliaren tokiko itzulpenetan erabilia, hizkuntza ofiziala bihurtu da. Boterearen kokaguneetan —Parisen, Florenzan, Londresen nahiz Erroman— erabili dialektoa hizkuntza nazionala bilakatu da (Mackey 1987b). Hizkuntza nazional hori noizean behin aldatu egiten da, gizarteko maila ezberdinek boterea bereganatu arau (Balibar 1985).

Gizarte sendo batek badu egunetik biharrera edo hiztun batetik bestera ezin aldatuzkoa den hizkuntza idatzi egonkor baten beharra, bere legediaren meneko daukan lurralde osoan egitura berdina ukanen duen hizkuntza batena hain xuxen.

Beraz, Erromatar erreinuaren sendotasunak latin klasikoaren normalkuntza ukan du ondoriotzat; ondotik, haren zatiketak latin arruntaren formen ugaritzea erraztu du, bai eta latinaren garapena ere, hau tokian tokiko hizkuntza bilakatzuz. Hizkuntza erromano horiek, txandaka, egitura politiko azkar eta sendo batzuen esparruan normalizazioa ezagutu dute, hala nola Danteren Florenzan (*De Vulgari Eloquentia*), Du Bellay-ren Parisen (*Défense et illustration de la langue française*), eta Valdés-en Toledon (*Dialogo de la lengua*). Erljio zabalkundearen hizkuntza horien erabilpenak eta inprimategiaren eskakizunek estandarizatze arazoak agertu dituzte. Ez

da beraz harritzekoa akademia ofizialak edo kasik ofizialak sortu badira, ereduari buruzko erabakien hartzeko.

Italian, *Accademia della Crusca* 1582. urtean agertu zen. Ingalaterran, Edmund Bolton jaunak bazeukan «*corporation royale*» iduriko ingeles akademia baten sortzeko asmoa eta, «*King James his Academe*» (sic) izenpean, Jakes erregek 1617. urtean onetsi zuen, nahiz heriotze goiztiarrak xedearen gauzatzeari trabak ekarri zizkion. Hamar bat urte berantago, 1635. urtean, Richelieuk *Académie française* sortu zuen, Estatu-nazioen kopurua beti emendatzen ari zen Europa guztiko eredu bilakatuz. Estatu bakoitzak bere akademia nahi zuen hizkuntza nazionalaren normalizatzeko. Honela, 1786. urtean, Gustave III erregek suediar akademia sortu zuen, Europako beste hainbat herritan gertatuari jarraikiz.

Europatik kanpo ere, hizkuntza nazionalaren estandarizatzeko arazoak beren hizkuntza ofizialaren finkatzen ari diren munduko nazio guztiak huntitzen ditu. 1923. urtean, Mustapha Kemal Atatürk-en Turkia askatuak, mendebaldeari buruzko bere politikaren esparruan, erromatar alfabetoan oinarritu ortografia sistema normalizatu baten hautua egin zuen, lurralde musulman hau Ekialde Hurbilari lotzen zuen idazketa arabiarra tupustean baztertuz. Bigarren Mundu Gerra ostean, aldi berean aske eta modernoak izan nahi zuten Estatu ugariaren sortzeak hizkuntza nazionalaren aukeratzeko eta estandarizatzeko arazoa pausatu zuen.

Azkenik, erabiliena izan den erizpidea hauxe izan da: hizkuntza nazionalak alde aurretik ongi kodifikatu, estandarizatu eta idazle belaunaldiak landu hizkuntza bat izan behar du, hots, hizkuntza literario bat, bestela kodifikatzea eta apailatzea egiteke baitira.

2.2. Kodifikazioa

Horiek horrela, kodifikazioak ez du, berez, eredu bat osatzen. Badira hizkuntzalaritza deskriptiboan oinarritu tesinak, ehunka. Ez du hizkuntzalariek hizkuntza egiten, nahiz hizkuntz politikari egiten dion ekarpen nagusienetarik bat eredu integratu baten sortzea den. Beraz, eredu hori zer nolakoa den gogoeta egin dezakegu.

Eredua hizkuntzari berari josia ote da? Hizkuntza guztiek berena badutea? Eredurik gabeko hizkuntzarik ba al da?

Eredu edo norma bat, erabilpenaren kodifikazio bat ote da bakarrik ala erabilpena abiapundutat hartuz osatu zerbait? Kodifikatze bat badelarik, eredua kodifikazioa baino lehenago bazena ala kodifikatzeak du sortu? Horra edozein hizkuntz politikaren ekoizpenari dagozkion galdera zenbait.

Galdera hauetarik bakoitzaren erantzuna hizkuntzari buruz dugun ikuspegiaren araberakoa da. Hizkuntza gehien bat ahozko ondare bat ote da ala idatzizko tradizio bat? Badakigu gizakiaren historian, idazketa askak hizkuntza nahiko berria dela. Azken milakada hauetan baizik ez da agertu eta

doi-doia azken mendeotan da orotara hedatu. Gainera, munduko jendetza-
ren laurdenaz goiti alfabetatu gabea da oraino. Idazketa aitzin, eredurik ba
ote zen? Izan bada, ahozko tradizioan bilatu beharrean gaude. Dena den,
tradizio horretarik ezin dugu baztertu ezen, ahozko tradizioan, hizkuntza,
testua, kultura eta eredia orobat dira.

Norma nola definitu? Normala denaren ideiatik abiatu behar ote da,
hemen, Espainian, ohi den bezala, «*normalizacion*» hitzaren bidez adiera-
ziz hizkuntzaren funtzio sozial guztietako erabilpena? Ala eredia hartu
behar dugu ibilmoldearen lege gisa? Lege antzeko norma hori antolaketa
litzatekeen ereduaren aurka doa.

Hizkuntza estandarraren ideiak berriz, definizio unibertsalaren ildotik,
eskualde batena ez den eta sozialki neutroa den hizkuntza aldaki baten
kontzeptua badarama.

Horrela bada, sistema metrikoa ez da eredu bat, baizik eta estandarra,
pisu eta neurrien estandarizatzeari lotua. Herritar guztientzat hizkuntza
idatzi estandar baten finkatzea, betidanik Estatu-nazioen ideial politikoan
izan da. Denen hizkuntza bilakatzen da eta ez da nehorrena.

Zergatik ezinezkoa ote da eredia orokorki hartzea? Norma kultur zer
bat da. Kultura bakoitzak berea finkatzen du. Alabaina, kultur instituzioen
arabera aldatzen den nozio sozial eta politiko bat da, guztien buruan. Ez du
kulturak bakarrik eredia finkatzen baizik eta ereduaren garrantzia, izatea
bera, gizartean duen eginkizuna bai eta gizarteak, normari huts egitean,
azaltzen duen tolerantzia maila ere. Kultura zenbait besteak baino jasan-
korragoak dira. Ahozko hizkuntza asko erabiltzen duten gizarte kriolotue-
tan, tolerantzia hainbatekoa da non garrantzizkoena hizkuntzen erabiltzea
baita, hauek edozein eratarahahasirik ere, eta elkar aditzea. Gauza da uler-
tu behar zaituztela eta, horren lortzeko, baliapidez alda zaitezke egun bate-
tik bestera berdin (Mackey 1980).

Kulturak eredia finkatzen duenaz gain, ez da harritzekoa tradizio la-
tineko herriek eta tradizio anglo-saxoniarreko herriek ereduaz ikuspegi
ezberdinak badituzte. Frantzian, eredia ez dena, dialekto bat da edo
frantses herrikoia edo, askoz okerrago, «*patois*» deitu mintzadarra. Inga-
laterran, formala ez dena normala da. Frantzian, nazio osorako eskola
programak ministeritzak ditu erabakitzen, Parisen. Ingalaterran, eskual-
deetako eskola batzordeek dituzte erabakiak hartzen, eskualdeka, ez eta
gubernu zentralak. Botere baterakoi batek jarri norma baten eta elkar
aditze mutu baten emaitza den normaren artean zer aldea den, hor nabari
da. Horregatik, bada frantsesaren normalkuntzarako akademia bat baina
ingelesaren normalkuntzarakorik ez, nahiz ingeles akademiaren asmoa
frantses akademiarena baino lehenagokoa zen (Mackey 1977). Ingeles
hiztegi handien egile guztiak, erabilpenaren askatasuna berretsiz, akade-
miaren izatearen aurka agertu dira. Bizkitartean, ingeles idatzia orotan
berdina dela ikus dezakegu. Austriatik, Ingalaterratik, Amerikatik, In-
diatik nahiz Afrika ingelesdunetik iritsitako prentsa artikulu baten for-

mak bakan salatzen du nondik datorren. Beraz, norma bat bada. Baina zertarik abiatua?

Konkistaz geroztik, Ingalaterran integrazioa imitazioaren bidez egin da beti. Miresten dena imitatzen da. Ingalaterran, gutiengo ospetsu batek du, maiz, bidea erakusten. Talde handiagoa osatzen duten imitatzailerik gero jarraitzen dute. Imitatzeko on dena, belaunaldi batetik bestera eta batzuetan urtetik urtera ere, etengabe aldatuz doalako, ingelesaren ereduak beti garatzen da, batez ere lexiko mailan. Erabilpen mota bat nagusitzen zaio, beti, besteari: horrek dio ematen ingeles modernoari bere dinamismo ezaugarria. Erabilpen horren azterketa bektorial bat egin liteke, hizkuntzaren beste osagai batzuentzat egin den bezala (Mackey 1974).

Nola esplika normaren aurrean frantsesak eta ingelesak duten joera ezberdin hori? Gizarte batean, ereduak daukan funtzioa herriaren historiari loturik dago eta, zehazkiago, aldika nagusitu diren kulturen historiari. Ereduak ingelesean eta frantsesean ez badu eragin bera, Frantziak eta Ingalaterrak historia ezberdina ukan dutelako da, bi herriek Europako ideien historia berdina jasan badute ere.

Erromak Frantzia —historia guztian izan den erresuma zentralizatuenerarik bat—, kolonizatu zuen. Ereduaren ideia erromatar antolakuntzaren ondorio bat da. Normaren ideia hori Karlomagnoen erreinuan hedatu da, honek, bera erdi analfabetoa izanik ere, bere eskumutilen bitartez, latin idatzia hizkuntza ofizial gisa zabaldu baitzuen. Strasbourg hiriko Hitzarmenaren testu «ofiziala» bera latinez da. Latinak bere tokia frantsesari utzi behar izan diolarik, normaren mamia aldatu da baina ez normari edo normaren eginkizunari buruzko ideia. Gorteko hizkera eredu bihurtu da (Balibar 1985).

Ingalaterrak aldiz, VIII. mendez geroz bazuen anglo-saxoniarraren eredu idatzia; honek ez zuen ordea Frantzian ereduak daukan eginkizun bera. Normandoen okupazioak hiru mendez eten du tradizio hori, hizkuntz funtzioen banakuntzaren egoera triglosikoan botere zentralaren frantsesak eta Elizaren latinak gaina hartzen zutelarik. Hizkuntzaren berpiztea, egun duen forman, urria eta luzea izan da; botere zentraletik kanpo egin da.

Europa osoan, hizkuntza idatziak du ereduaren menperatu. Garai modernoan arte, maiz idatzi ohi ziren testuak publikoki erraiteko edo hitzaldietan oroimenaren laguntzeko, hala nola Platonen elkarriketak, Virgiloren olerkiak, Ciceronen mintzaldiak, Elizaren predikuak, elizkizunetako otoitzak. Berpizkunde arotik lekora hasten dira testu idazten irakurketa pertsonalerako. Lehen idazleek Dante, Chaucer, Rabelais eta besteek, laguntza ederra ekarri dute tokian tokiko hizkuntzak finkatzerakoan. Baina Erreformak du, Luther eta Calvino-ri esker, gizarte berrian testu idatzia jaun eta jabe jarri. Testuak honela eragina duenez, ale guztiak berdinak izan beharko dira. Hizkuntza estandarizatuan idatzi testu normalizatuak behar izan dira. Historiako gertakari asmaezin batek, inpri-

mategiaren asmakuntzak du European eredu horren finkapena segurtatu. Eta geroztik, testuaren larderia emendatuz doa. Herritarraren bizia menperatzera eta haren jokamoldea —hizkuntz jokamoldea eta eguneroko hizkera barne—, zuzentzera iritsi da. Hizkuntza idatzi normalizatu baten eskukotasuna edozein erakunde modernoren ezaugarri bihurtu da. Liburua gizartearen miraila bilakatu da. Gizonak besteak menperatzeko asmatu tresna bat den norma idatziaren lehentasunaz ez du orain nehork dudarik. Halatan non beti gogorarazi behar baitzaigu idatzia hizkuntzaren mozkin bat dela, maiz sistema ezberdin bat, eta, batzuetan, sistema autonomo bat.

Hizkuntzen egituraketari dagokionez, kasik beti hizkuntza idatzia hartua izan da abiapundutzat. Arrazoi guzti horiengatik, frantsesa bezalako hizkuntza modernoak aho hizkuntzaren garapenaren mozkinak diren baino gehiago sorkuntzak direla ikus genezake. Hizkuntza horiek instituzio eraikitza har genitzake (alemanez, *Ausbausprache*) bakoitzak bere estatutu kodifikatu berezia, bere historia berezia, unibertsoaren irudikatze molde berezia eta adierazpen sistema berezia duelarik (Baliar 1985: 413).

2.3. *Finkapena*

Hizkuntz eraikuntzaren nekeziak nolanhikoak izanik ere, hizkuntza baten osatzea hizkuntzaren finkaraztea baino errazagoa da. Beharrik, ez dituzte komunzki pertsona berek bi ekintzak burutzen nahiz emaitzak aztergarriak izan. Azken finean, hizkuntza baten eta terminologia baten finkapena jarrera eta motibakuntza aldakuntza batzuen ondorioa den jokabide aldakuntza baten menpe da (Daoust 1988).

Hizkuntz politikaren finkapena herritarrekin harremanak badituzten erakunde nahiz pertsona zehatzen bitartez egiten da. Estatu politika bat denez, estatuko erakundeei —zerbitzu publikoei, hots—, iristen zaie lehenik: eskolei, agiri ofizialei, eta, batzuetan, komunikabideei. Erakunde pribatu eta gizaki banakoaren baitan bortxazko finkapena alferrikakoa da. Luzarorat egiten den promozio bat hobe da, gizakiaren joera sakonenaren aldatzea da helburua: unibertsoaz duen kontzeptualizazioarena.

Eredu baten finkaraztea bezalako abenturari lotu aitzin, hizkuntz politikaren mugak ulertu behar dira. Ez du gobernu batek, nolanhiko botere ekonomiko, militar, nahiz demografikoa ukanik ere agindu baten bidez hizkuntzaren botere kulturalaren aldatzeko gaitasunik (Mackey 1976b). Baldintza hoberenetan ere, helburuak zehatzak izanik ere, hizkuntz politika baten finkatzea, urraska egiten da (Mackey 1982a).

Kultur egitura pisu eta handietan ere nekezago bideratuko da. Gobernuak osoki bere kontrolpean daukan sailean ere, lege eta araudi juridikoen alorrean alegia, aldakuntza ez da egunetik biharrera gauzatzen. Frantzia latinaren ordezkatzeko frantsesak mendeak pasa ditu. Beraz, pentsa zer

nolako arazoak sortzen diren Heren Munduan frantsesa edo ingelesa tokiko hizkuntza bat ordezkatzeko erabakitzen denean (Coray 1987). Indiako konstituzio berriak, 1949. urtean, 10 urteko epea eman zuen hizkuntza ofizial den hindierak ingelesa eginkizun guztietan ordezkatzeko. Egun, 44 urteren buruan, ingelesak hori dirau federakuntzako mailako barne komunikaziorako hizkuntza bakarra delarik, hindierari eta beren desagerketarengatik edo hedapenarengatik aztergai izan diren beste eskualde hizkuntzei promozio ederra egin bazaie ere (Mackey 1985; Mc Cornell eta Gendron 1988).

Badira noski ordenaren eta normaren errespetua modan den garai klasikoak. Baina badira bestalde, ohiturak eta joera sozialak lasatzen diren garaiak, normari egokitzeko izpiritua ez baitute batere sustatzen.

Eredu baten finkatzea, beraz, erabiltzaileek finkatu beharreko elementuaren parean duten jokamoldeari lotua da. Bestalde, giro sozialarekin ere badu zerikusirik. Adibidez, Quebecen emazte tituluen finkapen morfo-sintaktikoak arrakasta ederra bildu du, bereizkeria jadanik modaz kanpokoa zen giro batean. Hitz batzuk laster onetsiak dira, beste batzuk aldiz, batere ez. Jacques Maurais jaunak (1987b) —1984.ekoaren ildo beretik—, egin ikerketaren arabera, Quebecen, 1977. urtez geroz, afitxentzat proposatu hamar hitzetarik (afitxetan hitz normalizatuaren erabiltzea baitezpadakoa bihurtu da) hiruk baizik ez dute finkapen arrakastatsua ukan: «*régie*», «*tagagie*» eta «*dépanneur*» dira.

Zein dateke orduan helburu horien lortzeko aterabiderik egokiena? Aterabide onena ez datorkigu printzipioetarik. Bilaketaren eta hurbilketa jarraiki bidez lortu esperimendazioen emaitza dugu. Ikerketa horri legegileek uko egin diote, beren buruen gaitzerako batzuetan, eta hori ez bakarrik Kanadan baizik eta beren hizkuntza legezatu beharrean dauden erresuma gehienetan. Munduko herri gehienek behar dituzte legeak asmatu, irakaskuntzan hizkuntza arrotzek duten lekuaren finkatzeko baizik ez bada ere. Bizkitartean, herri elebidunetan eta nazio anitzdunetan da hizkuntz legea premiatsua, ezen nazio iraupena horretan baitatza batzuetan. Legegileek askotan ez dute ulertu lege eta araudiek populu baten hizkuntz joera nola itxuralda dezaketen; ulermen ezaren ondorio izan dira maiz denok ezagutzen ditugun desastre eta hondamendiak.

Hizkuntza batek, harekin harremanetan izan litezkeen beste hizkuntzen gainean botere erlatibo bat badu. Hori botere berezkoan dauden ezberdintasunen arabera izan liteke, bai eta ezberdintasun linguistikoen arabera, nahiz herrien arteko hurbiltasunaren arabera. Diferentzia horiek, guk hizkuntza baten erakarpina deitu genezakeena osatzen dute.

Hizkuntzen eitezko erakarpin hori, hizkuntz planifikazioan guztiz premiatsua da. Horren zenbatzea hizkuntz politika baten gauzatzeko finkatu sistemaren neurketan sartzen da. Hizkuntz egoerak eta hauen aldaki ugariak kontuan hartzen ez dituen hizkuntz politikak porrot egingen du.

Legegileak ez dira aski ohartzen botere baten aurrean eta, maiz, indar baten parean daudela; eta ez dute ikusten hizkuntza guztiek ez dituztela besteak molde berean erakartzen. Alta, berezko indar horrek, eta egoera zehatz bateko erakarpen horrek hizkuntz planifikazio guztien abiapundu izan behar lukete, ezen horiek erakuts liezagukete alde batetik, zer den posible, zer egin litekeen eta zer ez, eta, bestalde, hizkuntz egoera bat eta menturaz hizkuntza baten iraupena bera, zer heinetaraino lege bidez alda daitekeen.

Nahi duenak asma lezake; ahal duenak finka lezake. Ororen buru, hizkuntz politika, edozein politikaren antzera, posiblearen arte bat dugu.

HIRUGARREN MINTZALDIA**EUSKAL HERRIA, KATALUNIA, QUEBEC: HIZKUNTZ POLITIKA KONPARATUAK ALDAKETA SOZIALEN ESPARRU HISTORIKOAN**

Bi erresumaren hizkuntz politiken konparaketari ekin aitzin, beharrezkoa zaigu jakitea ea zinez hizkuntz politikak konparatzen ditugun. Ez dugu gauza finkatutzat jo behar erresuma bakoitzak bere hizkuntz politika baduela, ez eta ere bat baduten erresumek, helburu nazionalen kontestuan, adierazpen edo garrantzia bera ematen diotela.

Ingelèsa, Ingalaterrari eta Estatu Batuei lotu ohi badiegu ere, ez da hargatik hizkuntza hau bi erresumen hizkuntza ofiziala. Konstituzioan aintzakotzat ekartzeko ahalegin guztiei beti uko egin zaie. Bestalde, ez da ingeles hizkuntzaren Akademiarik. Baten sortzeko entsegu ugarien artean, ez da bakar bat seriozki hartua izan. Hori hizkuntza legezatzazaren balio kulturala, bai eta honen garrantzia erlatiboa ere kultura batetik bestera aldatzen direlako gertatzen da.

Hemen konparatu nahi genituzkeen hiru hizkuntz politikak sortu dituzten erresumek hizkuntzaren legezatzzea beren balore nazionalen maila gorenean emana dute. Euskal Herriak, Kataluniak eta Quebecak badute hiruek beste ezaugarri berezirik. Hiruak Estatu burujabe baten barnean erdi-autonomoak dira, bertan beren hizkuntzak minorizatuak direlarik. Bakoitzaren muga linguistikoa, nazioko eta nazioarteko muga politikoen gorabeheran dago; euskararen eta katalanaren kasuan, muga frantsesa da, Quebecierentzat berriz, muga amerikarra eta Ontariokoa.

Bestela adierazteko, hiru herri hauetako hizkuntz politikak ez du bertako jendetza osoa hunkitzen. Hauen eragina ordea, ingurumenaren arabera aldatzen da. Alabaina, hizkuntz politika horien ahalmenen artean diferentziak badira.

Lehenik, hizkuntz ondareak ez dira berdinak. Katalanarekin edo frantsesarekin konparatuz, euskararen historiatasuna alor berezi batean kokatzen da. Europako hizkuntza guztietan zaharrena dugu —latinaren arbaso den indoeuroparraren aitzinekoa eta, beraz, frantsesaren eta katalanaren arbaso den latinaren aurrekoa. Katalana III. mendean gertatu Erromatarren kolonizatze baten ondorioa dugu; quebeciera berriz, XVII. mendean izan den frantses kolonizatze baten ondorioa.

Hiru hizkuntza hauen erroak ezberdinak badira, badira ere lurraldekotasunari dagozkion aldeak. Kataluniaren zabalera Quebecena baino askoz ttipiagoa bada, sei milioi katalan hiztunen kopurua jendetzarekin erka daiteke. Euskal Herriaren eremua eta milioi erdiko jendetza ez daitezke konpara. Dena den, estatistika ofizial hauek ez dute hizkuntz politikaren azterketak beharko lukeen zehaztasuna. Ez dakigu aintzinako hizkuntza elebakar gisa ala elebidun gisa erabiltzen duten. Elebakarrak arbasoen hizkuntza baitezpada erabili behar duelarik, elebidunak bere hizkuntz joera bi hizkuntzen artean bana lezake, molde arras desorekatuan. Katalanen eta

euskaldunen gehiengo handia elebiduna baldin bada, Quebecen gutiengoa da elebiduna: ama-hizkuntza frantsesa dutenen laurdena, guti gora behera. Ezberdintasun hori honela esplika daiteke: Quebeciar frantsesdunak beti frantsesez eskolatuak izan dira, ingelesa ikasgai bat besterik ez zelarik. Beraz, Quebecen, frantsesdun elebakar asko bada. Euskal Herria poztuko bide da bere lurreen lau milioi euskaldun elebakar ukanen dituelarik. Baina, ordea, Quebecen kontinente bera zatikatzen duten 250 bat milioi ingelesdunen mehatxua senditzen da. Gutiengotasuna, beraz, guztiz erlatibo da.

Dena den, aipagai ditugun hiru hizkuntzak, mugaz handiko auzoen parean, bai eta beren erresuman ere, hizkuntza gutituak dira. Euskarak eta katalanak bi hizkuntza internazional handiri buru egiten diete, alde batetik gaztelerari eta, bestetik, unibertsaltasunaz gozatu arren, Kanadan eta Amerikan hizkuntz gutitua den frantsesari.

Muga linguistikoak bakan dira muga politikoek berdinak. Hizkuntz zenbait bizpahiru erresumetan mintzatuak dira eta segur badirela kontinente guztietan erabiliak diren hizkuntzak. Behin baliatuz gerotik, anitz erresumetan erabilia izateak hizkuntza nazional baten antolaketan garrantzia badu.

Egia da, Europaren eskalan, euskaldun eta katalan populuak mugaz kanpo goraipe daitezkeela. Amerika ingelesdunaren eskalan ordea, pisuan kontrajartzeko zenbaki konparagarria behar da. Quebecetik, parte bederen, aterabide bat aurkitu du frankofoniaren mobilizapenari esker eta biziaren arlo guztiak —kultura, ekonomia, hizkuntza eta hezkuntza—, hunkitzen dituzten honen erakunde guztiei esker.

Nahiz euskarak eta katalanak luraren eskalako antolaketa supranazional hori ezin duten baliatu, Europa berriko eskualdeetako hizkuntza europarren batzea lagungarri zaie. Karia horretara, hizkuntza nazional eta europarraren estatutuak hizkuntza horiek larderia fidagarriaz janzten ahalko ditu, hiztunen kopurua edozein izanik ere.

Bizkitartean, hizkuntza baten hiztunak jomugatzat dauzkan hizkuntz politika baten aplikapenerako, herri horren tendentzia demografikoen ulermen egokia lagungarria da hiztunen kopurua emendatzen ala murrizten den jakiteko.

Naturak ekarri gaitzak —gosetea eta izurritea—, eta gizonak eraginak —genozidioa eta esklabutasuna—, bazter utzita, tokiko hizkuntza baten hiztun kopurua murrizten duten elementuak besteak beste hauek dira: emigrazioa, exodoa, exogamia eta sortzerik eza.

Multzoka atzerriratzeak hizkuntzetan duen eragina dokumentu askok aipatzen dute. Badakigu, adibidez, irlandarak ez duela sekulan lortu XIX. mendeko zenbait hamarkadatan Ameriketara lekutu ziren bere hiztunen herenaren atzera biltzea. Gertakari berak hemen aipagai ditugun hiru hizkuntzetarik bakoitza jo du, baina ez hain neurri dramatikoan. Kolonizatze eta komertzio konpainiak XVI. mendean sortu zirenetik, kostal-

deko katalandunen kopurua apaldu zela, itsas hedakundea areagotu eta erresumako beste eskualde batzuetarik etorri populuek ordezkatu zituztela gauza seinatuak dira.

Quebecen, mende oso batez, etengabeko emigrazioaren lekukoak izan gara; Ontarioko oihanetarantz, Iparraldeko meategietarantz, Mendebaldeko lautadei ala Ingalaterra Berriko hirietako industriari buruz. Baina Quebecen kasua doi bat ezberdina da eta diferentzia horrek esplikatzen du nolaz, hizkuntz politika, mugimendu sozial erabakior baten ondorioa izan den.

Lehenik ulertu behar da, euskal eta katalan nortasunak ez bezala, Quebeciar nortasuna gauza nahiko berria dela. Ofizialki, 1960 inguruko urteetan lematzat «*Maître chez nous*» (gure etxean nagusi) ahapaldi adierazgarria zeukan Iraultza lasaiaren garaikoa da. Ordu arte, hiru mendez eta frantses agintepean ere, Kanadan sortu edozein frantses hiztunek kanadartzat zeukan bere burua. Munduko lehen gerlaz geroztik, ingeles kolonia estatutuaren uxatzen hasten denean, Kanadan sortu ingeles hiztunek ere kanadar nortasuna eskatu egiten dute. Baina, etniatasunaren indarrak, kanadar-frantses eta Ingeles-kanadarren arteko bereizketaren egitera behartu ditu.

Quebeceko Iraultza lasaiaren ondotik, etnia-nortasun horren lurralde bati lotzen hasi dira. «*Québécois*» hitza lehen aldiz aditzen da. Beste eskualdeetako frantsesdunak ildo berari jarraitzen zaizkio eta «*franko-ontarien*», «*franko-manitobain*» eta «*frantsascois*»-tzat ekarri dituzte beren buruak, haien arbasoak Quebecetik etorriak baziren ere. Ez dira, ordea, jende horiek *Maritimes* eskualdeko Akadiarrekin nahasi behar, hauek, historia nahiz kultura berezia dutelako, betidanik beren nortasun berezia atxeki baitute, hizkuntz politika bakar bat eramanez gainera.

Nekez uler daiteke hori guztia, Quebeceko hizkuntz politika sortarazi duten mugimendu sozial horiek guztiak alegia, ingurumen historikoaz jakinean ez bagara. Iraultza lasaia, aurreko mendeetan, Quebecen beti izan da Ameriketako frantsesaren iraupen eta distiraren alde bermatu den elite militante bat, Frantziak Mundu Berria zeuzkan eremu kontinentalak oro abandonatu zituen arren. Elite hori intelektualez, profesionalez eta, zuzendaritza eta idazkaritza iraunkorrek maiz bere gain zeuzkan hierarkia katolikoaz osatua zen. Eginkizun nagusia kontinentearen etengabeko kolonizatzearen antolaketa kulturala izan zen. Gune asko biztanlerik gabe zituen kontinente horren kolonizatze ahala, erakunde horiei Amerika guztian, Pazifiko ertzean baina bestalde amerikar Mendebaldean ere, parrokia frantsesdunen sortarazteko kemena eman die. Ez zen langile eskasiarik izan, frantses hiztunen sortze tasak —Amerikako handienak—, ingelesdunena gainditzen zueno; tasa diferentzia hori, garai hartan, «*la revanche des berceaux*» (sehasken errefera) deitu zuten.

Hori guztia Bigarren Mundu Gerra ostean amaitu zen, Quebecen industrializatzearen, populua hiritartzearen eta Ameriketako apalena bihurtu

zen sortze tasaren jaisteak erakarri frantses hiztunen kopurua emendatu ezinaren ondorioz.

Bizkitartean, lehengo kolonizatzearen emaitzek lortu dute hizkuntza-aren eskubidea aldarrikatzen duten frantses hiztunak Kanada guztian aurki daitezen. Frantses presentzia horrek hizkuntz politika federalean hainbeste eragin ukan du non frantsesa, Kanada osoan, ingelesarekin batean, erresumako hizkuntza ofizial gisa onetsia baita.

Egun, Quebeciarrek frantsesa Quebeceko hizkuntza ofizial bezala erabiltzen dute eta, Quebecetik kanpo, ingelesaren pare den Kanadako hizkuntza ofizial bezala, bai eta Akadia nahiz Ontario auzo probintziek frantsesez eskaintzen dituzten zerbitzuetan ere.

Hizkuntz politika ezberdinek segurtatzen dioten geriza guztiak hor dauden arren, batzuek, Ameriketara frantsesa beheko errekarara doala haute-maten dute. Sortzeen gutitzearen, exogamiaren eta, elkaturik, populu etnikoaren erreberitzea tratatzen duten elebitasunaren eta asimilazioaren eragin uztartuak seinalatuak izan dira. Oraingo frantses hiztunen kopurua begiratzeko gelditzen den aterabide bakarra, berrikitan azaldu politika baten arabera, kanpotikako populuaren —beraz, etorkinen—, asimilazio sistematikokoaren programa izan da.

Etorkinen hizkuntz asimilazioaren arazoa Euskal Herriak eta Kataluniak ere ezagutzen dute. Baina hiru egoerak eta politika nahiz hizkuntz hautuak guztiz maila ezberdinekoak dira. Euskarak eta katalanak gehien bat gaztelera hiztunekin antolatu behar badute, Quebecen populu eleanitz-dun kosmopolita eta arraza askotakoari buru egin behar dio, herri amerindiar eta eskimalak gehitu gabe. Montreal hiriko lehen mailako eskoletan, aurtan, berrogeita hamar bat ama-hizkuntza zenbatu dira.

Horrek ez du, halere, adierazi nahi euskarari eta katalanari buruzko etorkinen asimilazioa errazago denik. Funtsean, ez da arazo berdina. Noski, bere hizkuntzak bezalako etorkia duen beste hizkuntza erromano bati populu baten asimilatzea ez daiteke euskara bezain urruna zaion hizkuntza baten asimilazioarekin konpara. Gainditu behar den hizkuntzen arteko distantzia askoz handiagoa da.

Egia da, Quebecen, antzeko egoerak badirela. Etorkinen zati handi baten ama-hizkuntza, frantsesetik euskara gaztelera bezain urrun den ekialdeko hizkuntza bat da. Jende horren gehiengoak ez daki ez frantsesa, ez eta ingelesa ere. Haien frantsese menturazkoa segurraski Quebecen egonen direlako seinalea da. Jende horien alde, Quebecen egiazko sistema eraiki du: harrera egiteko klase, eskola, orientatze sistema eta guzti. Populu horren asimilazioari, jatorriz osoki frantsesduna den populuarenganikako tolerantzia etnikoa baitezpadakoa zaio. Beste herri batzuen esperientziak frogatzen du hizkuntza baten iraupenerako, etniatasuna sakrifikatzen baldin bada, nonbait etnien arteko eraso baten menturan geldituko garela.

Quebecen, Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean ezberdintasun geo-linguistikoak izanik ere, hizkuntz politikak erkatzerakoan, antolakun-

tza aldetik duten berdintasunak harritzen gaitu. Bakoitzak badu Kontseilu bat, honen eginbidea gobernuan hizkuntz politikaz arduratzen den ministroari informazio eta aholkuak helaraztea delarik. Erresuma bakoitzak badu zuzendaritza edo kudeantza bat hizkuntz legearen aplikapenaren zaintzeko, hizkuntzaren zabalkunderako beharrezkoak diren tresnen lortzeko, haren forma eta funtzioen normalizatzean laguntza ekartzeko. Horrek berekin dakartza terminologia eta toponimia saileko zerbitzuak, itzulpen-gintzarako laguntza bat, hots, hizkuntza bere ingurumenean erabiltzeko herritarrak beharko dituen guztiak. Kodifikazioari dagokionez, iduri luke hiru hizkuntzak jadanik aski normalizatuak direla hizkuntza ofizial gisa erabiliak izateko. Diferentzia kuantitatiboa da: alabaina, kopurua —gramatika-liburu, hiztegi, hitz arraroen bildumena, besteak beste—, handia da frantsesarentzat, apalagoa katalanarentzat eta oraino apalagoa, euskararentzat.

Eginkizunen normalizazioan datza, halere, ezberdintasunik nabariena. Quebecen, frantsesari ez zaio hizkuntz eginkizunik bat ere eskas. Katalunian, gero eta gehiago dira. Euskal Herrian da lanik handiena egitekoa, herritarren gehiengoak euskaraz duen konpetentzia eskasagatik xoilki. Herriari, biztanlegoaren erdia baino gehiagori, ezin zaio eskatu ezagutzen ez duen euskara erabil dezan. Horrek euskal hizkuntz politikaren egokitasuna frogatzen du: alabaina, hastapenetik beretik, diru xahutze gehienak hezkuntzarentzat egin ditu.

Guzti horren batuketa egiten badugu, ikusteko epe luzean hiru hizkuntz politika hauetarik zein den lorpena iristeko gaitasun gehiena duena Katalunia edo Quebec hobesteko gogo dugu. Baina, hain epe motzean, euskarak estali duen eremua ikustean, honen dinamismoaren indarrak harritzen gaitu. Lehen aldiz Euskal Herrira etorri nintzenetik iragan diren hamabost urteotan, honen hizkuntz politikaren garapen harrigarriaren lekuko izan naiz. Baserriko hizkera andana bat, gehien bat ahozko tradizio zirenak hizkuntza idatzi normalizatu bihurtzen ikusi dugu, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Aldakuntza horren mekanikeria gero eta zaluagotuz doa, batez ere 1982.eko azaroko normalizazio legearen ondotik. Ondorioz, hizkuntz politikak bizi publikoaren arlo guztietan —administrazioan, entzun-ikusgailuetan, eta batez ere irakaskuntzan—, eragina ukan du. Funtzionario elebidunen formakuntza erakundeak lagundua izan da. Irrati eta telebista euskaldunen sare bat antolatu da, haurrentzat asmatu emankizunak eskantz. Euskarazko eskola pribatuak —ikastolak—, lagunduak izan dira. Irakasleen euskalduntzeko erakundeak sortu dira, bai eta helduen berreskualduntzeko programak ere. Garai berdintsuan, dekretu bidez finkatu da euskararen erabilpena eskola publikoan, bai eta euskarazko material didaktikoaren apailatzeko programak ere. Arlo anitzetan burutu euskararen promozioak oihartzuna ukan du lan munduan, elizkizunen hizkeran, aisialdian, bai eta euskaldun udalekuetan ere. Euskara afitxetako hizkuntza gisa sustatu egin da bai eta, hein batean, mozkinen etiketetan ere.

Horrek guztiak euskarari itxura ofizial bat eman dio, hizkuntza ospetsu bihurtuz. Dena den, hizkuntza erabiliena izan dadin, hurrengo belaunaldiarengan kondatu beharko da. Hezkuntza sistemaren aldakuntzak erabilpen aldaketa horri esperantza ematen dio. Eskolaren hiru erduek, A, B eta D erduek, guztiei euskararen ezagutza bat segurtatzen diete. Baina azkenak du, irakaskuntza osoki emanez, hizkuntzaren menperakuntza segurtatuko. Ondorioz, eskola horien emaitza da aztertu beharko. Diplomadunek, zer egingen dute beren hizkuntzaz? Familia elebakarrak, euskal komunitateak, sozietate esperimentalak, Arrasate euskaldunak osatzen ahalko dituztea hiri handirantz joateko eta han asimilatuak izateko partez?

Galdera hauek pentsatzeko eta biharko gizartea belaunaldi horrentzat apailatzeko ez da goizegi.

TERMINOLOGIA OHARRAK

Antolakuntza

«Hizkuntz antolakuntza» ahapaldia bera hizkuntz antolakuntzaren adibide bat da, eta, nahiz gauza hau ehun bat urteotan baden, kontzeptua, diziplina gisa, 50. urte inguruan baizik ez da agertu. Norvegiako hizkuntzen gatazka zela eta, Einar Haugen jaunak (1959) «*language planning*» ahapaldia atera zuen eta, ondotik, adierazpen hau Heren Munduko garapen ekonomikoari buruzko hizkuntz arazoez 60. urteetan burutu ziren inkesta handien kariatara idatzi artikulu askotan azaldu da (ikerketa hau Honoluluko East-West Center erakundearen eta Ferguson, Fishman, Jernudd eta Rubbin jaun-en elkarlana zen) (Fox 1975; Fishman et al. 1968; Annamalai 1984).

Anartean, Laval Unibertsitatean, CIRB erakundeak elebitasun kolektiboari buruzko ikerketa arazoez lan bat agindu zuen. Bertan, Heinz Kloss jaunak, oraino sendo dirauen bereizketa bati hastapena eman zion, hizkuntza planifikazioa («*corpus planning*») eta haren estatutuaren goraiapatzea («*status planning*») ezberdintzen zituela (ikus Kloss 1969). Urte haietan frantsesez idatzi artikuluetan, ingelesezko hitzak kalkatzea besterik ez da egin, frantsesez «*planification linguistique*», «*planification du corpus*» eta «*planification du statut*» bilakatzen zirelarik. Frantses hizkuntza, hizkuntza ofizial bakarra izaki, lehentasun politiko eta sozial bilakatu zen diziplina berri horretan berezilaria ziren Quebeceko ugarienez, «*planification*» hitza ez zen beren ekintzen adierazteko egokia, ezen haiek «aberastasun kolektibo baten baliatzera» ahalagintzen ziren. Beraz, 1980. urtean, frantses hizkuntzaren Office-ak «*aménagement linguistique*» ahapaldia proposatu zuen (Corbeil 1980). Zenbait urte barne, hitz horrek gaina hartu zuen erabilpenean beste guztiak —«*planification*», «*réglage*», «*réforme*», «*refaçonnage*», eta «*régulation*» besteak beste—, ordezkatuz. Ikus, bestalde, Laurendeau-Dunton Batzordeak 1967. urtean eskaturik Jean Darbelnet jaunak sortu zuen «*allophone*» hitza, honen bidez hizkuntz ez ofizialen hiztunak seinatzen zituelarik. Orduetik, hitz hori, agerpi-de ofizialetan eta komunikabideetan frantsesez, bai ingelesez, agertzen da.

Normalizazioa

Espanian normalizazioa ez dagokio hizkuntzaren formaren kodifikazioari baizik eta haren eginkizunen antolakuntzari. Horrek eragina badu irakaskuntzan, entzun-ikusgailuetan eta administrazio publikoan, batez ere. Ikus, adibidez, Euskal Herriari dagokionez, «*Acuerdo para la normalización y pacificación de Euskadi*» (1988). 1983. urteko katalanaren normalizazio legeak, 1978. urteko Espainiako Konstituzioan finkatu Kataluniaren Autonomia Estatutuaren (1979. urtekoaren) 33. artikulutik sortuak, bakarrik hizkuntzaren funtzioez dihardu.

ADIBIDE GEHIGARRIAK

Nortasun etnikoa eta nortasun linguistikoa

Nigerian, adibidez, elkarketa etnolinguistikoak laurehunez goiti zenbatu dira. Orain, abiadura bizia daukan hirigintzaren unean, nortasun etniko hori nola salba gogoetan gaude. Nahiz 1987.urtean, eta 1992.eko konstituzio berria gogoan, hizkuntza ofiziala den ingelesaren sahetsean, hiru hizkuntza (hauza, igboa eta joruba) hizkuntza nazional izendatu zituzten, entzun-ikusgailuetan eta administrazio publikoan, eskualdeen arteko komunikaziorako beste hamabi hizkuntza behar izan dituzte gehitu. Nortasun etnikoetan sartzen dira ere «pidgin anglo-nigeriarra» eta «Afro-Saxoniarren» ingelesa, Ali Mazuri jaunak eman izenak errepikatuz. Indian, 1961.eko kondaketak, 1.600 ama-hizkuntzaz gora zenbatu ditu, hauetarik ehun bat baizik ez direlarik idatziak, eta azken hauetan hamabost bat baizik ez direlarik hizkuntza ofizial gisa ekarriak.

Frantziako hizkuntz gutiengoak

Berrikitan, Frantzian frantsesaz beste hizkuntza bat mintzatzen duten hoguei bat populu zenbatu dituzte. Hauetan okzitanoa (5 milioi hiztun), alsazianoa (1,2 milioi hiztun), alemana (1,5 milioi hiztun), bretoiera (700.000 hiztun), auverñiera (500.000), «lorrain thiois» (200.000), korsikera (140.000), mendebaldeko flamandiera (100.000), franzikera (20.000) eta tokiko beste hizkera batzuk, hala nola «roussillonera» (katalana), franko-probentzala, normandera eta picardera (ikus Straka 1970; Kloss 1983; Giordan eta Vaccaro 1984; Vermes 1983).

Bestalde, arabiera, armeniera, berberera, gaztelera, italiara, kurdiera, portugesa, romaniera eta yiddishera badakizkiten etorkin edo etorkin seme-alabaz osatu jendalde kopurutsuak aurkitu dituzte. Europako hizkuntza gutitu horietaz xehetasun gehiagoren ukaiteko, ikus Albert Verdoodt, *Les langues régionales et minoritaires des pays membres du Conseil de l'Europe* «*Les langues écrites du monde, relevé de leur degré et leur mode d'utilisation*» bildumaren 3. alean, Heinz Kloss eta Grant Mc Connell jaunen zuzendaritzapean (CIRB, F-3 argitalpena, 1992, Laval Unibertsitatea).

Hizkuntza debekatzearen historiaren alde

Estatuak irakaskuntza, komunikabideak eta ikerkuntza kontrolatzen ditueno, normala da hizkuntzaren debekuaz dokumentuak eskasak izan daitezen. Horregatik, 1960. urtez geroz, eskualdeetako hizkuntzen jardun-

naren kariatara, hizkuntzaren debekuari buruzko ikerketa ez zelako gehiago debekatua, bakarrik gai hori jorratzen zuten ikerketa puntualak agertu dira (ikus adibidez, Y.B. Piriou (1971): *Défense de cracher par terre et de parler breton*, Honfleur (Calvados); Oswald E. Philips (1975): *Les luttes linguistiques en Alsace jusqu'en 1945*, Strasbourg, Culture alsacienne; H.W.Gwegen (1975): *La langue bretonne face à ses oppresseurs*, Quimper, Nature et Bretagne. Ikus bestalde: W.F Mackey (1979): «L'irrédentisme linguistique: une enquête témoin», *Plurilinguisme: normes, situations, stratégies*» idazkian G.Manessy eta P.Wald-ek bildu eta aurkeztu estudio sozio-linguistikoetan, Paris, L'Harmattan argitaletxea, 255-284. orr).

Alfabetakuntzaren hastapenak Europan

Frantzian, XVI. mendean, herritarren gehiengo handiak doi-doi bere izena sina zezakeen; horrek esplikatu lezake, menturaz, 1554.urteko Fontainebleau-ko Ordenantzan den oharra, bertan Henri II.a erregeak notarioei agintzen baitie kontratua onartzen dutenei izenpe dezaten eskatzea «*s'ils savent signer*» (baldin eta sinatzen badakite). Ikus Fraenkel (1988).

Estandarizatzearen erlijiozko hastapenak

Testu sakratuen hizkuntza (Biblia, Korana eta Veda sanskritoena) hizkuntza modernoetan zabaldu aitzin, testu haiek ereduaren irudira estandarizatzea belaunaldiz belaunaldi erlijio zabalkundearen ardura zeukaten klaseen (apez, fraile eta eskribauen) esku utzia izan da. Batzuk ezin kontserbadoreagoak agertu dira. Adibidez, gure gizaldiko 50. urtez geroz, Masoretas-en tradizio rabinikoaren menpean zegoen Bibliaren aldaki bakarraren kontrola hain garrantza izan da non, hitzez hitz jatorrizkoarekin erkatuta —eta orain badakigu jatorrizko hura bera aldaki bat besterik ez zela—, ale bakoitzeko letrak kondatzen baitzituzten (ikus Wevers 1988).

Estatu Batuetako hizkuntza ofizial baten alde

Azken urteotan Hego aldeko estatuetan eta New York, Los Angeles, Miami bezalako hiri handietan gertatzen ari den gaztelaren igotzearen aurka, Estatu Batuetan ingelesa erresumako hizkuntza ofizial gisa jarri nahi duen mugimendu politiko bat abiatua da (Ikus Veltman 1983; Mackey 1983; Fishman 1986).

Ingelesaren estandarizatzea

Eskualde ezberdinetako ingeles idatziaren erakusgarri zabal batek eta, are gehiago, ahozko hizkuntzaren erakusgarriak, ingeles hiztunak badituzten herri ezberdinen artean diferentziak agertuko lituzkete. Baina hori egia da edozein hizkuntzarentzat, frantsesa barne. Bizkitartean, frantsesak bezala, ingelesak ere badu hizkuntza idatziaren aldaki guztiek amankomunean daukaten oinarri bat (ikus Todd eta Hancock 1986).

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALAK GAUR EGUN

Kike AMONARRIZ
Iñaki ARRUTI

0. LABURPENA

Ezein hizkuntz normalizazio-prozesuren ezinbesteko eragiletzat jotzen den hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak Euskal Herriaren kasuan azken urteotan bizi izan duen bilakaera aztertuko dugu txosten honetan.

Aztergaia horren zabala izanik, egokitzen jo da nolabait mugatzea eta Euskal Herri osoan zehar, udalerrietan funtzionatzera iritsi diren mugimenduak hartuko dira aztergai. Mugimendu horiek, noski, testuinguru nazionallean aztertuko dira, baina abiapuntu eta oinarri bezala udalerria hartuta.

Sarrera modura mugimendu horien aurrekinak lantzen dira: gerraondorengo mugimenduek gerraurrekoekin izan duten etena, gerraondoren mugimendu sozial euskaltzaleak landutako esparruen azalpena (ikastolak, helduen euskalduntze-alfabetatzea, komunikabideak, 70. hamarkadan sortutako herrietako euskal kultur taldeak...) eta demokraziaren etorreraren inguruan eman zen giro aldaketa.

Gure aztergai nagusi den udalerrietako mugimendu euskaltzalearen abiapuntua 1979/80 urtean jarriko genuke, izan ere 1979ko Azaroaren 4ean datatzen baita «Euskal Herrian Euskaraz» taldeen sorrera. Esan genezake, beraz, udalerrietako euskararen aldeko mugimendu soziala 80. hamarkadako fenomeno dela.

Abiapuntu horretan oinarrituta, udalerrietan eta Euskal Herri mailan sortutako mugimendu euskaltzalearen ezaugarri nagusiak aztertuko dira:

—Mugimendu horien hedadura: Euskal Herri osoa edo bere zati handi bat hartzen dutenak nahiz udalerrietara mugatuko direnak.

- Mugimendu horiek gidatzen dituen abiapuntuko filosofia eta urteetan zehar eman den aldaketa: diskurtso mailan, eraketa-mailan, etab.
- Erakunde eta mugimendu sozialen arteko harremanak.

Ondoren, mugimendu sozial euskaltzaleak bizi izan duen «inpasse» egoera aztertzen da: zergatik desagertu zen hainbat herri-ekimen, eta zerk eragotzi zuen udalerrietan mugimendu berririk sortzea.

Azkenik, eta bereziki, jauzi kualitatiboa suposatu duten 1990-93 urteak aztertzen dira.

Azken atal honetan, aurreko hamabost urteetan gertatutakoaren laburpena egin eta euskararen aldeko udalerrri-mailako mugimendu sozial euskaltzalea aro berri baten hastapenetan dagoela adierazten da.

Jarraian, aro berri hori eta bere eragileak aipatzen dira. Aldaketa prozesu hau prozesu kontziente modura ulertzen da eta bere hiru osagaiak aztertzen dira:

1. *Nahi berritua*: aurreko hamabost urteetako esperientziak hainbat euskaltzale okitu egin du eta dinamika berri baten gose da.
2. *Jakintza osatua*: ordurarte kanpoko adituen teorien laguntzaz edo maila intuitiboan ikusten ziren euskararen egoera eta hizkuntz normalizazio prozesuaren aurrerabideak. *Txepetxek*, ordea, euskarak bizi dituen arazo eta beharrei erantzuteko asmoz plazaratu zuen formulazio teorikoan, modu arrazional, logiko eta koherentez azaltzen ditu. Besteak beste, galera eta normalizazio urratsak azaltzen dira. Hizkuntzak nola bizi eta hiltzen diren esplikatzeko da.
3. *Erabilera berritzailea*: nahi berritu hori eta ezagutza osatu hori euskararen aldeko dinamika sozial berri modura artikulatu behar zen, baina hori gehiengoak ezinezkotzat jotzen zuen. Bidegurutze horretan A.E.D.k, eta Arrasatek orohar, euskal hizkuntz komunitatea egitura daitekeela eta pentsakera desberdineko herritarrak euskararen aldeko herri-ekimen ez alderdikoian jardun dezaketela frogatzen du. Era berean, udal administrazioarekin lehenik eta autonomikoarekin ondoren, elkarlana burutzeko bideak urratzen ditu.

Txostenean bestalde, hiru osagai hauen konbinaketak udalerrri-mailan sortarazi duen aro berria sakonki aztertzen da. Datu bilketa berezi baten bidez udalerrri-mailako herri-ekimenaren diagnosis burutu da, era berean udalerrri-mailan gauzatzen ari den administrazio eta herri-ekimenaren arteko elkarlana aztertzen delarik.

Amaitzeko, nazio-mailari egiten zaio erreferentzia. Bertan, aurreko ataleko eskema berari jarraiki, herri-ekimenaren egoerari eta administrazioarekiko elkarlanari edo elkarlan ezari aipamentxo bat egiten zaie.

1. SARRERA

Edozein teoria soziolinguistikok aipatuko digu egoera minorizatuan dagoen hizkuntza normalizazio bidean jartzeko, hizkuntz komunitate horretako partaideek helburu hori bere egin behar dutela eta beraiek izan behar dutela hori betetzen saiatu behar dutenak. Hau da, hizkuntz normalizazioaren objektua eta subjektua hitzuna eta hizkuntz komunitatea bera dira. Beste hitz batzuekin adieraztearren, nahiz eta legerik onenak eta baliabiderik onenak eskueran izan (eta honek ez du zalantzan jartzen beraien ezinbestekotasuna), edozein naziotako hizkuntza ezin izango dela normalizatu baldin eta bertako herritarrek hizkuntza hori normalizatzerik nahi ez badute.

Beraz, nahi izatea da euskara biziberritzeko lehen baldintza. Baina nahi izate hori maila pertsonalean ez ezik, talde-mailan hezurmamitu behar da. Hizkuntza, komunikazio-mekanismoa ez ezik, herri-adierazle da, eta beraz, herri-adierazle hori gaiso dagoenean herriak berak du hori sendatzeko erantzukizuna.

Herritarrek beraiek nahia eta erantzukizuna izan behar badute ere, egoera demokratikoetan bizi diren herriek beren gizarte-antolaketarako erakunde publikoak osatzeko aukera izan ohi dute. Bide zuzena, erakunde publiko horien baliabideak eta herritarren gogo eta praktika norantz berean jartzea da. Hainbatean entzun izan dugun elkarlana, alegia.

Izan ere, hizkuntzen normalkuntza alorrean dihardutenen artean, ia ahobatez onartzen baita edozein hizkuntz plangintza garatzeko eta edozein hizkuntz politika definitzeko garaian, ezinbesteko suertatzen direla bai botere politikoa eta bai herriaren borondatea:

«L'actuació política, la del poble i la de l'estament econòmic són els tres eixos entorn dels quals volta el procés de normalització lingüística.»¹

«Potser val la pena remarcar dues obvietats: (a) la política no és només l'acció oficial exercida des de les institucions, sinó també l'activitat exercida des de la societat per provocar el canvi social o per mantenir l'estatus quo i (b) la planificació lingüística pot ser dissenyada per organismes públics, per organismes privats o producte d'aquestes dues coses.»²

«Hizkuntz politika herrigintza bideratzeko politika zabalagoan txertatu behar da eta euskalgintzan diharduten herriko taldeekin elkarlanean sustatu.»³

¹ Josep M. AYMÀ: *Allò que no se sol dir de la normalització lingüística*. Ed. Empúries. Barcelona. 1992.

² Toni MOLLÀ/Amadeu VIANA: *Curs de Sociolingüística 3* Ed. Bromera. Alzira. 1991

³ EUSKARAREN AHOAKU BATZORDEA. *Aholku Bilduma 2: Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena*. Eusko Jaurilaritza. Gasteiz. 1991.

«(Irlandako kasuaz ari dela) In the area of language use, its («Bord na Gaeltachta) main functions could be (...) to assist the development and enhance the role of voluntary language organisations; while respecting the independence of such organisations, (...) projects should, whenever possible, be implemented through or in association with, voluntary organisations, the object being to strengthen, not to bypass them (...).»⁴

Bi ardatz hauei erantsi ohi zaien hirugarren esparrua sozio-ekonomikoa da. Euskal Herriaren kasuan ordea, beste hainbat hizkuntzen normalizazio-prozesuan giltzarri suertatu den esparru honek ez du berezko dinamikarik hizkuntzaren normalizazioari dagokionez. Ez dugu, beraz, eragile nagusi bezala hartuko, eragin-esparru modura baizik.

Gure gaia hain zuzen ere, ezin hizkuntzaren normalizazio-prozesutan ezinbesteko eragiletzat jotzen den herriaren borondatearen isla eta, era berean, beronen sustatzaile zuzen den euskararen aldeko herri mugimenduen nondik norakoen azterketa izango da.

Azkenik, esan beharrean gaude, txosten hau ez dela mugimendu honen azterketa zehatza, aurrerantzean sakontzea mereziko lukeen lehen hurbilpena baizik: «Euskararen gizarte mugimenduen bilakaera aztertzeak oraindik egin ez den tesi lana egitea merezi du»⁵.

2. AZTERKETAREN ESPARRUA

Botere politiko-ekonomikoen euskararen aurka historian zehar garatu izan duten politikaren aurrean, beti egon izan dira euskararen defentsa garatu duten pertsonak eta mugimenduak. Azken urteetan mugimendu horiek izandako bilakaera aztertzen hasi nahi dugu.

Euskararen aldeko jarrera eta ekinbideen egituraketa sendoa berriz, abertzaletasunaren jaiotzarekin batera indartuko da:

«Abertzaletasun (politiko-linguistiko) honek bizpahiru bide ezagun hartu zituen berehala: idazle-lan intelektualarena, prentsa, aldizkari eta liburuak kaleratuz; antolamendu sozialarena, lagunarte euskaltzaleak sortu eta mantenduz; eta ekintza politikoarena, alderdi abertzaleen bidez hizkuntzari babes politikoa bilatuz.»⁶

Gure gaurko aztergaiari dagokionez, mugimendu sozial euskaltzalearen hedadura horren zabala izanik, ezinbestekoa izan zaigu esparru horretan

⁴ J.A. FISHMAN: *Advances in language planning* 1974. Mouton.

⁵ Joxe Jabier IÑIGO: «Euskararen gizarte mugimenduen bilakaera». *Jardunaldiak sozio-linguistikaz*. Bilbao Udala. 1992

⁶ Joseba INTXAUSTI: *Euskara euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz. 1990.

hesiak jartzea. Mugaketa horretarako erabili ditugun irizpideak honako hauek izan dira:

2.1. Irizpide funtzionala

Alde batera utzi ditugu, irakaskuntzarekin loturiko mugimendu sozialak: ikastolak, nahiz helduen euskalduntze-alfabetatzea. Lanean aipatuko dira, baina gure aztergai nagusia, udalerri mailan irakaskuntzatik kanpo eta irakaskuntzaren osagarri modura, bestelako esparru eta funtzioak landu dituzten edo lantzen saiatu diren taldeak izango dira. Nolabait esateko, udalerri mailan hizkuntz normalizazio-prozesuaren ikuspegi orokorra hartzen dutenak.

2.2. Irizpide geografikoa

Euskal Herri osoan zehar, udalerrietan funtzionatzera iritsi diren mugimenduak izango dira gure aztergai nagusi. Talde horiek, testuinguru nazionalan aztertuko dira, baina abiapuntu eta oinarri bezala udalerria hartuta.

Nazio-mailako erakundeek izan dute, normalean, inplantaziorik herrietan, baina, aldi berean, izan da denbora guzti honetan zehar, bere lan-esparrua batik-bat udalerrietan kokatu duen hainbat mugimendu.

2.3. Epeak

Aurreko bi baldintzak estu betetzen dituzten lehen euskara-taldeak, demokraziaren etorrerarekin hasten dira eratzten, baina abiapuntu eta muga bat jartzekotan 1979/80 urtea jarriko genuke, izan ere, 1979ko Azaroaren 4ean datatzen baita «Euskal Herrian Euskaraz» taldeen sorrera. Esan genezake, beraz, udalerrietako euskararen aldeko mugimendu sozial egituratua 80. hamarkadako fenomeno dela.

3. UDALERRIETAKO MUGIMENDU SOZIAL EUSKALTZALEAREN TESTUINGURUA

Gerraondorengo euskararen aldeko mugimendu soziala mugimendu berri eta propio modura sortu zen. Sorrera horretan gainera bi eten nabarmen soma genitzake:

- Gerrareko euskalgintzarekiko etena.
- Euskal Herritik kanpoko mugimenduekiko etena.

3.1. Gerraurreko euskalgintzarekiko etena

Gerraondorengo mugimendu euskaltzalearen eta gerraurrekoaren arteko loturak eskasak izan dira eta nagusiki ikastolen mundura mugatuta-koak. Elbira Zipitria litzateke lotura horien sinbolorik adierazgarriena: «1960. hamarkadan ikastolen mugimenduarekin batera abiatu zen euskalgintza, gutxi edo gehiago gehienok ezagutzen dugu gaingiroki bederen. Ez da ordea beste horrenbeste gertatzen gerraurreko euskalgintzarekin (...)»⁷.

70eko hamarkadaren inguruan egituratzen hasten diren talde eta mugimenduetan apenas dagoen gerraurreko mugimenduarekiko erreferentziarik. Euskara batuaren eta politikagintzaren inguruan sortutako etenak gainera, ez zuen komunikazio hori erraztu.

Euskalgintza beraz, ez da 1960. urte inguruan sortu. Lehenago ere makina bat bide urratu ditu euskarak historian zehar, eta horiek geureganatzea oso litzaiguke komenigarri: «Euskaldunok gauza bat eskatu behar genioke, nere irudiz, geure historiari: perspektiba. (...) Perspektiba eskuratzeko ahal-egin horretan inola ere alboratu ezina dugu, besterik ez bada ere denborazko hurbiltasunak berekin izan ohi duen lokarriaren sendoagatik, mnode honen hasieraldeko jarduna...»⁸

Hain zuzen ere, mugimendu euskaltzalearen partaide gazteek oso berandu ezagutuko dituzte Aitzol, Justo M. Mokoroa, Belaustegigoitia, «Euskaltzaleak» mugimenduak, eta horiek bezalako pertsona eta mugimenduek gerraurrean irakaskuntza esparrutik kanpora begira luzatutako proposamenak eta bideratutako jardunbideak: «Harridura, ustekabeko gauzak irakur daitezkeelako, eta harridura, euskalari haien jakintza eta lana eredugarri izan zelako gauza batean baino gehiagotan. Gure belaunaldiak, euskalgintza haren behar adineko informaziorik erdietsi gabe, (...)»⁹

3.2. Euskal Herritik kanpoko mugimenduekiko etena

Bestalde, komunikazio gutxi izan ohi da Euskal Herritik kanpoko beste mugimenduekin. Hizkuntz-gatazka bizi izan duten edo bizi duten herrien erreferentzia teorikoak izan dira, baina ez dira erreferentzia praktiko bihurtu. Inkomunikazio honen arrazoi nagusi bezala honako hauek aipa genitzake:

⁷ Joxe Manuel ODRIOZOLA: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian*. UEU.

⁸ Mikel ZALBIDE: *Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak*. Euskara Biltzarra. II. alea. Eusko Jaurlaritza. 1988.

⁹ Joxe Manuel ODRIOZOLA: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian*. UEU.

—Egoera SL. oso desberdina izanik, ereduak imitagarri ez izatea:

- Gurea baino egoera soziolinguistiko hobean egoteagatik: Israel, Suomi, Flandria, Jugoeslavia-ohia, etab.
- Gurea baino egoera okerragoan egoteagatik: Okzitania, Irlanda, etab.

—Beste kasu batzuetan egoera antzekoagoa izanik ere, historia politiko-linguistikoak desberdinegiak izan dira. Ez da ahaztu behar:

- Gure herriaren zatiketa politiko-administratiboa aspaldikoa dela.
- Hizkuntzaren kultur eta administrazio-garapena oso urria izan dela historian zehar (Catalunyan ez bezala, esate baterako). Gainera, ez da egon hizkuntza bultzatu duen boteregunerik, salbuespenak salbuespen.

Euskararen aldeko mugimendu sozialak, beraz, bide propioak jorratu ditu eta kanpotik jaso dituen erreferentzia teoriko-praktikoak Catalunya eta Quebec-era mugatu direla eta nahikoa berandu jaso direla esan genezake: «*Kasurik hoberenean, hamarkada baten atzerapenaz ezagutzen dugu munduan egin eta idatzitakoaren zerbaiska*»¹⁰. Bestalde, mugimendu sozial horien arteko harreman egituraturik ez da inoiz egon.

Ahaleginak izan dira, baina saiakera horietatik jaso den frutuak ez du eragin nabarmenik izan mugimendu sozial hauen garapenean. Kanpo-eragina beraz oso urria izan da, eta garapena barne-faktoreek eragindakoa izan dela baieztatu genezake.

Mugimendu sozial euskaltzaleak kanpotik hartu dituen eredu teoriko nagusienak honako hauek izan dira:

- Catalunyatik: Ll.V. Aracil-en teorizazioa. R.Ll. Ninyoles edo F. Valverdú gutxiago ezagutu, erabili eta aipatu izan dira.
- J.L. Calvet-en «Linguistique et Colonialisme» liburua.
- Bestalde, Fergusonen eta Fishmanen Diglosiaren inguruko teorizazioak aipatu beharko lirarteke.

Izan ere, datatu gabe, baina 1983aren inguruan «Euskal Herrian Euskaraz»ek argitaratu zuen «Eztabaidarako materialeak 1» liburuskan (ez zen beste alerik argitaratu), Aracil eta Calveten teoriaren laburpena ematen da. EHE-ren boletina izango den «Aurrera» aldizkariaren lehen hiru urteetan aipatuko diren kanpoko soziolinguistak ere Aracil, Ferguson eta Fishman izango dira.

¹⁰ Txema LARREA: «Soziolinguistikaz Euskal Herrian» *Zutabe Aldizkaria*. 3. zka. 1983 Iraila-abendua. 130-139 orriak.

Kanpoko mugimendu sozialekiko harremanbideak gehiago izan dira pertsonalak, egituratuak baino. Harreman horiek erraztu nahi izan dituzten ekinbideen artean honako hauek aipa genitzake:

- 1983ko Uztailean Galiza, Herri Kataluniar eta Euskal Herriko hainbat soziolinguista bildu zen Iruñean eta «Iruñean Sortua» mugimenduari eman zioten hasiera. Mugimendu horrek ordea, bi emaitza konkretu emango ditu eta ez du jarraipen gehiagorik izango:
 - «Iruñean Sortua» izeneko manifestua.
 - 1984ko Urriari Getxon izan zen «Hizkuntza Minorizatuen Soziologi Biltzarrea»¹¹.
- Hizkuntza Gutxiagotuen Bulego Europarra. Euskal Herriko ordezkariak EKB-k du bere gain. Hainbat proiekturen laguntzaile izan da.
- Antolatu izan den hainbat jardunaldi, hitzaldi, argitalpen, etab.

4. GERRAONDORENETIK 1980RA

Gaia, aurreko irizpideen arabera, azken bi hamarkadetara mugatu badugu ere, ezin aipatu gabe utzi gerraondotik 1980ra bitartean euskararen aldeko mugimendu sozialak hizkuntzaren alde burututako lan erraldoia, maila handi batean hizkuntza heriobidetik atera eta biziraupenerako behar ziren oinarriak jarri zituena.

Garai hauetako euskalgintza borondatean eta militantzian oinarritu zen. Egoera horren larria izanik, «gauzak egin egin behar ziren, zer-nola-koetan gehiegi pentsatu gabe»¹².

Frankismoaren erorketa aurrikusten zen, eta ordurarte «katakunbetan» garatutako lana, gizarte osora zabaltzeko aukerak. Politikan, kulturean, euskalgintzan, ilusio eta itxaropen-urteak ziren. Urte horietan azalduko dira gainera euskararen egoera hobetzen ari zela adierazten zuten lehen zantzuak (ikastoletako matrikulazioaren indartzea, gau-eskoletako matrikula-kopuru ikaragarriak, euskal liburuen ekoizpenaren handitzea, etab.).

Gerraondorengo mugimendu sozial euskaltzalea, garai horretako zurrunbilo politikoaren erdian kokatzen da, eta mugimendu guzti horren eragin nabarmena du.

¹¹ *Hizkuntza Minorizatuen Soziologia* Ttartako Argitaletxea. Donostia. 1986

¹² J.M. ODRIÓZOLA: «Euskararen aldeko herri-mugimenduak: praktika eta teoriaren arteko uztardura». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. 6. Zka. EKB. Donostia. 1992.

Gero aipatuko dugun bezala, alderdi, eskema eta egitura politikoeak erabat baldintzatuta jaio eta biziko da euskararen aldeko herri-ekimena. Gerora begira euskalgintzak jasan behar izan dituen bi gaitzik okerrenak ere ordea, garai hauetan sortu ziren:

- Politikagintzarekiko autonomia falta.
- Periferizazioa.

«Baina, irakaskuntzara mugatu genuenez normalkuntza, euskaldunoi eta euskarari itzaroteko, irakasteaz arduratzeko rola eman ziguten. Erabaki-guneetatik kanpo geldituz, periferia izaten behartu gintuzten. Ondorengo urteak, alderdien protagonismoa medio, “santo y seña”ren urteak etorri ziren eta erakunde herritarrak mimetismoan murgiltzeari ekin zioten(...)»¹³.

Bestalde, 60.eko hamarkadan, Euskal Herriko apaiztegitan euskararekiko sentsibilitate berezia agertuko duten taldeak azalduko dira. Talde horietako partaideak izango dira neurri handi batean hurrengo urteetako euskalgintzaren oinarri eta bultzatzaile nagusienetakoak. Talde horiek normalean aldizkarien inguruan bildu ziren. Besteak beste honako hauek aipa daitezke: Arantzazuko frantziskotarren «Jakín», Bilaroko Sakramentinoen «Arnas», Urretxuko Pasiotarren «Laiaketan», Lazkaoko Beneditarren «Jaunaren Deia», Zornotzako Karmeldarren «Karmel», Pasiotarren «Bidez», etab.

Ondorio bezala esan genezake gerraondorengo euskararen aldeko mugimendu sozialak hizkuntzaren erreprodukzio mekanismotan jarri zituela lehenetsunak. Laburki bada bederen, ildo nagusi horien aipamena egingo dugu. Puntu horien sakonketak ordea, azterketa berezi bat beharko luke eta maila handi batean han-hemenka dauden lanetan aurki daiteke. Ez gara beraz, gehiago luzatuko.

4.1 Familia

Frankismopeko euskararen euskarririk nagusia familia bidezko transmisioa izan zen. Euskal Herriko familia gehienetan gurasoek haurrei euskaraz eginarazteko zuten nahi eta ezintasunaren isla garbiena «euskaraz egin» esaldi mila bider errepikatua izango litzateke. Berau izan daiteke, etxe barnean eta isiltasunean garatutako lan honen enblema nagusia.

¹³ F. MUNIOZGUREN: «Herriaren eskuhartzeaz euskararen berreskurapenean». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. 6. zka. EKB. Donostia. 1992.

4.2. Irakaskuntza

4.2.1. *Ikastolak*

Etxeetako hizkuntz-transmisioaren jarraipena bermatzeko bide gisa eta garai hartan hizkuntzaren biziraupenerako ezinbesteko baldintza bezala hasi ziren sortzen ikastolak 1960. urte ingurutik aurrera, aurretik taldetxo-
ren bat ere bazegoen arren.

Ikastolen mugimenduak, herrietan zeuden euskararen inguruko indar gehienak biltzea lortu zuen: ikastolak sortzeko kultur elkarteen antolaketa, finantziazioa bideratzeko era guztietako ahalegin eta inplikazio-sareak, kultur-jarduerak, etab.

Ikastolena izan da, zalantzarik gabe, euskararen mugimendu sozialak eman duen fruturik oparoena eta garrantzitsuen.

4.2.2. *Helduen euskalduntze-alfabetatzea*

60ko hamarkadan bultzatzaile nagusizat Rikardo Arregi izan zuten Alfabetatze-Euskalduntze taldeak hasi ziren sortzen Euskal Herri osoan zehar, beren lan-ardatz nagusiak bi hauek izan zirelarik:

- Euskararen hedapen funtzionalaren oinarri izango zen helduen ikasketak kulturala lantzea.
- Euskararen ezagupenaren hedapen kuantitatiboa areagotuko zukeen hizkuntzaren ikasketak.

4.2.3. *Udako Euskal Unibertsitatea*

Irakaskuntza-sistema osoaren euskalduntzeari ekiteko eta Euskal Unibertsitatea eraikitzeke beharko ziren oinarri teoriko-humanoak ezartzea izan zen eta da bere helbururik nagusia.

4.2.4. *Euskal Udalekuak*

Urtean zehar ikastoletan garatutako lana jarraitzeko edo erdal eskoletan zebiltzan haur euskaldunei, euskaraz bizitzeko aukera berriak eskaintzeko esparrua.

4.3. **Komunikabideak**

Zeruko Argia, Anaitasuna, Goiz Argi, Herria, etab. luze batek, euskarak komunikabide idatzietan jasaten zuen bazterketa gainditu nahi izan dute eta euskaldungoari informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatu, hizkuntzaren lanketa areagotuz.

Irratietan Loiola, Arrate, Segura, Gure Irratia eta herrietako beste hainbat irratiren atzean ere mugimendu sozial euskaltzalearen bultzada, laguntza ekonomikoa eta pertsonala antzeman daitezke. Horren froga, 1976ko Martxoaren 27an Donostiako Herri-Irratian egin zen «24 ordu euskaraz» programazioa, Donostiako Belodromoan ospatu zen jaialdi erraldoiarekin batera.

4.4. **Kulturgintza**

Euskal kantagintza berria, kulturgileei omenaldiak (Orixe, Lizardi...), kultur asteak, euskararen aldeko egunak eta ekintza solteak, kantaldiak, jaialdiak, dantza edo txistu-taldeen inguruko ekitaldiak, Oargi taldeak, etab. erruz ugaldu ziren bolada honetan.

Ekintza eta jarduera guzti horiek, Euskal Herrian zehar hedaturik baina egituratu gabe zegoen mugimendu euskaltzalearen hazitzat hartu beharko lirateke.

Aparteko aipamena merezi dute mugimendu sozial euskaltzalearen aitzindari bezala, unibertsitateetan (Euskal Herritik kanpokoak asko eta asko) eta hainbat herritan sortutako E.K.T.ak (Euskal Kultur Taldeak). Talde horien egitekorik nagusienak honako hauek izan ziren:

- Euskal Kultur Aste eta hamabostaldiak antolatzea.
- Euskal Kulturari buruzko ikastaroak antolatzea.
- Era guztietako ekintzak, jaialdiak eta erakusketak antolatzea.

4.5. **Lehen kanpaina orokorrak**

Aipatzen ari garen mugimendu sozial euskaltzale egituratuaren aurrekin nagusienetako batzuk, aurreko hiru urteetan garatutako hiru ekinbide nagusi hauek izan ziren:

- 1977ko urtarrilean Gipuzkoako 711 elkarte eta erakunde ez politiko-sindikalek manifestu bat izenpetzen dute euskararen ofizialtasuna eskatuz. Hil horren 22an Gipuzkoan zehar jarritako mahaietan 150.000 lagunek sinatu omen zuen eskakizuna¹⁴.
- 1977-78an bultzatu nahi izan zen euskal kultur eta sailen arteko koordinazioa: «(...)euskal kultur talde eta sailtako elkarte eta erakundeak elkartzeko eta koordinatzeko, Euskal Herri osoko kultur indar handia eratu nahian. Nafarroatik etorri zen bereziki asmo hura, eta bertatik eragin zitzaion bereziki. Izena ere eman zitzaion.

¹⁴ Luis C-NÚÑEZ: *Opresión y defensa del euskera*. Txertoa Arg. Donostia. 1977, 99-109 orriak.

Etxepare. *Baina garai hartako gorabeherak zirela tarteko, hutsegin zuen ekinaldi harek*».¹⁵

- 1978an zehar Euskaltzaindiaren babesean antolatutako «Bai Euskarari» kanpaina. Kanpaina hau herriz-herri antolatu zen eta bertan bildu ziren, euskararen inguruan mugitzen ziren talde eta erakunde gehientsuenak: ikastolak, helduen euskalduntze-alfabetatzea, kultur-taldeak, talde politiko-sozialak, etab. Ordura arte euskararen inguruan inoiz bildu zen jendetzarik handiena biltzea lortu zuen 1978ko maiatzaren 17an San Mamesen ospatu zen azken ekitaldian: 40.000 lagun.

5. MUGIMENDU SOZIAL EUSKALTZALE BERRIAREN SORRERA: «EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ»

Aipatu berri dugun bezala, «Euskal Herrian Euskaraz» taldea, 1979ko azaroaren 4ean sortzen da.

Mugimendu honen sorreran udalerrikako egituraketak izango duen garrantzia izenean bertan islatzen da, izan ere, bere definizioan plurala erabiltzen baita eta ez singularra: «Euskal Herrian Euskaraz» taldeak.

Mugimendu honen sorrera-datak eta burututako lehen ekintzak, argibide anitz ematen digute:

- Euskal Autonomi Estatutua 1979ko Urriaren 25ean onartu zen eta talde hau handik bi astetara sortuko da, lehen azalpen publikoa Abenduaren hasieran burutu zen Durangoko Liburu Azokan (mugimendu sozial euskaltzaleak antolatutako beste ekintza bat) eman zelaririk.
- Bere lehen ekintza, erakunde ofizial berrietan euskarak jasaten zuen bazterketa salatzeke 45 lagun Euskal Kontseilu Nagusiko Egoitzan entzerratzea izango da (1979-XII-21).

5.1. Ezaugarri nagusiak

Mugimendu honen sorrera-agiriak garbi asko adierazten digu zein baldintzatan eta zein erreferentzietan sortu zen¹⁶:

«“Gure alderdi etxekoetan edo-ta abertzaleetan euskarak ez du aurkitzen benetako defentsarik” (...) amnistiaren eta beste borroka politikoen alde sortu diren “gestora” delakoan antzera, euskararen aldeko «talde eragileak»

¹⁵ EKB: *Euskararen normalkuntza. Euskal Kultur Sailen Kongresua*. Txosten fotokopiatua. Donostia. 1984.

¹⁶ EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ: *Elkartearen agiria*. Durango. 1979ko Arazoaren 4a.

sortu behar direla pentsatzen dugu (...) “alderdi abertzaleek” zoritxarrez, betekizun hori gehien batean ahaztuta dutelako»

Taldearen izaera definitzen duten puntuen artean honako hauek aurkitzen ditugu¹⁷:

- «a) Elkarteen izaera berezia, erreibindikatzaile eta borrokatzailea izango da (...)
- b) Erreibindikapen eta salaketa hori ekintza praktikoetan azalduko da.
- d) Elkarre hauek autonomoak izango dira edozein partidu politikorekiko (...).».

Abiapuntuko ideia hauek, beraz, garbi uzten digute talde hauen filoso-fiaren oinarriko ezaugarriak:

- Alderdi politikoen eta eskuratu berri diren erakundeen euskararekiko utzikeriaren salaketa.
- Taldea zabal eta irekia izateko borondatea.
- Taldearen ekimenaren ardatz izango diren salaketa eta borroka-kontzeptuak.
- Euskalgintza esparru berrietara zabaltzeko borondatea.

Aurreko epearekin eten bat gertatuko da maila guztietan. Eten hori honela deskribatzen digu J.M. Odriozolak¹⁸:

«(...)besterik uste bazen ere jadanik ikastola ez da askizat jotzen eus-kara salbatzeko; demokrazia burges formal eta arrotz baten baitan bizi dira baina euskarak ez du bere irtenbiderik aurkitzen dagoen diglosiazko gurgil zorotik askatzeko; instituzio autonomikoen hizkuntz asmoak eta ekintzak ez datoz bat eta gainera ekintzetan hutsaren hurrengo somatzen bada, asmoak beraiek ere ez dira zuzen erizten elebitasunaren inguruko ideologizazio ikaragarri bat dagoela igartzean».

5.2. Burututako lehen ekintzak

Idea horien inguruan EHE taldeak 1979-81 epean burutzen dituen lehen ekintzak ere maila honetakoak dira:

- Entzerronak: Euskal Kontseilu Nagusian eta Nafarroako Diputazioan.
- Errotuluen ezabaketa: Ipar nahiz Hego Euskal Herrian eta honekin batera lehen epaiketak eta isunak.
- Euskararen aldeko manifestaldiak: Iruñea, Donostia.

¹⁷ *Op. cit.*

¹⁸ Joxe Manuel ODRIOZOLA: «Euskararen aldeko herri-mugimenduk: praktika eta teoriaren arteko uztardura». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. 6. zenbakia. EKB. Donostia. 1992.

- Donostiako Udaletxeko bilkuran elebitasunaren aplikazioaren eskaera.
- Komunikabideak: Radio Nacional-en itxialdia eta «Gabonetarako Irratia/Telebista euskaraz» kanpaina.

5.3. Mugimenduaren lehen garapen-fasea

Aktibismo hutsak markatutako lehen epe honen ondoren, ordea, ikuspegi zabalago bat agertzen hasten da, planifikazio eta eragipen-esparruen inguruan. 1981eko maiatzean datatutako agiri batean¹⁹ irakur genezakeen bezala helburua zehaztu egiten da: «Euskararen erabilpenaren dinamika bat sortzea».

Eta aurrerago eransten da: *«era razional eta zientifikoz antolatu beharra dago (...) euskararen plangintza litzateke erabilpenaren dinamika hori sortzeko tresna, hau da, ekintza programa argi eta zentzuzkoa. (...) Ekintzak, kanpainak, programatu behar dira arlo bakoitzean, kanpaina arteko koordinakuntza lortu eta arlo linguistikoen arteko ekintzak artikulatu.»*

Eragin-esparru nagusienak aipatzean ondorengo lauak azaltzen dira: Irakaskuntza, administralgo publikoa, komunikabideak eta zerbitzu publikoak.

Azkenik eta agiri berean, gerora begira EKB izango denaren lehen zirriborroa aurki daiteke: *«Gure ustez, Euskal Herrian Euskarazek, dei zabala egin beharko luke euskararen alde Praktikan jokatu duten Euskal Herriko talde guztiei, hala nola: Euskaltzaindia, UZEI, Ikastoletako Federakuntzak, Irakasleen Elkarteak, Euskal Eskola... eta egoki erizten dion guztiei, txostena eztabaidatzeko eta denon artean, euskararen erabilpenaren normalizaziorako herriko proiektu bakarra burutzeko. Ondoren praktikara eramango duguna.»*

Idea horietan oinarrituta, puntu hauek azpimarratuko genituzke:

- Euskal Herrian Euskaraz taldeek salaketa-lanaz aparte, udalerrietan, beste alor batzu jorratzeari ere ekingo diote. Ekinbide hauetan ordea, alde nabarmenak izango dira herritik herrira.
- Herrietako Euskal Herrian Euskaraz taldeek Udalei eta alderdi politikoei zuzenduko dizkiete beren eskaerak «Euskara Benetan Gure Udaletan» kanpainaren barnean:
 - Udal bakoitzean Euskararen Batzorde irekia.
 - Eskualdeka Euskararen Kabinete Teknikoak.

¹⁹ EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ (izenik gabeko aldizkaritxoa). *Euskara normalizapen bideetan* artikulua. Donostia. 1981.

- Zonalde euskaldunetan kontzejal guztiak euskaldunak.
- Zonalde erdaldunetan eta hiritartuetan kontzejal bat bere jardueran euskara hutsez arituko dena.

—Euskal Herrian Euskaraz-en inguruan baina era autonomoan mugituko diren taldeak ere sortu eta garatuko dira, udalerrietako lanari hertsiki lotuagoak: Tolosaldea Berreuskalduntzeko Elkarte, Legazpiko «Hots», Lasarteko Euskara taldea, Z.U.E.K. (Zumarraga-Urretxuko Euskara Kolektiboa), Xabier Gereñok Bilbon antolaturiko euskaltzaileen afariak, etab.

—Mugimendu guzti hau Hegoaldean kokatuko da, Iparraldean Irakas-kuntzaz aparte ez zen bestelako egituraketa finkorik sortuko, beranduago arte.

Talde guzti hauek eta filosofia honen egikaritzapena 1981-1984 urte bitartean gauzatzen da.

6. HASIERAKO ESTRATEGIAREN MUGAK ETA LEHEN BIHURGUNEA

6.1. Etena

Lehen epe honen ezaugarriarik nagusia, herri-mugimenduaren eta erakundeen artean sortzen den etena izango litzateke:

—EHE taldeek, beren jardunaren ardatz modura euskararen marko juridikoaren salaketa hartuko dute, ezker abertzalearen esparruan kokatuz.

—Legeria izan da urtetan euskararen aldeko mugimendu sozialaren eta administrazioaren arteko liskar eta enkontru gehien eragin dituen gaia; zuzen eta zeharka. Iparraldean eta Nafarroan bere eskasia nabariarengatik. Elkarte Autonomoan aldiz, euskararen legeriari buruzko eztabaida, marko politiko orokorraren defentsa/arbuio dikotomiarekin erabat identifikatu zelako, mugimendu sozial euskaltzalea mugaren alde batera jarritz.

—Euskarari dagokionez, eztabaida puntu hauetan kokatuko da:

- Euskararen lege markoaren alde/aurka («Euskararen legea»).
- Elebitasuna / Elebakartasuna.

—Egoera hau, gainera, herrietan funtzionatzen ari ziren beste mugimenduetara zabalduko da, instituzioen eta herri-mugimenduaren arteko leizea sortuz, maila guztietan:

- Herri-mugimenduek lege-esparruaren eta erakundeen jarduna kritikatu dute.

- Erakundeek herri-mugimendua baztertu eta alde batera utziko dute.

Etenaren ondorioak ezagunak ditugu: mugimendu sozial euskaltzalearen «ghetizazio» eta maila batean (auto)marjinazioa eta erakundeen aldetiko bide paraleloen eraikuntza. Joxe Azurmendik honela ikusten zuen egoera 1981ean, EHE sortu eta urte t'erdira:

«Nik hasieratik izan nion beldurra taldeari, Txillardegi bera agertzen delako, etab, bista gehiagoz joka zitekeen, opzio zabal bat eskaini, baina azkenean ez dago irtenbiderik, planteatzen den metodoarena baita arazoa. Eta lehen aipatzen nuen tragedia, metodo horiek erabili beharra (...). Euskaltzale askok nekez hartuko du parte hor. Eta E.H.E. izan behar ez lukeen ghetto bihurtzen da ezinbestez. Ghetto euskaltzaleen aurrean eta, noski, ghetto bi komunitateen arazoaren aurrean»²⁰.

6.2. Etenak udalerrietan izandako eragina

Udalerrietan egoera honek ondorio zuzenak izan zituen:

- Herrietako euskararen aldeko mugimendu sozialak «abanguardia»ren eskemak erabiliko ditu:
 - Jendez talde murrizak izan dira. Normalean lan-azpimultzorik gabeko taldeak.
 - Partaidetza joera sozio-politiko jakinetara mugatu da.
 - Sektore sozial desberdinetan ia inolako presentziarik ez dute izan.
 - Herriko bizitza sozio-kulturalean, oso periferian kokatu dira. Ekintza puntualenez gain, ezer gutxi gehiago egin da.

6.3. Akats nagusiak

Erabilitako lan-metodoa ere filosofia horren ondorio izan da. Urte horietan garatutako jardueraren azterketa kritikoa eginez, hutsune nagusi hauek identifika genitzake:

- Egitasmorik eza («Kanpainiti»a): ez da egitasmorik edo ekintza-programa koordinatu eta egituraturik sustatu. Lan gehiena kanpaina eta ekintza zehatzetara mugatu da.
- Kanpotikako eragipena («Parakaidismoa»): sektoreak ukitu direnean «kanpotik» ukitu dira, «zerbait eskatu» da, barne-dinamikarik eragin

²⁰ *Ere Aldizkaria*. «El euskara, otra clave del laberinto vasco». 1981-III-14.

gabe. Euskararen aldeko presio soziala gehiago lotu da kanpo-eraginarekin (salaketa, eranskailu, manifestazio, etab.), sektore sozial eta esparru desberdinetan, barrutik eragingo lukeen mugimendu sozial zabal batekin baino.

- Helburuen mailaketarik eza («Kafea denentzat»): ez da helburu-mailaketa zehatz eta progresiborik ezarri, aurrera eraman diren lan-esparruetan.
- Periferizazioa («Ghettismoa»): egoera horretan ez da lortu talde horietan «euskaltzale ezagunengandik» aparte, ez jende gehiago biltzea, ezta kasu gehienetan ere, jende gehiagorengana iristea.
- Konpromezurik gabeko aldarrikapenak: ohitura handia egon da, inolako konpromezu praktikorik eskatzen ez duten euskararen aldeko aldarrikapen edo diru-laguntzetan geratzeko.

Muga guzti horiek gainera areagotu egin ziren udalerrri gehienetan Euskara Zerbitzu/Batzordeen sorrerarekin. Izan ere, ordurarte euskara taldeek eskatutako edo kasu batzuetan bideratutako jarduera gehienak, Udalaren esku geratu ziren; ez zen jakin funtzio-banaketa egokirik egiten eta Euskara Taldeak funtzioz «hustu» egin ziren, «presio-talde» huts izatera kondenatuz.

6.4. Ondorioak

Guzti honek, eta dagoeneko udaletan ere talde horiekiko zegoen bazterte-giroak ondorio zuzenak izango ditu hurrengo urteetan:

- Egoera honek eraginda, 1985-89 urteetan hainbat talde desagertu egingo da: Euskal Herrian Euskarazko hainbat herri-talde, Tolosaldea Birreuskalduntzeko Elkarte (1986), Lasarteko Euskara Taldea (1989), Legazpiko «Hots» taldea (1988, nahiz eta berreratuko den), etab.
- «Euskal Herrian Euskaraz», gero eta gehiago bihurtuko da nazio-mailako jarduera eta kanpainak bultzatuko dituen talde bat, udalerrietako talde dinamikoak murriztu egingo direlarik.
- Mugimendu berrien sorrera geratu egingo da baldintza hauetan eta sortzen hasiko direnak oso baldintza txarretan hasiko dute beren jardunbidea.

Epe honetan, beraz, herri-mugimenduaren ahultze-prozesu gogorra gertatuko da.

Egoera honi irtenbide bat aurkitzeko asmotan E.K.B. eratuko da.

Beste ekinbide batzu ere izan ziren, eta horietako bat, nahiz eta aurrera ez atera, 1985aren inguruan egon zen Euskararen Aldeko Partidua sortzeko asmoa dugu.

7. KOORDINAZIOAREN ALDEKO APOSTUA: EKB

7.1. Ezaugarri nagusiak

EKB 1983ko Martxoaren 12an aurkeztu zen Bergarako UNEDen. Honela definitu zuen bere burua²¹:

- «—Euskal Kulturaren diharduten sail ezberdinetako talde eta elkarte herritarren *topagune eta elkargunea*.
- Kultur erakundea*, inolako talde politiko nahiz soziali lotugabea (...)
- Euskal gizartea euskarari buruz jaberazteko, eta Euskararen eta euskal kulturaren normalkuntza sustatzeko, eskakizun, ekintza, eta plangintza bateraturako *oinarri zabala*.»

Bere eginkizun nagusiak 4 ardatz hauen inguruan kokatu zituen:

- «—Gizartearen jaberazpena.
- Ekintza bateratua.
- Eskakizunak.
- Plangintza orokorra.»

Lan horiek bideratzeko somatzen diren hiru arazo nagusienak honela formulatzen dira «Euskararen normalkuntza bidean: Erakunde Publikoak eta Erakunde Herritarrak txostenean»²²:

- «—Erakunde publikoen subjektua den agintaritza politikoa hiru lurralde eta komunitatetan zatikatuta egotea (...), horrek hizkuntza eta kultura nazionalaren politika bateraturako jartzen duen ezegokitasun eta kontradikzioarekin.
- Herritarren sektore politiko garrantzitsu batek erakunde publiko horiek ez onartzea beren politikagintza funtsezkoan, horrek erakunde herritarren eta publikoen arteko langintzan sortzen duen tirabira eta kontradikzio funtsezkoarekin.
- Erakunde autonomikoak eta foralak eraiki baino lehenagotik borrokan eta lanean diharduten erakunde herritarren zabalkunde eta indarra, bereziki euskararen eta euskal kulturaren alorrean; erakunde horietako batzuk publiko izatekotan jaiokoak eta eratuak gainera. Agintaritza publiko zatikatuari bereganatu eta jasan ezina gertatu zaio nonbait herri-dinamika eratu hori.»

7.2. Ekinbideak

Urte hauetan EKBk garatu dituen ekinbideak maila askotakoak eta ugariak izan dira: Hainbat egitasmoren antolaketa eta koordinazioa: Euskararen Egunak, Sailez-saileko topaketak, Matrikulazio-kanpainak....

²¹ E.K.B.: *Euskararen normalkuntza. Euskal Kultur Sailen arteko Kongresua*. (Txosten fotokopiatua). Donostia. 1984.

²² E.K.B.: *Euskararen normalkuntza bidean. Erakunde Publikoak eta Erakunde Herritarrak*. Txosten fotokopiatua.

Horiekin batera bere zerbitzuak antolatzen joan da: Dokumentazio-Zentrua, Bat Soziolinguistika Aldizkaria, Aholkularitza Juridikoa...

Baina gaurko gure gaiari loturik EKBk burutu dituen bi aportazio teoriko garrantzitsu ere azpimarratu nahi genituzke:

- 1985ean plazaratutako «Euskararen Plangintzarako Oinarriak»²³.
- 1991ean plazaratutako «Hizkuntz Normalkuntzarako Ekinbideak Udalerri mailan»²⁴.

7.3. Oztopoak

Asmo berriek, ordea, aurretik zetorren inertzia izango dute oztopo nagusi:

- Erakunde publikoek jaiotza beretik hartuko dute EKB, ezker abertzalearen inguruko mugimendu bezala, eta beraz, beren estrategia instituzionalaren etsai modura:

«Noski, iniziatiba nonbaitetik sortzea oso normala da, baina gero horrelako plataforma edo mugimendu bat sigla jakin batzuen izenean plazaratzea ez zait hain itxuroso eta komenigarria iruditzen (...) Hortaz, zer etorkizun izan dezake horrelako mugimendu batek?»²⁵.

- EKBren jaiotza, tentsio-testuinguru horretan eman zen, eta asmoak bestelakoak izan arren, bere partaidetzaren esparrua, erakunde nahiz pertsona-mailan esparru politiko-sozial jakin batera mugatua geratuko da, salbuespenak salbuespen.
- Adibide modura aipa genitzake:

- EKB eta HPINren artean urtetan eman den inkomunikazioa.
- EAJren Euskararen Ponentziaren lehen idazkuntzan, EKB (beste mugimendu batzuekin batera), euskara asmo politiko partidistetarako erabiltzeaz salatzen zela.
- «Bateginik» kanpainaren inguruan izandako tirabira politikoak.

Udalerrietako mugimenduari dagokionez, hasiera batean EKBren ideia koordinazioaren filosofia herrietara transmititu eta herri mailako EKBak sortzea izan bazen ere, formulak ez zuen funtzionatu: «*Koordinakunde modura eratzeak ez du normalean aukerarik eskaini izan beste inongo taldetan ez ziharduten euskaltzaleak inplikatzeko (...)*»²⁶ eta muga eta oztopo

²³ *Jakin Aldizkaria*. 34. Zka.: «Euskararen Plangintzarako Oinarriak». 1985eko Urtarrila-martxoa

²⁴ UEUko SOZIOLINGUISTIKA SAILA-EKB: *Hizkuntz Normalkuntzarako Ekinbideak Udalerri mailan: Planifikaziorako orientabideak*. UEU. Bilbo. 1991.

²⁵ Joxe LIZARRALDE: «Euskera sigla batzuen morroi?». *Deia*. 1983-IV-1.

²⁶ Joxe Jabier INIGO: «Euskararen gizarte mugimenduaren bilakaera». *Jardunaldiak soziolinguistikaz*. Bilbao Udala. 1992.

guzti horiek, lehendik ere ahulduta eta zokoratua zegoen mugimendua (ber)sortzea eragotzi zuten, desagertzera edo ahultzera eraman zituen baldintza berdinak planteiatzen zirelako: mugaketa politikoa eta erakundeengandiko bazterketa.

7.4. Euskalgintzaren «inpassa»ren hedakuntza

Aurreko mugak ezin gaintitzeak ekarritako ondorioak, ordea, ez dira mugimendu sozialera mugatuko eta esan genezake, maila handi batean euskalgintzan diharduten erakunde guztietara hedatu direla:

- Euskara Zerbitzuek/Batzordeek garatu ohi duten lanak lehen aipatu ditugun aje berak izan ditu. Euskararen normalizazioari buruzko udal-jardunaldien ondoren HPINk kaleratutako argitalpenean huts hauek aipatzen dira²⁷:
 - Politizazioa
 - Etsipena
 - Hitza ez betetzea
 - Informaziorik eza
 - Hari luzearen beharra.
- Aldamenean, beren lanaren sostengu eta osatzaile izango litzatekeen herri-mugimendu zabalik izan ez dutenez gainera, Euskara Batzordeen lanak ez du lortu gizarte-inplikazio finkorik kasu gehienetan.
- Udal Euskara Zerbitzuen Koordinazio bat osatu den arren (UETS), koordinaketa hori borondate-mailan mugitu da, inolako egitura-zio administratibo-juridikorik gabe. Nafarroako kasuan, kontratazioak bertako HPZNtik bideratu badira ere, EAE-n erabat udalen esku egon dira eta ez da koordinazio-organigrama finkorik osatu HPINrekin.
- Administrazio-erakunde desberdin gehienek, bestalde (Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Foru-Aldundiak, Udalak), ez dute praktika linguistiko homogeen eta koherenterik garatu. Maila horretan euskararen alde diharduten erakundeek (HPIN, Euskara Batzorde eta Zerbitzuak), lan garrantzitsua garatu badute ere, ez dute lortu erdarazko funtzionamenduaren inertzia gaintitzerik eta hizkuntz-normalizazioa, erakundeek beren osotasunean hartu beharreko lan bezala hartzerik:

²⁷ HPIN: *Euskararen normalizazioari buruzko udal jardunaldiak*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 1992

«Euskararen normalkuntza eta herriarena bereiz ezinezkoak direnez, agintari guztiek, agintaritza osoak, erantzukizun berezia dute euskararen aldeko politikan»²⁸

—Herritar euskaltzaleen jarduerak, hizkuntz-eskubideak, kexuak edo proiektuak bideratzeko egiturak eta aukerak falta izan dira.

Denbora guzti honetan, euskalgintzaren bilgune onartu bakarrak ikastolen inguruan antolatutako festak izango dira (90.eko hamarkadara hurbiltzen goazen neurrian, ikastolen etorkizunari buruz zeuden ikuspegi politiko desberdinek beren eragina izaten hasiko badira ere). Festa horiek gero eta jendetza handiagoak bilduko dituzte:

- Lehen «Kilometroak» 1977ko Urriaren 16ean ospatu ziren Beasainen 12.000 lagun bilduz. 1989ko Urriaren 1ean Oñatin ospatu zirenetan berriz 100.000 lagun bildu ziren.
- Antolatu diren herrietan, inongo euskarari buruzko ekitaldik ordu-rarte bildu ez zuen jendetza eta jende-mota desberdina biltzea lortuko dute.

Ez da ordea gauza bera gertatuko «Korrika»rekin. Jendetza handia bildu eta oso espektru zabaleko euskaltzaleak hurbiltzen bazaizkio ere, AEK-ren inguruan dagoen eten politikoa dela bide, estigmatizazio politikoa bizi izan du lehen edizioa ospatu ondorengo guztietan (azkenengoan etenaren intentsitatea dezentente malgutu bazen ere).

8. EUSKALGINTZA BERRIAREN OINARRIAK ETA ERAGILEAK: 1990-1993

1986tik 1989ra doan epe honetan, gaur egun sortzen ari den egoera berriaren haziak eta oinarriak aurkituko ditugu. Esan genezake, azken hamabost urteek, beraz, ezaugarri amankomun bat izan dutela euskalgintzan: *atomizazioa*.

Atomizazio horren eragile nagusia, ikusi dugun modura, alderdikieraren transbersalizazioa izan da. Transbersalizazio hori, gizarte-bizitzako hainbat alorretan bezalaxe, euskalgintzan ere eman da. Hau da, euskalgintzan ziharduten indar nagusiak alderdien diskurtsoetara belaunikatu dira, edo belaunikatu ez direnean hauen eskuetan erori dira, edo eskuetan erori ez direnean ez zaie utzi jardun ez-alderdikoia garatzen.

Transbersalizazio honek, elkarrekin jardun behar zuten euskalgintzako erakundeen harremanetan usteltze bidea eragin du. Hau da, oinarritzko amankomuneko puntuak, erakundeen arteko osagarritasuna eta elkarlan erreala bilatu beharrean, oinarritzko puntuetan desadostasunak, erakundeen

²⁸ EUSKARAREN ALHOLKU BATZORDEA. *Op. cit.*

arteko nagusikeria eta aurkakotasun erreala bilatu dira —bai aurkitu ere—, saiatu den modura saiatuta. Ondorio txar asko ekarri ditu jokaera honek, besteak beste, inkomunikazioa, denbora asko alferrik galdu izana, etsipena...» Nik esango nuke aurreratu ahal izango genukeenaren herena aurreratu dugula, hain zuzen ere indarrak oso norabide desberdinetara bideratu ditugulako. Egitekoa hizkuntz komunitate baten egituraketa baldin bada, orain arte ez gara parametro horietatik abiatu (...).»²⁹

Hala ere, euskalgintza zulo horretatik ateratzen ari dela eta aro berri batera sartzen ari dela esatera ausartzen gara.

Aro berri baten hasieran gaudela esateko ditugun indikatzaileak, aurreko hamarkadan bide okerretik ibili garelako esateko erabili ditugun berberak dira. Indikatzaile hauek, ordea, balore negatiboak izatetik, neutroak eta positiboak izatera pasatzen ari dira. Hau da, jendea (ondoren erakundeak) bere «txokoetatik» atera da eta komunikazio kanalak irekitzen ari da, ilusio berri bat sortzen ari da.

Aldaketa hau ordea, ez da berez eman, zenbait faktorek eraginda ari da gauzatzen.

Pertsona-mailan gertatu ohi den modura, gizarte-mailan ere, edozein prozesu kontzientek hiru urrats nagusi ditu; nahi izatea, jakitea eta egitea (motibazioa, ezagutza eta erabilera). Hiru urrats hauek edukin berriz osatzen doazen heinean eta pertsona mailatik gizarte mailara garatzen doazen heinean ari da aipatu aro berria eratzen.

8.1. Hamabost urteko esperientzia (borondatea)

Euskalgintzako hainbat jenderentzat azken hamabost urte hauetako dinamika goia jo du. Dinamika horrek ondorioztatzen zuena eta norberak zuen euskaldun izateko nahia, zein euskararen biziberritze saioetan parte-hartzeko gogoia ez zetozen bat. Eta hori horrela gertatu da herri-ekimena-ren gune oso aktiboetan.

Sentimendu edo gogo mailan analisi hau nahikoa hedatua zegoen, eta dago, bai euskalgintzan, bai gizarte-bizitzako beste hainbat alorretan. Herritarrak alderdi politikoen omnipresentziaz okitzen hasiak zeuden, eta daude.

Esperientzia bat frustrantea ez izateko ordea, modu bakarra dago; esperientzia txar hori aztertu, gaizki egindakoa arrazionalizatu, gaizki egindakoaz ere ikasi eta hori norberaren ezagutzara barneratu. Momentu honetan horrelako aldaketa prozesu bat nabarmentzen ari da.

Berehala aztertu behar ditugun Euskara Talde gehienen sorrera-prozesuetan, badago, oso esanguratsua den puntu amankomun bat: kasu askotan

²⁹ Julen AREXOLALEIBA: *Euskal Kulturaren Urtekaria 92*. Argia. Mahaingurua.

projektuen sustatzaile nagusienetakoak Euskara Zerbitzuetako teknikariak izan dira. Hain zuzen ere, berauek izan dira garbikien ikusi dutenak, era-kundeetatik —udaletik— bakarrik ezin dela normalizazio-prozesua gizar-teratu, eta horretarako herri-ekimen berri bat behar zela.

8.2. José Mari Sánchez Carrión; «Txepetx» (ezagutza)

Azken pasarte horietako batean esandakoa egina zuen ordurako Txepetxek. «Un futuro para nuestro pasado»³⁰ liburuan, besteak beste, euskalgintzan ziharduen hainbat euskaltzaleri bere ezintasunen zergatiak azaltzeaz gain, hartu beharreko norabide berria formulatzen dio. Euskal gizarte-hizkuntzalaritzak urrats kualitatiboa emateaz gain, herri-ekimenari bere erantzukizuna (bigarren axioma), bere nolakotasuna eta bere egunerokotasuna argitzen dizkio.

Gero eta gizarte eragin nabarmenagoa bereganatzen ari den tesi honek, euskararen galera prozesua eta normalizazio urratsak arrazionalizatu eta esplikatu egiten ditu. Hizkuntzen bizitzaren teoria oso bat da.

Lan honek beraz, herri-ekimenaren eta orohar euskalgintzaren egoera arrazionalizatu egiten du. Herri-ekimenaren zati garrantzitsu batek intuitiboki sentitzen zuena era logiko eta koherente baten bidez azaldua ikusten du eta beronekin identifikatu egiten da.

Irtenbidearekin ere gauza bera gertatzen da. Jende askok zuen ustea, modu logikoz azaldua ikusten du eta bere egiten du bertan esandakoa. Pasarte hau izan daiteke norabide berriaren erdigunea³¹:

«Lo euskaldun aún no ha alcanzado una formulación política independiente. Construirlo es la llave maestra de la salida de la situación. Y para construirlo los euskaldunes deben abandonar las falsas perspectivas de formulaciones políticas que los atomizan, los disuelven y los suplantán, y unirse en una nueva perspectiva que antepone a cualquier objetivo el restablecimiento de la nación Euskaldun. Sólo a partir de él, y ya desde el euskara, es posible para los euskaldunes desdoblarse en opciones políticas diferentes, del signo que sea, pero siempre con la conciencia firme de la unidad en lo euskaldun. (...)

Para el euskara el problema no es de alternativas (estado vasco / estado español), sino de prioridades (vivir / no vivir). El euskara necesita vivir, garantizar su supervivencia. Y para ello por el momento la única alternativa consiste en que los euskaldunes, compactándose de nuevo, conduzcan a su euskara desde la sub-vivencia hasta la vivencia más plena.»

³⁰ Jose M.^a SÁNCHEZ CARRIÓN: *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia. 1987. Argitalpen librea.

³¹ Jose M.^a SÁNCHEZ CARRIÓN: *Op. cit.* 272. orria

8.3. Arrasate Euskaldun Dezagun (erabilera)

Euskararen aldeko herri-ekimenak beraz, hamarkada nahastua bizi ondoren, egindako hanka sartzeaz jabetu (ongi egindakoak ere asko dira) eta esperientzia horretaz ikasten hasten da. Intuizio mailan nabarmentzen zen horrek zentzu osoa hartzen du Txepetxen lanarekin, eta honek bide berriak zabaltzen dizkio euskararen aldeko herri-ekimenari.

Nahia oinarrian bazegoen, ezagutza (jakintza) nahi horrekin bat egiten zuen teoria oso batek ematen zuen, baina hori errealitate egitea beste kontu bat zirudien.

Arrasatek ordea funtzio berezia bete du puntu honetan:

—Zenbaitzuk ezinezkoa zela zioena egin egin zuten.

—Alderdikeriak sortutako etena gainditu egin zuten.

Azvimarratzekoa da bere historian zehar era guztietako erakunde eta talde euskaltzaleen errekonozimendua bildu duela AEDk: HPIN, Udalak, EHE, EKB, etab. «AED eta horrelakoetatik benetan gustatzen zaidana zera da: gehitzen duten guztiak sartu zakura, zamaten dutenak ez noski».³²

Nahiz eta Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarteak 1983an jaiotzen³³, hau da, oso garai politizatu eta iskanbilatsuan, iparrari eutsi eta egin nahi zuen hura egiteko hartu beharreko erabakiak hartu izan ditu. Transbersalizazio politikoari aurre egin eta lehentasunezkoa zen euskal hizkuntz komunitatearen egituraketari ekin zion hasiera hasieratik.

Horretarako, euskararen aldeko dinamika ez-alderdikoia eraikitzea lortu zuen eta horren oinarrian herri honi egin dion aportaziorik interesgarriena gauzatu zuen; ideologi desberdinetako euskaltzaleak euskararen alde, elkarrekin, jardun zezaketela frogatzea.

Emandako urratsak laburki azaldu behar badira, hauek lirateke: nahiz eta pentsakera politiko desberdinekoak izan, euskararentzat garrantzitsuak ziren pertsonak (euskara beraiarentzat garrantzitsua zutenak) elkartuz hasi ziren, honek herriko euskaldungoan sinesgarritasuna sortu zuen eta komunitatea egituratzen hasi ziren, ondoren eta gaur egun, euskararentzako funtzioak berreskuratzen ari dira (administrazioa, komunikabideak...), honek era berean aurreko urratsak sendotzen dituelarik.

Guzti hauek Txepetxen lanaren erdi-erdian daude. Teoriak dioena praktikan frogatzen hasiak ziren eta praxi hori teoriak dituen zutabeetan oinarritua dago (nahiz lehenagokoa izan).

Hiru faktore hauen konbinazioak, hau da, aurreko dinamikarekiko aldatuta nahiak, dinamika berriak behar lituzkeen ezaugarriak ezagutzeak eta horren adibide bat izateak eragin du euskararen aldeko herri-ekimena aro berri baten atarian aurkitzea.

³² Joxe Mari ZEBERIO: *Euskal Kulturaren Urtekaria 92. Argia*. Mahaingurua.

³³ *Jazten Aldizkaria* 3. zka. «Zer da AED?, Zer dago atzetik?». AED. Arraste. 1990eko abendua.

9. UDALERRI-MAILA

Aro berri honek udalerrian du bere abiapuntua. Pertsona zehatz batzuk, aurreko esperientzian oinarriturik eta ezagutza osatuagoz ekintza berri bati ekiten diote, eta hori, udalerrri-mailan hasten da gauzatzen.

Udalerrri-mailak oinarritzko garrantzia duelakoan gaude. Izan ere, herritar gehienon egunerokotasuna udalerrriak jasotzen dituen esparruetan (familia, lagunartea, irakaskuntza...) oinarritzen da.

Esparruak ez ezik, hizkuntz komunitatearen egituraketak ere unitate zentzua hartzen du udalerrri-mailan, udalerrri bertako herritarren arteko harremanak herritar horien harremanen zatirik handiena osatzen duten heinean.

Halaber, herritarren eta agintarien arteko harremana estuago den bezalaxe, herri-ekimenaren eta administrazioaren (Udala) arteko harremana zein lankidetzaz errazagoa eta funtzionalagoa izan ohi da udalerrri-mailan nazio-mailan baino.

9.1. Herri-ekimena

Une honetan 20 dira dagoeneko funtzionatzen ari diren eta aipatu berri ditugun ezaugarriak biltzen dituzten herrietako Euskara Taldeak. Horietaz gain, badira beste lauzpabost oinarriak finkatuta dituztenak (batzuek aurkezpenak ere eginda) baina lanean datorren ikasturtean hasiko direnak. 20 horietatik gehienak Gipuzkoan (15), 4 Bizkaian eta 1 Araban kokatzen dira.

Euskara Talde horietatik gehienak lehen azaldutako hiru faktoreen inguruan osatu dira:

- Elkarte horien sorrera prozesuan partehartu duten pertsonen artean aurreko hamarkadan euskararen aldeko herri-ekimenean jardundako jendea dago. Kasu batzuetan, herri horietan aurretik zeuden taldeetan ibilitakoak. Zaharren eskarmentua eta berrien gaztetasuna uzartu dira.
- Txepetxen lana izan da eragileen jarduna teorikoki gidatu duena.
- A.E.D. izan da hain beharrezkoa izan den erreferentzia praktikoa.

Elkarte hauen ezaugarri amankomuna (lehen aipatu ditugunaz gain), bere sorrera prozesuan, ikastolen sorrera prozesutik gertatu ez den bezala, pentsakera desberdineko euskaltzaleak bildu izana da, honek, euskaldungoaren erreakzio positibo bat («bazen garaia» modukoa) eragin duela. Aurkezpen «jendetsuak» ezagutu dituzte talde gehientsuenek.

Laburki azaltzearen, A.E.D.ren kasuan bezala (nahiz hau intuitiboa izan eta egungoa erreferentzia teorikoduna), espazio sinbolikoa nuklearizatu da (pentsakera desberdineko hiztun kontzienteak elkartu, hausnartu eta

dinamika sozial bateratu batean jarri), hizkuntz komunitatea egituratzen hasi da (oraingoz euskaldungoa batuz eta ikastolekiko zuten erreferentzia egungo lehentasunetara zuzenduz) eta beren jarduna funtzio berreskuraketan zentratu dute (eskolorduz kanpoko jarduerak, komunikabideak, kultur ekintzak, sentsibilizazio jarduerak, harreman-sareak, hitzarmengintza...).

Eskema berari jarraikiz, esan genezake aurreko hamarkadako euskarren aldeko herri-ekimenak ez zuela euskaldun kontzienteak elkartzea lortu (espazio sinbolikoa nuklearizatu), ondorioz euskal hizkuntz-komunitatea ezin izan zen egituratu, ezerk ez baitzuen alderdi politikoek gizartean sortutako konpartimentalizazioa gainditzeko adina sinesgarritasunik lortu, beren jarduna egunerokotasunean eta funtzio berreskurapenean kokatu beharrean (kokatzen saiatuta ere seguruenik ez zuen bideragarritasunik izango), dinamika soziala lortzeko saiakeran antzuak izan diren diskurtsoetan kokatu zelarik (legeriarena kasu).

Planteamendu aldetik salto kualitatibo honek sinesgarritasuna ez ezik praktika erreala lortu badu ere, egunerokotasunak beste hainbat oztopo izaten ditu, eta ekimen berri hauek antzutu ere egin ditzake.

Zer nahi den argi dago, nola lortu behar den ere bai, baina, lortzea, beste gauza bat da. Dinamika sozial bat eratzeko saiakeraren bat egin duenak ongi ulertuko ditu hitzok.

Aipatu dinamika sortu den edo sortzen ari den herrietan tapagailu politikoa askatzen ari bada ere, erakunde eta dinamika bat sorrarazteak hizkuntz planteamenduak ez ezik, funtzionamendu planteamenduak ere oso kontutan izan behar ditu (baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialak, nahien eta ahalbideen erritmoak, harremanen mundu korapilotsua, ezin ikusiak...). Horren froga gisa esan genezake, talde gehientsuenek denbora luze xamarra eman diotela eraketa-prozesuari (6 hilabete-urtebete inguru).

Beraz, euskararen aldeko herri-ekimena udalherri-mailan aro berri baten atarian dagoela esan daiteke, nahiz eta herriz herri duen garapen-maila oso desberdina den.

9.2. Euskara elkarteak

Txosten hau lantzeko burutu dugun datu-bilketaren emaitzen arabera, aipatu elkarteak 20 herritan sortu dira. Beren ezaugarri nagusienak honako hauek lirateke:

9.2.1. *Sorrera-data*

Sorrera-datari dagokionez, 4 multzo osatuko genituzke:

- a) 1983 baino lehenagotik datozenak eta duela bizpahiru urte berrantolatatu direnak (Elgoibarko Izarra eta Legazpiko «Hots»).

- b) 1983-1989: Arrasate eta Aretxabaleta
- c) 1989: Bizkaian sortutako aurrekinak: Durango eta Ermua.
- d) 1990<: Herrietako Euskara Taldeen goranzko fenomenoaren abiada:
 - 1990: Tolosa, Bergara eta Oñati.
 - 1991: Eskoriatza, Lasarte-Oria eta Donostia
 - 1992: Eibar, Andoain, Zumarraga-Urretxu, Barakaldo, Errenteria (eta Debagune federazioa).
 - 1993: Portugalete, Gasteiz, Beasain
 - Prestaketa-fasean: Bilbo, Hernani, Antzuola, Malerreka, Pasaia, ...

Ikus genezakeen bezala, fenomeno hau goranzko fenomenotzat har genezake, gero eta gehiago baitira sortzen ari diren taldeak.

9.2.2. *Taldearen izaera*

Ia denak, Kultur Elkarte modura eratu dira eta bazkide figura sortu dute (elkartearen jarduna lagundu nahi duen pertsona), normalean 3 partaidetza-mota desberdinekin:

- Lantaldeetan lanean (talde-militantea)
- Noizik eta behingo laguntza (talde-sinpatizantea)
- Soilik kuota ordaintzea (talde-laguntzailea).

4.000 pzta/urte inguruko kuota dute gehienek (langabetu eta gazteen-tzako erraztasunekin).

Bazkide-kopuruari dagokionez honela banatzen dira:

- a) 100 baino gutxiago: 4 talde.
- b) 100-200 bazkide: 5 talde.
- c) 200-300 bazkide: 5 talde.
- d) 300-500 bazkide: 5 talde.
- e) 500 baino gehiago: 1 talde.

Batazbeste 200 bazkide baino pittin bat gehixeago dituztela esan genezake, baina azpimarragarria da guztira, Euskara Talde horietan 5.000 bazkide inguru biltzen direla egun.

Bestalde, ia talde guztiak sortu berriak izanik, datorren urterako bazkide berriak lortzeko kanpaina edo lan bereziak planteiatzen dituzte. Sendotze-prozesuan daude.

9.2.3. *Kokatzen diren udalerriak*

Kokatzen diren udalerrien tamaina honela banatzen da:

- a) 4.000-10.000 biztanle: 2 talde
- b) 10.000-20.000 biztanle: 10 talde


- c) 20.000-40.000 biztanle: 3 talde.
- d) 40.000 > biztanle: 5 talde.

Gipuzkoan herri-elkarteak sortuta dauden udalerriek herrialde osoko biztanlegoaren %65a jasotzen dute, Bizkaian %20a eta Araban %77a (Gasteiz).

9.2.4. Barne-antolaketa

Barne-antolaketari dagokionez, edozein kultur elkarteren antzera, bazkideak urtean behin biltzen dira eta Batzarre horretatik urtebeterako edo birako Zuzendaritza Batzorde bat aukeratzen da. Bertan, ohizko karguez gain, lantaldeetako partaide edo arduradun batzuk egoten dira. Zuzendaritza Batzordea elkartearen urtean zeharreko norabideaz arduratzen da.

Euskara taldeen organigrama estandarra honako hau litzateke:



9.2.5. 1993ko egitasmoak

1993rako Euskara Talde horiek prestatu dituzten egitasmoen lan-ardatz nagusiak honako hauek lirateke:

- Kultura ekintzak (talde guztiek): hitzaldiak, mahai-inguruak, ikastaroak, bekak, bidaiak, azokak, literatur-sariak edo taldeak, afariak, musika-emanaldiak, komikigintza, etab.
- Aldizkaria (15 talde). Batzuetan dagoenarekin jarraitu, edo beste kasutan berria kaleratu. Maiztasunak, hiruhilabetekaritik asterokora doaz.
- Sentsibilizazio-lana (11 talde): motibapen-kanpainak, kartelak, biorrikoak, artikulua, autobusak euskal festetara, etab.
- Haurrentzako ekintzak (10 talde): hitzarmenak, ludoteka edo udalekuak, ekintza zehatzak...
- Hitzarmengintza (7 talde): gizarte-sektore guztiei edo aisialdiko taldeei zuzendurikoak. Horietaz gain beste 3 taldetan gizarte-sektoreei zuzenduriko egitasmoak agertzen dira.
- Gazteak (5 talde): gazteei zuzenduriko egitasmo zehatz eta konkretuak.
- Bestelako lan-ardatzak: sektore sozial konkreturen bat (lan-mundua, kirola, hezkuntza), bertsolaritza (4 talde), emakume-taldea, matrikulazio-kanpainak, euskaldunberrientzako egitasmoak, jaietarako egitasmo bereziak, etab.

9.2.6. Udalekiko harremanak

Talde gehienak berriak izanik, udalekiko harremanetan ere bi multzo nagusi bereiz genitzake:

- Dagoeneko harremanak finkatu xamartuak dituztenak: 15 bat talde.
- Harremanak finkatzen ari direnak: 5 bat talde.

Harremanak finkatuak dituzten horien artean, gehientsuenek harreman onak dituzte Udalarekin eta dauden kasuetan Euskara Batzordeekin. Harreman horiek honako puntuotan islatzen dira:

- Diru-laguntzak (talde guztien kasuan): kopuruak dezente aldatzen dira ordea, herritik herrira, taldeen egitasmoen edo Udalen jarreraren arabera. Kasu batzuetan diru-laguntza soilaz gain hitzarmenak sinatu dira.
- Iraunkorki Euskara Batzordean esku hartzen dute talde gehienek.
- Kasu batzuetan (5 bat) funtzio-banaketa zehaztera iritsi dira.

Badira hala ere, oraindik harremanak normalizatu ez dituztenak, harreman gutxi dutenak, edo Udalak beraiekiko mesfidantza dutenak.

9.2.7. *Beste erakundeekiko harremanak*

Maila desberdinetako erakundeekiko harreman nagusienak honela planteiatzen dira.

- a) Udalerrri mailan: dagoeneko hitzarmengintzan aritzeagatik edo sorrera-prozesuan alor hau landu dutelako, udalerriko beste elkarte eta erakundeekin harremanak izan dituztenak taldeen erdiak inguru dira. Besteek sendotze-prozesuaren barnean kokatzen dute lan hau.
- b) Nazio mailako beste herri-ekimenak: arestian aipatu dugun bezala, talde gehientsuenek harreman puntualak dituzte EKBrekin, baina hortik aurrera jo gabe. Beste erakundeekiko harremanak txikiagoak dira.

Talde horiek normalean eskuhartzen dute nazio-mailako beste-lako kanpaina eta ekintzetan: Argia Eguna, Egunkariaren festa, Ikastolen festetarako autobusak, Korrika, etab.

Badira ere «Adorez eta Atseginez» Mintegiarekin harreman pertsonala dutenak.

- c) Erakundeak: ia talde guztien sorrera-aurkezpen edo ekitaldi bereziren batean egon da HPIN-eko Idazkari nagusia den M.K. Garmendia andrea edo bere ordezkariaren bat. Harreman sakonagorik ordea ia ez dago.

Aldizkariak dirulaguntzak jasotzen dituzte Eusko Jaurlaritzako Kultura Saitetik eta Diputazioetatik. 1992. urtean honelako elkar-teentzako dirulaguntza deialdi berezitua egin da Gipuzkoako Diputaziotik.

Epe motzera, dagoeneko Debaldean sortutako Debaguren bezalako egituraren bat sortzeko asmotan, udalerrikako egituratik eskualdekako egiturara pasatzeko ideia dutenak ere badira: Ezkerraldea, Oiartzunalea, Ernio-behea, Durangaldea, ...

Bestalde, inkestetan oso garbi somatu da, Euskara Talde gehientsuenek gaur egungo bere egitura sendotzea dutela lehen helburu, eta badirudi «beldurra edo zalantzak» daudela nazio-mailako egituraketaz proposamen zehatzik egiteko.

9.2.8. *Ezaugarri nagusiak*

Esan beharra dago, Euskara Talde gehienak sortu berriak direla eta ezin daitezkeela ekintza kontsolidatutzat jo. Hala ere, sendoketa maila garrantzizua duten eta iraunkortasunez sozialki eragiten diharduten elkarteek hainbat ezaugarri amankomun dute ikusi berri dugun bezala:

- Erabat talde autonomoak dira, organikoki ez udalerriko beste taldeekin, ez nazio mailako beste ezein erakunderekin loturarik gabe-koak.

- Gipuzkoako erdi-mailako udalerrietan daude (10.000-30.000 biztanle).
- Udalerri horietako euskaldungoak biztanlego osoaren %40-50etik gora osatzen du.
- 200 bazkidetik gora dituzte. Liberatu edo dinamizatzailerik bat dute.
- Udalarekin nahiko harreman onak dituzte (ekonomia barne) eta udal horiek Euskara Zerbitzua dute.

Bada hala ere, beste multzo bat eraketa prozesuan murgildurik diharduena eta lehen aipatu dugun funtzionamendu-arazoez plazaratze indartsuagoa galarazten diena. Hauek ere, amankomuneko ezaugarri bat badute: tamaina. 40.000 biztanletik gorako udalerrietan (Donostia eta Gasteizen eratua dago eta Bilbon oraintxe prestatzen) euskaldungoarengana iristea, espazio eta eragin soziala lortzeak eta abarrek, hizkuntz planteamenduetaz gain, funtzionamendu planteamendu garatuak izatea eskatzen du.

Esan beharra dago, herri gehienetan euskaltzalegoan zegoen zatiketa gainditzen ari dela eta hezurramitzen ari diren prozesuarekiko balorazio itxaropentsua egiten dela. Zenbaitzuetan gainera, ikastolen sorreran gertatutakoarekin hainbat parekotasun aurkitzen dute: «*Euskara elkarteak herriz herriko dinamika zabaltzen ari dira, nazio mailako benetako faktore eragile berri bihurtzeraino. Guk, gaur egun iragar daitekeenarengatik, garai batean ikastolena eta gau-eskolena bezalako mugimenduekin pareka daitezkeela pentsatzen dugu*».³⁴

Orain 25-30 urte bezala, oinarria bera da, hau da, euskararen aldeko nahia euskararen aldeko ekintza bilakatzea. Hartu den eraketa-moeta, ordea, kultur elkartearena izan da (lehen ikastola izan zen) eta burutu nahi den ekintza, berriz, beste gizarte-esparru batzuetan (komunikabideak, kultura, lan-mundua, aisialdia...) euskararen normalizazioa eragitea da (orain 25 urte haurrei euskarazko irakaskuntza eskaintzea izan zen moduan).

9.3. Udalak

Herri-ekimenaz badihardugu ere, herri-ekimen horren nolakotasuna eta, beraz, eragin soziala, administrazioarekin gara dezakeen elkarlanaren baitan ere badago.

Adierazi beharra dago aipatu ditugun ezaugarriak dituzten elkarteak sortu diren herrietan erantzun desberdinak jaso dituztela Udaletatik. Erantzun hori hiru faktore nagusiren baitan egon da; lehena, elkarteak berak udal-erri-mailan (beraz alderdi politikoei ere) lortu duen sinesgarritasun-maila, bigarrena Udala-Agintaritzatik euskararen normalizaziorako

³⁴ Joxe Jabier IÑIGO: «Euskararen gizarte mugimenduaren bilakaera». *Jardunaldiak soziolinguistikaz*. Bilbao Udala. 1992.

izandako sentsibilitatea eta hirugarrena, elkarlana garatzeko eramandako prozedura.

Hala ere, hiru faktoreak modu egokian garatu direnean, herri-ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlanaren ereduak funtzionatzen duela frogatu da (berriro Arrasate da adibiderik egokiena). Artikulazio horren eredu teorikoa Txepetxek nazio-mailarako egindako bera da, baina udalerrimailara egokitua³⁵.

Esan beharra dago, halaber, azken 4-5 urteko euskararen aldeko udalerrimailako herri-ekimenaren eta Udalen arteko harremana hobetu egin dela orohar. Hobetze horretan lehen aipatutako hiru faktoreek eragin dute, hau da, herri-ekimenak alderdi politikoetako euskaltzaleengan sinesgarritasuna lortu izanak, udal-kargua duen hainbat politikari hainbestetan aipatzen den, baina behar baino gutxiagotan gauzatzen den administrazioaren eta herri-ekimenaren arteko elkarlana garatzera ausartu izanak eta elkarlanerako metodo egokia aurkitu izanak.

Elkarlanaren eta artikulazioaren diseinu zein bideragarritasuna ulertzeko, ordea, beste elementu bat ere aipatu behar da: *Udal Euskara Zerbitzuak*.

Arestian aipatu bezala, Udal Euskara Zerbitzua izan daiteke, euskara zerbitzu horretatik soilik normalizatuko ez dela jabetzeko lekurik aiposena. Hainbat Euskara Zerbitzutan zubi-lan oso interesgarria garatzen ari da. Lehenik zinegotzi eta alkateen hizkuntz normalizazioarekiko heziketala garatuz, bigarrenik udalerrietan euskararen aldeko dinamika sozial berriak eratuz edo eratzen lagunduz eta hirugarrenik, Udalen eta aipatu elkarten osagarritasuna eta elkarlana ahalbideratuz.

Honen ildotik, aurrean hau egin duten Euskara Zerbitzuak dituzten herrien eta finkatzen ari diren euskararen aldeko dinamika berriak dituzten herrien arteko «parekotasuna» ematen dela ere esan genezake.

10. NAZIO-MAILA

Nazio-mailan tapagailu politikoa askatzeke dago.

Arrazoiak arrazoi, aitzakiak aitzakia (alderdi politikoen estrategia orokorren pisua, herrigintza kontzeptuarekiko urruntasuna...), nazio-mailak ez du azken hamabost urteetako euskalgintzako ikasgaia bere egin.

10.1. Herri-ekimena

Herri-ekimenak egoera desberdinak bizi ditu une honetan Euskal Herriaren 3 zonalde administratiboetan:

³⁵ Jose M.^a SÁNCHEZ CARRIÓN: *Op. cit.* 380. orria.

10.1.1. *Nafarroa*

Nafarroan 10.000 biztanletik gorako 5 hiri ditugu eta bostak Euskal Herriko zonalde erdaldunduan kokatzen dira. Herri euskaldunak txikiak izanik, zaila izan da udalerrikako mugimendu propiorik martxan jartzea (ia salbuespen bakarrak Baztango EKB eta Altsasuko Euskal Txokoa izango lirateke). Beste taldeak gehiago mugatu dira irakaskuntza arlora, kultur ekintzetara edo nazio mailako kanpainak bideratzera.

Hala ere, orain arte aipatu dugun aro berriaren ezaugarriak antzematen zaizkion herrialde-mailako herri-ekimena egituratzen hasia da Nafarroan³⁶. «Oinarriak» izenà daraman ekimen berri honetan hainbat pertsona eta erakunde bildu dira eta PSOE eta UPN ez beste alderdi guztiek bere babesa eskaini diote. Ezaugarri nagusienak hauek ditu:

- Gizarte eta politiko-mailan euskararen aldeko kontsentsu edo adostasun zabala bilatzeko asmoa.
- Irekitasuna.
- Iraunkortasuna.
- Elkarlana eta batasuna.

Ezaugarri hauen inguruan euskararentzako Nafarroan minimotzat hartzen diren 23 puntu definitzen dira (orokorrak, administrazio eta zerbitzu publikoetan, irakaskuntzan, helduen euskalduntze eta alfabetatzean, komunikabideetan eta gizartearen orohar).

Ezaugarri hauei eutsiz, hiru helburu zehazten dira:

- Euskararen alde aritzea lan iraunkorra burutuz eta batasunak eskaintzen duen indarra zutabetzat hartuz.
- Eskakizunetan zehaztutako puntuak lortzea.
- Euskararen aldeko ekimenak koordinatzea, EKBn parte hartuz.

Bestalde, ezin da ahaztu duela hiru bat urte Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzaren bidez, 12 bat Udal Euskara Zerbitzu antolatu zirela, eta horietako hainbaten inguruan egon dira eta badaude mugimendu sozial autonomoak eratzeko entseguak.

10.1.2. *Iparraldea*

Iparraldean euskarak jasaten duen maila guztietako bazterketak, mugimendu sozial euskaltzalearen ekimena erreproduktio mekanismo oinarrikoenetan jartzera eramán du, aurretik Hegoaldean bezala. Esan genezake, Iparraldeko mugimendu sozial euskaltzaleak, Hegoaldekoaren bide bertua jarraitu duela.

³⁶ Eduardo CONDE: «Oinarriak» *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. 9. zka. EKB. Donostia, 1993.

Iparraldean euskararen alde lanean ari ziren erakundeak Pizkundean bildu ziren. 1982an jaioa, aurreko urtean egin ziren Iparraldeko Kultur Elkarteen Lehen Biltzarraren ondorio bezala. «Pizkundera»k urte guzti horietan euskararen onarpen ofiziala eta euskal kulturarekiko laguntza aldarrikatu ditu: ofizialtasuna, SEASKAren onarpena, gau-eskola, euskal irrati, etab.entzako laguntza...

Garrantzitsua izan zen Pizkundera bultzaturik 1989ko maiatzean Iparraldean zehar zabaldu zen «Deiadar» kanpaina, puntu horien aldeko sostengua bilatzen zuena. Azpimarratzekoa da ere, lan guzti horien ondorioz, sortu zela 1990ean Euskal Kultur Erakundera.

Edozein kasutan, aztertzen ari garen mugimendu sozialen antzera Iparraldean eratu zen lehenengoa Hegoaldean baino hamar urte beranduago sortu zen; hain zuzen ere, Iparraldeko Euskal Herrian Euskaraz-ek 1989ko azaroan eman zuen bere lehen prentsaurrekoa³⁷.

Bizirik daramatzen 3 urte horietan, garatu duen lan-ardatzik nagusia euskararen ofizialtasunaren eskaera izan da (bideseinaleen ezabaketa edo kenketa, hautetsiei gutunak, Posta, Justizia, hauteskundera, etab.). Honekin batera zerbitzu publikoak eta beste alor batzuk ere landu dituzte.

Aurten, ordea, Iparraldeko EHEk, AEDren esperientzian oinarrituta, euskarazko hitzarmena sinatu zuen Ezpeletako Udalean 32 elkarterekin. Iparraldean ere bide berriak urratzen hasi dira beraz.

10.1.3. *Euskal Autonomi Elkartea*

Euskal Autonomi Elkartean aldiz, lehen aipatu dugun udalerrri-mailako euskararen aldeko dinamika berriak oraindik ez du heldutasun nahikorik izan udalerriz gaindiko dinamika sendorik sorrarazteko. Hala ere, Deba Garaian «Debagune» federakuntza osatu berri da (1992ko udaberria) bai-larak biltzen dituen udalerrietako herri-elkarteekin.

10.1.4. *Euskal Herrian Orokorki*

Euskal Kulturaren Batzarreak (E.K.B.), aurreko hamarkadako dinamikaren egoera ikusirik, 1991. urtean hausnarketa-epe bat zabaldu zuen euskararen egoeraren, beharren, estrategien eta EKB beraren egokitzapenaren inguruan.

E.K.B.ren III. Biltzar Nazionalari begira egindako hausnarketetan akats nagusi hauek azpimarratzen ziren³⁸:

³⁷ «Iparraldeko Euskal Herrian Euskaraz». *Aurrera Aldizkaria*. 26. zka. 1992ko uda.

³⁸ J. Inazio MARKO: «EKBren Biltzar Nazionala». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. 6.Zka. Donostia. 1992.

A) Erakunde ofizialen aldetik:

- Elebitasuna helburutzat hartu izana.
- Instituzionalkeria.
- Plangintza orokorrik eza.

B) Erakunde herritarren aldetik:

- Konpaktazio eta koordinazio eza.
- Mugimendu herritarren indarrarekiko lilura eta erakunde ofizialekiko konfrontazio-politika.
- Euskararena «abertzaleon» arazo bihurtu izana.
- Erakunde ofizialekiko dialektika serio eta sistematiko baten falta.

Puntu guzti hauen hausnarketaren bidetik eta udalerrrietako Euskara Taldeekiko koordinaketa indartu asmoz, E.K.B.k bere estatutuak aldatu eta Euskalgintzarako Konfederakunde modura eraberritu da.

Talde hauek, ordea, E.K.B. kanpotik sortu dira eta harreman puntualak egon badira ere, ez dira E.K.B.ren egituran integratu.

Nazio mailako koordinazio-ezaren arazoak hor dirau, beraz. Nahiz eta, gero eta nabarmenkiago, euskara elkarteen hedapenak nazio mailako eszenatoki berri bat ekar dezakeela aurrikusi: «*Euskara elkarteen mugimendu honek Euskal Herri osora zabaltzea lortzen baldin badu, euskaltzaleen arteko batasun maila kualitatibo berria eta atzeraezinezkoa lor liteke. Euskararen mugimendua politikaren baitan baino, mundu politikoa euskararen interesen baitan funtzionatzen jartzeko desafioa dugu begiaurrean*».³⁹

1991. urtean ere, «Adorez eta Atseginez» mintegia jaiotzen da. Mintegi honek «Un futuro para nuestro pasado» liburuak jasotzen duena sakondu eta euskalgintzara hedatzea du helburu. Jaio denetik aipatu gaiaren inguruan ikastaroak emateagatik nabarmendu da. Ikastaro hauetako askok aipatu euskara-elkarteen sorreran eragin dute.

Euskal Herrian orokorrean azken urte hauetan ematen ari diren beste ekinbide garrantzitsuenen artean hiru azpimarratuko ditugu:

A) UEMA:

- EHE taldeak bultzatuta eta EKBren babespean «Herri Elebakarren aldeko kanpaina»ri ekin zitzaion 1988an. Kanpaina horren ondorioz, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortu zen, oso euskaldunak diren herrietan barne-bizitza euskara hutsez gerta zedin sustatu nahian. Herri horiek normalean txikiak direnez, eta beraz, herri-mugimendurik antolatzeke ahalmen gutxikoak, udaletik bertatik bideratzen dira jarduera guztiak.

³⁹ Joxe Jabier IÑIGO: «Euskararen gizarte mugimenduaren bilakaera». *Jardunaldiak soziolinguistikaz*. Bilbao Udala. 1992.

B) Euskara Talde Sektorialak:

—Gizarte-sektore desberdinetan, euskararen alde lanean diharduten talde eta erakunde desberdinak sortu dira. Berauen helburua alor jakin horietan euskararen erabilera bultzatzea da. Horien artean aipatuko genituzke:

- Administrazioko langileen elkarteak (Nafarroan): Marmari (Diputaziokoena) eta Giltza (Iruñekoena)
- Sail desberdinetako Euskara Talde eta Elkarteak: Ozenki (Telefonika), Bankako Euskara Batzordeak, eta hainbat lantegitakoak.
- Osasungintza Euskalduntzeko Elkarteak.
- Unibertsitateko Euskara Taldea eta Fakultate desberdinetakoak

C) Euskaldunon Egunkaria:

—Atal honi amaiera emateko, azken 3-4 urte hauetan herri-ekimenak nazio-mailan sortu duen emaitzarik garrantzitsuena aipatu beharra dago: Euskaldunon Egunkaria. Bera da hizkuntza gutxiagotu bat biziberritzeko, hizkuntza horretako hitzunen nahiak eta inplikazioak duen garrantziaren adibide nabarmena.

—Euskaldunon Egunkariak, kanpotik ezarritako zailtasun asko (be-rezkoek gain) gainditu behar izan ditu argia ikusi eta 2. urtebetetzea ospatzeko. Gaur egun, aldiz, zaila gertatuko da bere funtzioa, sinesgarritasuna eta laguntza instituzionala eman beharra ukatuko dion euskaltzalerik aurkitzea.

10.2. **Administrazioa**

Udalerri-mailan esan dugun bezalaxe, hemen ere herri-ekimenaren nolaketasuna eta eragin soziala, administrazioarekin gara dezakeen elkarlanaren baitan ere badagoela esan genezake.

Sintomak, ordea, bestelakoak dira. Udalerri-mailan elkarlana garatzen eta artikulatzen ari dela esan badugu, nazio-mailan lehengo dinamikan jarraitzen da orohar. Adibiderik egokiena aipatu Euskaldunon Egunkariarena da.

Hala ere aitortu beharra dago, azken urte hauetako euskalgintzaren «leit motiv»a Elkarlana hitza izan dela, eta honek dagoeneko bidea zabal daitekeela erakusten du⁴⁰.

⁴⁰ (Besteak beste eta adibide modura):

— M.K. GARMENDIA: «Euskarak batu egin behar gaitu, eta ez sakabanatu». *Euskaldunon Egunkaria*. 92-V-13.

— Erramun OSA: «Elkarlanerako deia berriro». *Euskaldunon Egunkaria*. 92-XII-9.

— J. ARREGI: «Indarra eta aahuladea». *Deia*. 93-III-4.

Momentu honetan bi jarrera bereiz genitzake.

—Batean, orain arte aztertu ditugun parametroekin neurtuz gero, aurreko hamarkadako ikasgaia ikasi dela eta aldaketa nahi bat badagoela nabarmentzen da, hala ere, aro berri honen erreferentzia teorikoa izan denari ez zaio jaramon gehiegirik egiten eta beste erreferentzia batzuk hartzen dira oinarritzat eta ekintzari dagokionez:

- Herrietako euskararen aldeko herri-ekimenei babesa ematen zaie.
- E.K.B.rekin elkarrizketak izan dira.
- Euskaldunon Egunkaria lagundu beharra aitortzen da.

Bestea, ordea, eragin sozial handiagokoa berau, oraindik aurreko hamarkadako planteamendu berean dihardu eta egun nazio-mailan elkarlan hori garatzeko bi gai nagusienetakoak (Euskaldunon Egunkaria eta helduen euskalduntze eta alfabetatzea) bideratzeke ditu. Momentu honetan nazio-mailan administrazioaren eta herri-ekimenaren arteko elkarlana garatzeko oztoporik nagusienetakoak joera hau da.

POSDATA

Artikulu hau idatzi zenetik hona (1993az geroztik), aldaketa sakonak gertatu dira, idazlan honek aztertzen dituen esparruan:

- Euskara Elkarleen ugalketa, eta nazio-mailako antolaketa (Topagunea).
- Nazio-mailako mugimendu sozialen antolaketa berria (Euskararen Unibertsoa: Euskararen Gizarte Kontseilua).
- Administrazioaren eta *Egunkaria*-ren nahiz Euskaltegien arteko hitzarmenak.
- EHE eta EKBren bilakaera.
- Oro har, diskurtso, jarrera eta praktika aldaketak.

Idazlanaren idatz-data gogoan izan beza, ba, irakurleak, eta gisa berean ondokoetarako azken ohar honetan dioguna ere.

— Paulo AGIRREBALTZATEGI: «Elkarrizketa eta elkarlana». *Euskaldunon Egunkaria*. 93-V-6.
 — Mikel ATXAGA: «Gorrotok ahaztu behar dira, elkarlanerako garaia da eta». *Argia* 93-V-9.
 — J.I. MARKO: «Euskararen paktu soziala». *Euskaldunon Egunkaria*. 93-VI-27.

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALEN ZEREGINA ETORKIZUNEAN

Paulo AGIRREZABALZATEGI

0. SARRERA

Ikastaro honetara bildu gaituen gaia hamaika bider eta alderdi askotatik erabili izan da azken urteotan Euskal Herrian: taldetan, erakunde herritarren txostenetan, aldizkarietako idazlanetan; mintegi bereziak ere antolatu izan dira; UEUko Soziolinguistika sailak ere erabili izan du gaia; gurearen guztiz antzeko titulupean 1985ean Iruñeko Udalak antolatu zituen topaketak¹, Iruñeko kultur sektore ezberdinei mugatua —uste dudanez, hango lanak ez zituzten argitaratu—. Adierazgarria da EHUK ere, HPINekin batera, ikastaro hau antolatu izana: gaiaren garrantzia, gaurkotasuna eta «akademikotasuna» agertzen ditu.

Nik eskainiko ditudan gogoetak ez dira espezialistarenak, baina bai aspalditik euskararen aldeko mugimendu herritarrean saiatu denarenak, eta mila bider taldean nahiz bakarka gai hauei buruz gogoeta eta eztabaida egin behar izan duenarenak. Autore itzaldunengandik edaten eta beraiengan oinarritzen saiatu dela uste dut euskararen aldeko mugimendu herritarra azken urteotan, eta nolabaiteko heldutasuna ere lortu duela, bai teorikoa eta bai praktikoa.

HPINek 1992an egindako egoera soziolinguistikoari buruzko inkestan zoritxarrez ez zegoen galdera espezifikorik mugimendu sozialei buruzkorik². Hala ere, bazegoen 58.G galdera bat, honela formulatuta zegoena: «Esango al zenidake, mesedez, ondoko elkarte edo taldeetako partaide edo bazkide zaren?». Eta elkarte edo talde horietakoen artean «Euskararen

¹ *Iruñeko Euskararen aldeko mugimenduaren topaketak*, 1985eko abenduan Iruñeko Udalen Euskara Zerbitzuak antolatua.

² *Euskara eta gaztelaniari buruz EAEko euskaldun eta ia-euskaldunei egin beharreko inkesta*.

aldeko elkarteak (AED, EHE, EKB, etab.)» zehazten ditu. Oraindik argitaratu ez direnez, ez dakigu zein ondorio ematen duen horrek. Dena dela, horiei edo horrelakoei buruzko iritzirik eta balioztapenik ez da eskatzen galderan.

HPINek berak eskatuta, inkestaren emaitzei neure aldetik egindako iruzkinetan honako hau idatzi nuen: «Hizkuntz politikarako eta bereziki euskararen berreskurapen-plangintzarako funtsezko garrantzia dutela uste dut horren aldeko mugimendu eta ekimen herritarrek. Areago, indar sozialen antolakuntza behar-beharrezkoa dela uste dut, euskalgintzako kultur sailen arabera eta gunee sozialen arabera. Inkestak ez du aintzakotzat hartzen hori, eta ez du, zuzenean behintzat, horretaz galderarik egiten: ez horrelako mugimendu eta organizazioei buruz, ezta norberaren partaidetzari buruz ere. Hutsune nabarmena eta larriegia deritzot; eta nolabait zuzendu beharrekoa». —Partaidetzari buruz esandakoa zuzendu egin beharko nuke, horri buruz galdera bat badagoelako, hain zuzen ere—.

1. TERMINOLOGI ARAZOAK

Hasteko, terminologi arazoa daukagu argitu beharrekoa: mugimendu soziala, gizarte-mugimendua, mugimendu herritarra, herri-mugimendua (eta horiekin zerikusirik duten erakunde publikoak, batetik; erakunde sozialak, erakunde herritarrak edo herri-erakundeak, bestetik; erakunde pribatuak, azkenik)³.

«Erakunde» hitza oso abstraktua da: bereziki Soziologiaren eta Zuzenbidearen alorrekoa. Helburu jakin baten inguruan ekintza iraunkorrak hartzen duen forma juridikoa dela esan genezake. Alde horretatik erakundeak oso ezberdinak izan daitezke beren status sozial edo ofizialari begira. Hiru bereziko nituzke funtsean: erakunde publikoak, herritarrak (edo sozialak) eta pribatuak. Era berean, forma juridiko ezberdina izan dezakete: elkarteak, federazioak, sindikatua, baltzu merkantila (S.A., etab.), instituzio publikoa edo erdi-publikoa, etab. Talde informala ez dugu benetako erakundetzat hartzen.

Euskarazko terminologi arazoa ere badugu hemen. «Mugimendu soziala» eta «gizarte-mugimendua» «herri-mugimendua» eta «mugimendu

³ Joxe Iñigok oharrarazten gaitu alor honetako termino ugaritasunaz: «Gure artean izen asko erabili izan da eskuarterean dugun gaiar aritzerakoan: herri mugimendua, herri erakundeak, gizarte erakundeak, herri ekimena, inizatiba soziala, organismo herritarrak, eta guzti horien arteko beste hainbat konbinaketa posible» («Euskararen gizarte mugimenduaren bilakaera. Herrietako euskara elkarteen kasua» in: *I. Jardunaldiak soziolinguistikaz*, Bilbo, 1992, 206 or.). Autore berak adierazten duenez, horiek denak ez dago noski baliokidetzat hartzerik.

herritarra» («erakunde herritarrak» eta «erakunde sozialak», «erakundeak» eta «herri-erakundeak», «erakunde publikoak» eta «erakunde ofizialak»)... Horien guztien artean nahasketa handitxoa daukagu. 1987an *Eguna* astekariaren zuzendariak gai jakin bati buruz iritzia eskatu zien hiru lagunei; horien artean nengoen ni ere, Mari Karmen Garmendia eta Eneko Oregirekin batera. Gaia honela formulatuta zegoen: «Herri-mugimenduen» zeregina...⁴ Erantzunetan terminologia oso ezberdina eta batzuetan kontradiktorioa erabili genuen: Mari Karmen Garmendiak «herri-agintariak» eta «erakunde ofizialak» erabili zituen administrazio publikoaren ardura dutenak adierazteko; Oregik, «herri-erakundeak», «herri-administrazioa», Mari Karmen Garmendiak esan nahi zuen gauza bera adierazteko, eta «herri-erakundeak» eta «erakunde herritarrak» bereizi zituen; azken hauek gizartetik sorturikoak izendatzeko erabili zituen. «Erakunde herritarrak» terminoarekin batera, «talde herritarrak» eta «mugimendu herritarra» ere erabili zituen. Hona hemen laukian hiru autoreek erabilitako terminologia:

	Administrazio publikoa	Organizazio soziala
M.K. Garmendia	herri-agintariak erakunde ofizialak erakundeak erakunde publikoak	erakunde herritarrak
Eneko Oregi	herri-erakundeak herri-administrazioa mugimendu herritarra	erakunde herritarrak talde herritarrak
P. Agirrebaltzategi	erakunde ofizialak administrazio publikoa	erakunde herritarrak herri-mugimendua

BAT. Soziolinguistika Aldizkaria-k zenbaki monografiko berezia (6.a) argitaratu zuen 1992an, «Euskararen Herri-mugimendua» gaiari buruz. Bestelako lankidetzen eta ekarpenen artean, alderdi politikoei egindako galdeketa dago, goian adierazi denez; horietako bostek erantzun zuen. Aldizkariak berak baliokidetzat jotzen ditu «herri-erakundeak» eta «erakunde herritarra», «herri-mugimendua» eta «mugimendu soziala»; eta horiekiko aurrez

⁴ Neronek TXEPETXEN *Un futuro para nuestro pueblo. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, San Sebastián, 1987, liburuaren inguruan *Jakin* aldizkarian idatzitako artikuluan hartu zuen oinarria kazetariak, hiruron iritzia zehazteko, artikulua hartan erabilitako «erakunde ofizialak» eta «erakunde herritarrak» terminoak aipatuz.

aurre edo, erabiltzen du «erakunde publikoa» terminoa. Kontuan edukirik, erantzuleetako batzuentzat behintzat eragina eduki dezakeela galderaren formulazioak eta terminologiak, honako termino hauek erabili zituzten aldizkariak eta alderdi ezberdinetako erantzuleek:

	Administrazio publikoa	Organizazio soziala
BAT Aldizkaria	erakunde publikoa	erakunde herritarra herri-erakundea herri-mugimendua mugimendu soziala
EA	herri erakundeak erakundeak	herritar-mugimendua herri-mugimendua
EAJ	herri-agintaritza	gizarte zibila
EB	erakunde publikoa	gizarte mugimendua herri erakundea (honetatik «erakunde pribatua» bereizten du) mugimendu herritarra
EMA	erakunde publikoa	erakunde herritarra herri erakundea mugimendu soziala sozial mugimendua
EUE	erakunde publikoa	erakunde herritarra
HB	botere publikoa administrazio-egitura	herri-erakundea herri-mugimendua mugimendu soziala
Zutik	instituzioak erakundeak	mugimendu soziala erakundeak

Zutik-ek ez du ez «herritarra», ez «-herri», ez «publikoa» erabiltzen.

Hasteko, «herria» eta «herritarra» hitzen erabilera nahasia daukagu. Batzuetan Administrazio publikoa edo horren organismoak izendatzeko erabiltzen da «herri-», konposizioan: «herri-agintaritza» (Mari Karmen Garmendia), «herri-administrazioa» eta «herri-erakundeak» (Eneko Ore-gi), «herri-agintaritza» (EAJ), «herri erakundeak» (EA). Ez dago zalantzarik, horietan guztietan, gaztelaniazko «público» hitzaren ordezkoa dela hemen «herri-». Zentzu honetan ez du inork «herritarra» erabiltzen. Beste batzuetan, ordea, «herri-» eta «herritarra», bata nahiz bestea, erakuntza edo organismo sozialak adierazteko erabiltzen dira, bigarren zutabearen argi ikus-

ten denez. Eneko Oregik argi eta garbi bereizten ditu «herri-» eta «herri-tar» formak, «herri-erakundea» eta «erakunde herritarra» aurrez aurre edo ipiniz.

«Erakunde» hitzaren erabilerak ere badu, beraz, nahasterik. Goiko taulan behin baizik ez da erabili hitz hori, alde bietako organismoak adierazteko (Administrazio publikoarenak eta Organizazio sozialarenak); baina normalean hitz espezifikatzailearekin doa termino hori, eta espezifikazioaren arabera, alde bateko ala besteko organismoak adierazten dira. «Erakunde publikoa», Administrazio publikoari bakarrik dagokio taulan; «herri-erakundea» eta «erakunde herritarra», berriz, organizazio sozialei dagozkie ia beti. Eneko Oregiren eta EAren erantzunetan bakarrik agertzen da Administrazio publikoa izendatzeko.

«Erakunde» hitzaren erabilera modernoak azterketa sakonagoa eta zabalagoa eskatuko luke. Zuzenbidean orokorki duen adiera abstraktoaz kanpo —«edozein motatako erlazio juridiko erregulatzen duen arau-multzoa», alegia: jabegoa, ezkontza, salerosketa erregulatzen duena, esate baterako—, Zuzenbide politikoan eta administratiboan edo Soziologian adiera konkretuagoa hartzen du: funtzio eta helburu jakinak dituzten organismo edo asoziazio konkretuak adierazten ditu, normalean arau juridikoez erregulatuak eta beren organoez hornituak daudenak. Gizartearen organizazioari edo erakuntzari dagozkio erakunde konkretuak sortzea. Badirudi gaztelaniazko «institución» hitza baino zabalagoa dela euskarazko «erakundea». Horrela, «erakunde publikoak» edo ofizialak ditugu Administrazio publikoari dagozkionak, ofizialki herritar guztiei begirakoak direnak; «erakunde pribatuak» edo enpresarialak, giza talde jakin baten interesei begirakoak; eta «erakunde herritarrak» edo zibikoak ditugu, helburu kolektiko zabal edo orokorren (publikoren?) bati begira eratuak⁵.

Teorian aski argia baldin bada ere bereizkuntza, ezaguna da zenbat eztabaida sortzen den, erakunde jakinen izaera publikoa, pribatua ala herritarrak (zibikoa) argitzean; definizio juridikoaz at, bestelako irizpideak sartzen baitira sarritan, bereziki erakundearen helburu edo zerbitzu praktikokoarena. Bestalde, hiru motatako erakundeak ez dira sarritan tipologia zorrotzean sartzen, eta juridikoki tartekoak eta mistoak egon ohi dira. Publikotasunaren, herritartasunaren eta pribatutasunaren gaineko eztabaidaren adibide nabarmena izan dugu berriki, ikastolen «publikotzea» dela eta.

⁵ Hiruko bereizkuntza horixe proposatu zuen EKBk 1988an Administrazio Publikoen hizkuntz plangintzari buruzko kongresuan (E. Herri-Administrazioen hizkuntz plangintza. *Planificación lingüística en la Administración Pública*, HAEE/IVAP, Oñati, 1988, 319. or.): «Hiru motatako erakundeak elkarrengandik bereizi behar dira, bakoitzak bere izaera eta funtzioa duelako. Horien oinarri funtzionala ere ezberdina da: erakunde publikoa **boterean** oinarritzen da; erakunde pribatua **konkurrentzian**; erakunde herritarra, **militantzian**. Guzti hori aski garrantzizkoa da, bakoitzaren dinamika aztertzean».

Eztabaida horien barruan dauden benetako arrazoiak ukatu gabe, hemen «erakunde publikoa» (Administrazio publikoari dagokiona) eta «erakunde herritarra» terminoak erabiliko ditut⁶. «Herri-erakunde» alde batera utziko dut, dituen erabilera kontradiktorioengatik, goian ikusi dugunez.

Mugimendu sozialari buruz ari garenean, badirudi ez dagoela horrenbesteko kontradikzio terminologikorik; hori bezala, «herri-mugimendua» eta «mugimendu herritarra» erabiltzen dira. Azken hauek batzuentzat konnotazio «populista» dute, nonbait. Hala ere, gure artean aski zabaldua egoteaz gain, bere justifikazio osoa dutela esan daiteke, hizkuntzak «herriarekin» eta «herritarrekin» duen lotura adierazteko, hitz horien adiera etniko nahiz soziologikoan⁷.

Hemen, beraz, «mugimendu soziala» eta «mugimendu herritarra» (eta herri-mugimendua): biak erabiliko ditugu.

2. EUSKARAREN BERRESKURAPENERAKO MUGIMENDU SOZIALA

Honetara definituko nuke mugimendu soziala, zenbait soziologi teoriari jarraituz: Helburu orokor eta eragingarriren bati begirako ekintza kolektiboa, eutsia eta iraunkorra, gizarteko sektore ezberdinetako jende-multzo handiak erakartzeko eta bateratzeko gauza dena, horietako bakoitzaren interesen ginetik.

«Helburu orokor eta eragingarria» askotarikoa izan daiteke; baina beti da erreforma edo eraldakuntza nahiz iraultza soziala lortzea. Agian, definizioan bertan sartu beharko litzateke «aldaketa sozialaren» kontzeptua⁸.

⁶ Horiexek erabili zituen EKBk kongresu batean aurkezturiko komunikazioan: «Erakunde publiko eta erakunde herritarren arteko elkarlana hizkuntzaren normalizazioan», in: *Herri-administrazioen hizkuntza plangintza. Planificación lingüística en la administración pública*, HAEE/TVAP, Oñati, 1988, 317-324.

⁷ Joshua A. Fishmanek asko erabili du «hizkuntza eta etnizitatea» gaia, hizkuntzaren eta herriaren (kulturaren) pizkundeen arteko lotura nabarmenduz. Aaron Bar Adon-ek, hebraieraren berreskurapeneko mugimendu sozialaz ari delarik, «popular movement» terminoa erabili zuen (*The rise and decline for a dialect. History of the revival of modern hebrew*, Mouton Publishers, Hague, 1975).

⁸ Jokin Apalategik honela definitzen du mugimendu soziala: «Proceso de intervención y de acción de un conjunto de personas más o menos organizadas y más o menos agrupadas con vistas a concluir un programa de reforma social o de transformación de la sociedad» («Movimientos asociativos, movimientos sociales y movimientos de liberación nacional», in: *Movimientos sociales y nacionalismo*, (Jokin Apalategi, edit.), Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Vitoria, 1992, 21. or.). Autorearen iritziz, «aldaketa sozialaren» helburuak bereizten ditu funtsean elkarteak («association») eta mugimendu soziala.

Sortzen ari den edo indartuz doan helburuaren inguruko iritzi kolekti-boaren ispilua eta oihartzuna izan ohi da mugimendu soziala. Azken ba-tez, helburuak bereizten du mugimendu sozial bakoitza, organizazioak baino gehiago.

2.1. Euskara-mugimendu sozialaren helburua

Hizkuntzaren aldeko, bereziki hizkuntza gutxituen aldeko, eta berezi-giago euskararen aldeko mugimendu sozialaz dihardugu hemen.

Horren helburu orokor eta eragingarria euskararen berreskurapena da. Ondo interpretatzen dudala uste dut ikastaro honi eman zaion erdarazko tituluko «revitalización» (= «berpizkunde»), itxuraz R.Y. Bourhis-en «hizkuntz bizitasunari» buruzko teoriarekin lotzen dena.

Euskararen berreskurapen osoa esan nahi da hemen: instituzionala, pertsonala, kulturala eta soziala. Neronek azalduak ditut euskararen berreskurapen osoaren alderdi horiek⁹.

- instituzionala: erakunde publikoen lan- eta zerbitzu-hizkuntza norma-lizatea.
- pertsonala: herritar bakoitza bere premia kultural eta profesionale-tan euskara egoki erabiltzeko gauza izatea.
- kulturala: kulturazko eremu ezberdinetan euskarazko produkzio eta eskaintza kulturala edukitzea.
- soziala: euskalduna euskaraz bizitzeko moduan euskararen erabilera soziala zabalduta egotea.

M.J. Azurmendik «re-normalización» terminoarekin berdintzen du hori¹⁰. Eta honela zehazten du: «1. En todos los aspectos: respecto del «corpus» y respecto del «estatus» de la lengua. 2. Y a todos los niveles:

⁹ Txepetxek (*aip. lib.*, 238. or.) lau alderdi bereizten ditu euskararen berreskurapenean: «el aspecto individual, el social, el territorial y el temporal»; horiek normalkuntzaren «aspecto global» deitzen duen eremuan artikulatzen dira. Beste leku batean (292. or.) diagramaren bidez agertzen du ikuspegi individualaren, sozialaren eta globalaren arteko lotura. Ikuspegi globalaren helburua da: «Optimizar las posibilidades del Euskara en nuestro tiempo histórico». Gure aldetik berreskurapen kulturala deitu duguna, Txepetxen euskaldun osotuaren eta euskara osotuaren kontzeptuen erdi-erdian dago. «Normalkuntza instituzionalari» dagokionez, nolabait ikuspegi sozialean sartuta dagoela uste dut, horren helburutzat «redistribución del poder lingüístico» ipintzen duenez.

¹⁰ «Por “recuperación lingüística”, en nuestro caso respecto del Euskara (= lengua vasca), se entiende: el reconocimiento de una situación de pérdida, de presencia parcial, de la lengua propia, desde el que planificar y actuar para llegar a una situación de normalidad, de re-normalización» («Recuperación lingüística y nacionalismo vasco», in: *Movimientos sociales y nacionalismo* (*aip. lib.*, 67. or.). «Situación de pérdida» delakoak hizkuntzaren minorizazioa eta murriztapena ekarri ditu: hizkuntza gutxitu edo murriztu bihurtzea.

individual, social, en Euskadi o el País Vasco, en los Estados Español y Francés y en la Comunidad Europea» (67. or.).

Ikuspegiak eta mailak zehatzagotzeko, hizkuntzaren «estandarizazioa», «modernizazioa» eta «gaikuntza», horren ezagutza gizarte osora zabaltzea («generalización sociodemográfica del conocimiento»), horren erabilera gizarte osora zabaltzea («generalización de su uso social en todos los ámbitos, o dominio de funcionamiento individual y social, en dicha territorialidad vasca»), erakunde publikoetako erabilera bizia («presencia activa»), herritarren aldetiko atxekimendua eta leialtasuna («adhesión, o lealtad, generalizada»).

«Berreskurapen osoa», bestalde, Txepetxek erabiltzen duen «osotasunaren» teoriarekin lotzen da: euskaldun osotua eta hizkuntza osotua. Osotasun horretara heltzea da normalkuntzaren helburua: «Y el objetivo no puede ser otro, porque no hay otro posible cuando lo que se pretende es vivir con normalidad en un idioma: lograr un desarrollo completo del Euskara, para que el Euskara pueda completarse a través de nosotros, para que nosotros podamos completarnos a través del Euskara»¹¹.

Helburu horren inguruko konpaktazioaren eta baterakuntzaren fenomeno da mugimendu soziala. Euskararen aldeko mugimendu sozialak euskaldun osoen gune trinkoa eta ahal denik zabalena behar du aurrenik, mugimendu osoaren eragile izango dena. Euskaldun osoak, besterik gabe, ez dira euskararen aldeko mugimenduaren muina, antolatu egin behar dira mugimenduaren muina izateko. Hain zuzen ere, euskaldun osoen elkarteak (komunitatea) trinkotzea da mugimenduaren lehen helburuetakoa.

2.2. Euskararen berreskurapen osoa eta herrigintza

Hizkuntzaren berreskurapen osoaren helburua ez da maila linguistiko soilean gertatzen: Herriaren berreraikuntza nazionalaren testuinguruan gertatzen da. Alderdi hau aski nabarmena da Fishmanen pentsamenduan; gauza bera nabarmendu du Mari Jose Azurmendik ere.

Aipaturiko bere artikuluan (73. or.) hizkuntzaren berreskurapen osoaren plangintzaren «suposita» gisa honako hiru hauek ipintzen ditu, besteren artean: a) «...la “recuperación lingüística del Euskara” es, además de lingüística, también social-político-cultural-etc.» ; b) «...es parte de la recuperación general (político-jurídico, económico-social, cultural-etc. del

¹¹ *Aip. lib.*, 191. or. Horri lotzen dio bere «eremu sinbolikoaren» teoria ere: «Definimos el espacio simbólico como el núcleo de hablantes que dotan a su lengua de un desarrollo completo, o, viceversa, correlativamente, el núcleo de hablantes que tienen un desarrollo lingüístico completo en esa lengua» (65. or.).

País Vasco»; c) «...puede considerarse como símbolo, y como buen indicador, de dicha recuperación general, como de hecho se ha solidado interpretar entre los propios vascos».

Herrigintzaren testuinguruan gertatzen da, beraz, hizkuntza gutxituaren (edo erabilera murriztukoaren) berreskurapena; horren zerbitzuan dagoen mugimendu sozialak benetan kontutan eduki behar du hori. Euskalgintza, euskal kulturgintza eta euskal herrigintza, ezberdinak izanik, bereizi ezinak dira. Fishmanek deitzen duen «susperkuntza etnikoa» gure artean «berreraikuntza nazionala» deitzen denarekin bat datorrela ešan daiteke.

Euskararen berreskurapen osoaren aldeko mugimendu sozialari dagokio, noski, euskalgintzari bere dinamika autonomoa, «sustantibotasuna» ematea; bestelako helburu politikoren baten «adjektibotzat» edo politika orokorraren parte soilzat erabiltzen ez uztea; eta herrigintzaren oinarritzat eta erdigunetzat ipintzea. Dena dela, euskararen berreskurapena euskal kulturgintzatik kanpo ipintzea estrategia okerra iruditzen zait.

2.3. Euskara-mugimenduaren leku soziala: elkarte eta mugimendua

Hizkuntza minorizatua bere bizitasunean gutxitua edo murriztua dago. Hemen ez gara hasiko Richard Y. Bourhisen talde etnolinguistikoen hizkuntzaren bizitasunaren («ethnolinguistic vitality») teoria agertzen. Baina aipatu behar ditugu berak ematen dituen hiru faktore-multzoak, bizitasun horren neurria erakusten dutenak: 1. Estatusari dagokiona (hiztunen estatus ekonomikoa, soziala, sozio-historikoa eta hizkuntzaren beraren estatusa beste hizkuntzen eta kulturen artean); 2. Demografiari dagokiona (hiztunen pisu demografiko absolutua eta horien banaketa lurraldean); 3. Euskarrizta eta kontrol instituzionalari dagokiona (maila ezberdinetako erakunde publikoetan nahiz erakunde eta jarduera pribatuetan duen eragina eta ordezkari, informala nahiz formala)¹². «Ordezkarizta informala» talde etnolinguistikoak duen bere buruaren erakuntzarako gaitasuntzat hartzen du: «presio-talde» izateko eta bere interes etnolinguistikoak maila ofizial nahiz pribatuetan defenditzeko¹³. Mugimendu soziala «presio-talde» baino gehiago dela uste dudan arren,

¹² «The Genesis of Vitality theory: Historical patterns and discursal dimensions», in: *International Journal of the Sociology of Language* (1993an argitaratzeko artikulua).

¹³ «Informal support refers to the degree to which an ethnolinguistic group has organized itself as a “pressure group” to represent and safeguard their own ethnolinguistic interests in various state and private activities including education, mass media, government services, business, finance, etc.» (*aip. art.*, 2. or.)

badirudi «ordezkaritza informal» horren hurbilekoa dela, Bourhisek azaltzen duenez. Beraz, hizkuntz bizitasuna neurtzeko faktoreetako bat da, alde horretatik, mugimendu soziala.

Hizkuntz plangintzak bezala, hizkuntz mugimendu sozialak ere hiru faktore-multzo horiek eduki beharko ditu kontuan, bere ekintzaren bidez hizkuntz bizitasun handia lortzea baldin badu bere helburua; baina aldi bakoitzean indarrak handiena batean ala bestean ipini beharko du, egoeraren, lehentasunen eta ekintza-planaren arabera.

Hizkuntz berreskurapenaren aldeko mugimendua eta hizkuntz elkarteak («comunidad lingüística») bereizi behar direla uste dut. Hizkuntz elkarteak da mugimenduaren oinarria: abiaburua eta helburua. Ez dira biak inola ere kontrakoak; baina ez dira gauza bera. Elkarren osagarriak direla esan daiteke. Mugimenduak hizkuntz elkarteak zabaltzea eta osotzea bilatzen duen bezala —gizarteko «inpaktazioaren» bidez—, elkarrekin hiztunen «konpaktazioa» bilatzen du zuzenean, baina gizarte osoari eragiteko. Azken aldian ugaritu diren elkarrekin —herrietakoak eta beste— ez dira, egia esan, elkarrekin soilak, badira mugimendu sozialak ere¹⁴.

Mugimendu sozialak —baita hizkuntzaren aldekoak ere— indar politikoa lortzera jotzen du, eta azken batez botere politikoa lortzera. Txepetxek normalizazioaren ikuspegi edo dimentsio sozialari ematen dion helburuak —hizkuntz boterearen banaketa berria, «redistribución del poder lingüístico» (205. or.)— euskararen berreskurapen osoaren aldeko mugimendu sozialaren jokabidean garrantzi handia duela uste dut, beharago mugimendu sozialaren eragin politikoari buruz hitz egitean agertuko denez.

2.4. Euskara-mugimendu sozialaren berezitasuna

Esana dugu mugimendu sozialak gizarteko aldaketa jakin bat izan ohi duela helburutzat: pentsaera eta jokabide kolektiboaren aldaketaz gain egitura sozialen —eta agian juridikoen eta politikoen—, aldaketa bilatu ohi dute.

Hizkuntza gutxituaren edo murriztuaren berreskurapen osoari buruzko mugimendu soziala oso berezia da, ez baita aldaketa mental eta instituzionalari buruzkoa bakarrik; mugimendu espaziala da: «leku lin-

¹⁴ Badirudi Txepetxek ere osagarritzat eta batean ikusten dituela elkarrekin eta mugimendua. «Euskaldungoaren formulazio politiko independenteari» buruz hitzegitean (272. or.), honako ohar txiki hau dakar beste autore baten hitzen iruzkin gisa: «Creemos que esos mass-media no pueden ser otros que el **diario** y mass-media locales, etc. euskaldunes que aglutinen la causa de la normalización social del Euskara. Y que el *movimiento social* conectado con él ha de ser un amplio frente euskaldún o Euskal-Elkartea que lidere y coordine a la comunidad lingüística en su reconstrucción nacional» (179. or.).

guistikoz» aldatzea, galdua duen eta normaldu nahi duen hizkuntza berreskuratzeko komunitate linguistikoak eta gizarte-sektoreek burutzen duten bidegintza.

Euskarari dagokionez, honen «geografia soziolinguistikoak», lagun bakoitzak eta talde soziolinguistiko bakoitzak bere bidea egin behar du, «positibizazio-» eta «optimizazio-» prozesuaren bitartez, euskaldun «oso» izatera heltzeko asmoz, Txepetxen hizkera erabiliz¹⁵. Gizarte osoak eta herritar bakoitzak du bere erantzukizun pertsonala euskararen berreskurapeneren prozesuan.

Txepetxen arabera, euskaldun osoa (osotua) bitarikoa izan daiteke: «jatorrizko landua» edo «heldu jatorrizkotua». Euskaldunaren osotasuna lotuta dago hemen euskararen berreskurapen osoari; hizkuntzaren osotasuna eta hitzunenaren osotasuna errealitate berberaren bi ikuspegiak besterik ez baitira.

Hizkuntz plangintza errazionalak egoera ezberdin horiek hartu behar ditu kontuan, optimizazio-paradigmaren arabera. «... en el proceso de normalización el individuo ocupa un lugar central: si los hablantes individuales no incrementan su capacidad en Euskara, el idioma no se normaliza. Pero para que ellos conozcan cada vez mejor el idioma es necesario que el proceso esté sostenido y mocionado desde un aumento simultáneo de la valoración del idioma y de un incremento de su uso social. Si uno y otro no crecen hasta el nivel de suficiencia, los tipos lingüísticos individuales no pueden desplazarse hasta el tipo continuo que representa su optimización inmediata» (239. or.).

Horregatik errebindikazaitailea¹⁶ izateaz gain —eta horren aurretik—, praktikoa, egilea eta eragilea da euskararen berreskurapen osorako mugimendu soziala: euskalgintzan eta euskararen alde dihardutenen mugimendua da. Euskararen berreskurapenerako herritarren ekimenean eta horien ekintza banakako nahiz taldekako eta kolektiboetan oinarritzen da euskararen berreskurapenerako mugimendua.

¹⁵ «La normalización es la suma de la **optimización** de los nativos de la Comunidad Lingüística con la **positivización** de los no-nativos del territorio lingüístico específico de ella» (*aip. lib.*, 290. or.). Hizkuntzaren berreskurapenean lagun bakoitzak egin behar du bere mugimendua, pertsonalki lekuz aldatu, «desplazatu», behar du mugimendu kolektiboan («Optimizar consiste en desplazarse hacia el tipo continguo que representa su mejor situación dentro de la lengua, y una mejor situación de la lengua dentro de él», 233. or.). «Positibizazioaren» eta «optimizazioaren» teoriak horixe besterik ez dira: desplazamendu soziolinguistikoak. Talde soziolinguistiko bakoitzak bere lekua betetzen du geografia soziolinguistikoan; horietakoren batean kokatzen dira tipologia bakoitzeko lagunbanakoak; orduan, hizkuntzaren berreskurapen osorako gizarte osoak, eta horren barruan gizabanako bakoitzak, egin behar du bere leku-aldaketa, hizkuntza minorizatuko «hiztun osoa» izatera iritsi arte. («Optimizazioaren paradigmari» buruz ik. 265. or.; eta «positibizazioaren paradigmari» buruz, 287. or.).

¹⁶ Ik. Jokin APALATEGI, *aip. lib.*, 22. or.

3. EUSKALGINTZAKO ERAKUNDE HERRITARRAK ETA MUGIMENDU SOZIALA

Euskararen aldeko mugimendu soziala askotarikoa da. Kultur sektore ezberdinetako, herrietako eta eskualdeetako talde, elkarte eta erakundee-tan gauzatzen da aurrenik¹⁷. Euskararen berreskurapenerako mugimendu soziala euskalgintzan diharduten talde, elkarte nahiz erakunde sozialetan oinarritzen eta osotzen da. Sektore kulturaletan dihardutenak nahiz sektore sozial eta barruti geografiko ezberdinetan dihardutenak izan daitezke horiek. Hainbat talde, elkarte eta erakunde ari da lanean: euskarazko irakaskuntzan, alor ezberdinetako euskarazko kulturagintzan, euskarazko komunika-bideetan, euskararen erabilerarako talde edo elkarteetan.

Euskalgintzaren alorreko organizazio sozialean —alde batera uzten dit Administrazio publikoa eta beraren erakunde eta organismo ofizia-lak—, hiru erakunde-mota bereiz daitezke:

- Tekniko-enpresarialak¹⁸: Euskalgintza-alorreko enpresa gisa eratuta dihardutenak, non langileek beren lanbidea eta irabazpidea bertatik baitituzte. Jakina, organizazio oso ezberdinak daude horien artean.
- Profesional-sindikalak¹⁹: Lanbide espezifikotan dihardutenek, beren interes profesionalak, laboralak eta gremialak babesteko sortuak.
- Herritar-militanteak²⁰: Herritarren militantzian oinarriturik, euska-raren eta euskal kulturaren aldeko defentsa, gizarte-jaberazpena, eta orohar euskararen erabilera zabaltzea, bilatzen dutenak; erakunde

¹⁷ Hemen aipatzekoa da berriro Joxe Jabier Iñigoren artikulua (ik. 3. oin-oharra). Bertan ere adierazita dagoenez, BAT soziolinguistikako aldizkariak sail berezia du, «Euskarak elkar-turik» izenekoa, euskararen aldeko erakunde herritarren berri emateko; bestalde, 6., 7. eta 8. zenbakietan euskararen aldeko erakunde herritar eta mugimendu sektorial eta lokalen panora-ma globala ematen saiatu da aldizkaria.

¹⁸ Horien artean jar genitzake: a) *Irakaskuntzan*: ikastolak eta horien Konfederazioa, UEU... b) *Euskararen irakaskuntzan*: AEK, Ikastari, Euskaltegi homologatuak... c) *Komunikabideetan*: euskarazko aldizkari pribatuak, herrietako hainbat aldizkari euskaldun, «Euskaldunon Egunka-ria», euskarazko zenbait irati pribatu... d) *Ikuskarietan*: euskal zinegintzako enpresak, antzerki-talde profesionalak...; e) *Euskararen inguruko zerbitzu zientifiko eta sozialak*: SIADECO, itzul-pen-enpresak, bestelako zerbitzuak... f) *Euskararen estandarizazio-lanean dihardutenak*: UZEI, Elhuyar, EUSENOR...; g) Funtsean euskaraz diharduen hainbat editorial...

¹⁹ Horietakoak dira, adibidez: Idazleen elkarte, Itzultzaileen elkarte, Irakasleen elkarte, Euskal kazetarien elkarte, etab. EIE (Euskal Itzultzaileen Elkarte)k honela definitzen du bere burua estatutueta 2. artikuluan: «EIE profesional elkarte bat da, bere arautegiko xedeak betetzen jarduteko nortasun eta gaitasun juridiko osoa duena».

²⁰ Horietakotzat jo genitzake: auzoetako eta herrietako euskararen aldeko elkarteak eta koordi-nakundeak, kultur sektoreetako (irakaskuntzako eta bestelakoetako) errebindikazio- eta erabiler-a-taldeak (EKTak, Euskaraz Bizi, etab.), Administrazio publikoko, zerbitzu sozialetako eta enpreseta-ko euskara taldeak, bereziki horren erabilera bultzatzeko (OEE —Osasungoa Euskalduntzeko Era-kundea—, etab.); euskararen erabilera-taldeak; euskararen aldeko herrialdeetako edo nazio mailako erakundeak: EKE, EHE, Oinarriak, EKB... Horietako askok beren komunikabide sozialeko orga-noak dituzte; areago, horietako batzuk komunikabide-organoren baten inguruan eratuak daude.

publikoen eta bestelakoen aurrean horren errebindikazioa egiteko eta bestelako eragin soziala izateko.

Erakunde herritarren tipologia hori ez da itxia. Tipo bakoitzean, funtsezko kidetasunaren barruan, oso ezberdinak aurkituko ditugu, izpirituz, organizazioz, helburuz, jokabidez, etab. «Tekniko-enpresarialak» deitu ditugun batzuk herri-mugimendutatik sortuak dira, eta halakotzat hartzen dira: Ikastolen mugimendua, alfabetatze-euskalduntze mugimendua... Ikastolen konfederazioan, AEKn eta Euskaldunon Egunkaria-n, adibidez, sail espezifikoko enpresa teknikoa eta mugimendu soziala, batean eta elkarren eraginean bizi direla esan daiteke, edota erakunde tekniko-enpresarialaren inguruan mugimendu soziala bizi dela.

Horiek denak dira —taldeak, elkarteak, koordinazioak, federazioak, konfederazioak—, euskararen berreskurapenerako mugimendu sozial zabal eta globalaren oinarria. Hala ere, mugimenduaren erdigunea hirugarren mailan dago; horiekiko hurbiltasunaren arabera, beste tipo bateko erakundeak, elkarteak eta enpresak inguratuko dira euskararen aldeko gizarte-mugimendu zabala eratzerara. Baina euskararen aldeko mugimendu soziala, beraren berezitasunagatik, hain zuzen ere, ezin da hirugarren tipokoetara bakarrik mugatu.

Mugimendu sozialak ez du elkartearen, sindikatuaren, edo alderdi politikoaren erakuntza izaten, lazoagoa, malguagoa eta mugikorragoa baizik. Baina beti izan ohi du nolabaiteko antolamendua eta, batez ere, helburu jakin bat, denak bateratuko dituen, bestelako ideologiaren eta taktikaren gainetik.

Laburtuz, euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde sozialen ekintza bateratua eta antolatua dela esan dezakegu euskalgintzako mugimendu soziala. Euskararen aldeko mugimendu soziala sektore bakoitzean edo leku ezberdinetan sortu eta eratu diren taldeen zabaltzetik eta koordinatzetik eratuko da. Horregatik, euskalgintzako mugimendu soziala euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren baterakuntza dela esan dezakegu, helburu jakin baten inguruan eratua.

4. EUSKARA-MUGIMENDUAREN BARNE-ARTIKULAZIOA ETA KANPO-ERAGINA

Euskararen aldeko mugimendu sozialak oraindik gehiago zabaldu eta eratu beharra dauka sektore kultural guztietan eta hiri-herri-auzoetan. Kontu handikoak dira azken urteotan hainbat herritan eratu diren elkarteak, batez ere euskararen erabileraren inguruan; horiek ugaritu eta zabaldu egin behar dira.

Horrelako erakunde herritar sektorialak eta lokalak izanik euskararen aldeko mugimendu sozialen mundua, galdera da nola artikulatzen diren horiek denak beren artean eta ekintza sozialerako gizarte-mugimendu orokor gisa.

4.1. **Koordinazioa eta konfederazioa**

Euskararen berreskurapenerako plangintzak eta politikak sektore-arte-koa eta globala izan behar du, benetan eraginkorra izan dadin. Horren euskarri izango den mugimendu sozialak ere globaltasuna behar du, Euskal Herri osoa besarkatuko duena, eskualde eta herrialde bakoitzeko egoera soziolinguistiko ezberdinak kontuan edukiz. Erakunde sektorialen eta lokalen arteko koordinazio eta artikulazio bizian gauzatu behar du mugimendu sozial orokorrak.

Horren artikulazioak malgutasuna behar du, erakunde bakoitzak bere autonomia osoa duelako. Forma juridikoez kanpo, konfederazioaren izpiritua eta funtzionamendua egokiak lirateke.

4.2. **Eragin politikoa**

Orain dela urte batzuk, euskararen aldeko mugimendua alderdi politiko bihurtzeko proposamena kaleratu zuen Joxe Manuel Odriozolak. Alderdi politikoek euskararen arazoa benetan hartzen ez bide zutelako egin zuen proposamen hura. Horrek ez zuen oihartzun handirik eduki euskalgintzako jendeen eta indar sozialen aldetik.

Hala ere, euskararen arazoa ez da apolitikoa; eta horren berreskurapenerako prozesuak plangintza politikoa eskatzen du.

Mugimendu sozialen aldetik ere ezin da euskararen berreskurapenerako plangintzaren planteamendu kultural soila edo apolitikoa egin. Euskararen aldeko mugimendu sozialak eragin politikoa bilatu behar du eta, horretarako, baliabide politikoak erabili behar ditu: hau da, organo politikoetan, alderdietan, parlamentuetan eta maila ezberdinetako administrazio publikoetan eragiten saiatu behar du. Nola? Hortxe dago koska. Eztabaida luzea dagoela uste dut hemen; mugimendu sozialak sakondu beharrekoa. Baina bere autonomiatik eta gizartearen eragin-zentro bihurturik, eragin politikoa bilatu behar duela ez dago zalantzarik: eragin positiboa, proposamen konkretuez landua, ez errebindikazio hutsezkoa²¹.

Nire ustez, horrelako mugimenduaren eragin politiko, errealista eta benetakoa, alderdi politikoaren bitartez kanalizatu behar da. Lau baldintza bete beharko ditu horrek:

- a) Alderdi guztietatik guztiz autonomia izatea mugimendua.
- b) Mugimenduko jendea alderdietan sartuta egotea, barrutik eragiteko.

²¹ Meta-partiduren bat eratuz? Horrelako joerarik sortu izan da gurea bezalako mugimendu sozialetan. Dena dela, meta-partidu hori zer izango litzatekeen argitu beharrekoa da. Argi dago alderdi politikoaren organizaziorik ez lukeela beharko.

- c) Mugimenduko jendeak bere lehen militantziatzat euskararena edukitzea, eta ez alderdiarena; horregatik, ez litzateke onartuko mugimenduko inolako arduradunek kargu eta ardura ofizialik edukitzea alderdietan.
- d) Mugimendua gauza izatea alderdi politikoei baldintzak jartzeko; eta betetzen ez dituenari botoa ukatzeko kanpaina egiteko, adibidez.

Dena dela, euskararen aldeko mugimendu herritarrak ez du azpiko indar faktikoren bat izan behar, oso gardena eta agerikoa baizik, herritarren partaidetza pertsonalean oinarrituko dena, eta herritarrengan eragingo duena, alderdi politikotik eta erakunde publikotik baino lehenago. Baina ezin da euskararen berreskurapena herritar indibidualen borondateak irabaztean bakarrik geratu. Horien eta ekintza politikoen arteko elkarrengina bultzatu behar da.

4.3. Euskara-mugimendu soziala eta «proto-eliteak»

Hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak liderrik behar duenik ez dirudi, komunitatea bera delako horren erdigunea eta erreferentzi puntu nagusia. Baina horren barruan eliteak behar ditu seguruenik, hain zuzen ere hizkuntz komunitatearen barrutik mugimendu soziala antolatuko dutenak: «proto-eliteak» deitzen ditu horrelakoak R.Y. Bourhisek²².

Hebraieraren berreskurapenean irakasleei meritu berezia aitortu ohi diete autoreek. Antzerkigileen garrantzia aipatu izan da bestetan. Dena dela, irakasleak, idazleak, antzerkigileak, edo hizkuntza zuzenean erabiltzen dutenak izan daitezke elite behinenak; hala ere, bestelako elite sozialak ere —kirolariak, politikariak, sindikalistak, etabar—, elite sinboliko garrantzizkoak gerta daitezke hizkuntzaren berreskurapenerako mugimendu sozialaren barruan, benetan euskaldun osotuak direnean.

4.4. Euskara-mugimenduaren sektore eta erakunde motoreak

Badirudi euskararen aldeko mugimendu soziala dinamizatzeko sektore motoreren bat behar dela, eta horren barruan, erakunde itzaldunen bat. Aldi bakoitzean lehentasuna duen sektorea mugimendu osoaren erreferentzia izango da.

Gai hau bereziki aztergaitzat uzten dut hemen, gehiago zabaldu gabe. Baina sakonki aztertzea merezi duela iruditzen zait.

²² Autoreak, Fishman aipatuz, honela dio: «Gains in institutional control often depend on the emergence of activists and proto-elites who succeed in mobilizing ethnolinguistic groups in favor of their own language, culture and ethnic survival in the intergroup setting» (*o.c.*, 2. or.).

5. MUGIMENDU SOZIALA ETA PLANGINTZA INSTITUZIONALA

Edozein mugimendu sozialek bere helburuak instituzionalki segurtatu-ko eta bultzatuko dituen erakunde publikoak sortzera jotzen du. Euskararen normalkuntzarako gaur egun ari diren erakunde publiko-ofizialak (HPIN eta HPZ, HAEE, HABE, EITB, administrazio publikoetako euskararen normalkuntzarako zuzendaritzak, zerbitzu teknikoak, euskaltegiak, etab.) mugimendu horren lorpenak direla esan daiteke.

Euskararen aldeko mugimendu sozial historikoak erakunde publikoen aurka ahalegindu behar izan du sarritan eta luzaroan, horiek euskararen aurkakoak zituelako. Eta bere amets eta premietako bat izan du, euskararen aldeko erakunde publikoak edukitzea. Kontradiktorioa litzateke orain anti-instituzionalismo sistematikoa egitea, erakunde publikoak euskararen aldeko plangintzan eta politikan nolabait saiatzen diren bitartean. Izan ere, euskararen aldeko mugimendu sozialaren ikuspegitik erakunde publikoei dagokie horren berreskurapen osorako plan tekniko-politikoak egitea eta hori programa politikoetan betetzea²³.

5.1. Euskara-mugimendu sozialaren «publikotasuna»

Definizioz mugimendu soziala ez da publiko-ofiziala, batzuetan horrek bultzatzen badu ere, alditan horrek eusten badio ere²⁴; baina euskararen aldeko mugimendu sozialak funtzio «publikoa» du, hau da, herritarrei orohar dagokien arazoa hartzen du bere arazo behinentzat: euskararen berreskurapen osoa, «euskara denona eta denontzat» delako baieztapena oinarritzat hartuz.

5.2. Mugimendu sozialaren protagonismoa

Hizkuntza gutxituen berreskurapen osoari begira, horren aldeko erakunde publikoak eta horren aldeko mugimendu soziala, biak dira guztiz beharrezkoak; eta, hasteko, biak elkarren osagarri. Baina erdigunean hizkuntz

²³ «Euskal aginte politikoaren eta Administrazio publikoaren erantzukizuna eta egitekoa da aurrenik eta nagusienik plangintza hori egitea eta gauzatzea» baieztatu zuen EKBk aipaturiko «Euskararen plangintzarako Oinarriak» bere dossierrean (27. or.). Hizkuntz komunitatearekiko erakunde publikoak izan daitezke: a) kontrakoak, b) «aldekoak» baina kanpokoak edo periferikoak, c) barrukoak, «botere linguistikoaren banaketa berriaren» bidez lortuak. Horren arabera, mugimendu sozialaren erakunde publikoekiko jokabidea ere ezberdina izango da.

²⁴ Joxe INIGOK (*aip. art.*, 207. or.) honela dio: «Zentzurik zabalenean, beraz, herri-mugimendutzat instituzioen eraginez sortzen ez den guztia har daiteke». «Instituzio publikoak» esan nahi da, zalantzarik gabe. Zabalegia iruditzen zait ikuspegia, erakunde guztiz pribatuak ere barruan sartzen bide dituelako.

komunitatea delarik, bere baitan eratua, eta bertatik antolaturiko hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialarekin: protagonismoa horri dagokio. Botere politikoak, onartuena eta saiatuena izanda ere, ez dauka hizkuntzaren normalkuntza burutzerik mugimendu sozialik ez baldin badago; bestalde, mugimendu sozialak erakunde publikoak behar ditu, plangintza instituzionala gidatuko eta oinarrituko dutenak. Horrexegatik ere, plangintzak berak ezin-ngo du erakunde publikoen monopolioa izan.

5.3. Harreman dialektikoa

Mugimendu sozialak bere autoerakuntza du, autonomia erakunde publiko-ofizialekiko. Bere helburu eta antolakuntzarekin batera, bere ekin-tza-plan globala ere behar du, konpaktazioaren gain gizarte osorako in-paktazioa, eragin praktikoa lortzeko.

Ekintza-planak zinez kontuan eta aintzat hartuko du erakunde publikoen plangintza orokorra. Bestalde, plangintza instituzionalak oinarritzat hartu behar du mugimendu soziala. Erakunde publikoak hizkuntzaren berresku-rapen osoaren aldekoak direnean, —nahiz eta periferikoak izan—, elkarla-na eratu beharra dago horien eta mugimendu sozialaren artean.

Mugimendu sozialaren eta erakunde publikoen arteko harremanak autonomian baina etengabeko komunikazioan oinarritu behar du. Dialek-tikoa deienez harreman hori, dialektikaren hiru momentuen arabera: elkarren funtsezko onarpena, bakoitzaren eginkizun «publiko-sozialare-na»... elkarren kritika... bien arteko elkarlana, harremana sendotuko due-na. Alde bakoitzak duen funtzio publiko-sozial horretan oinarritu behar du, bereziki, kritikak.

5.4. Elkarlana

Elkarrekiko leialtasunean eta bakoitzaren izaera eta organizazioareki-ko errespetuan oinarritu behar dute harreman-elkarlanek.

Erakunde sozialen eta horien artikulazioa den mugimendu sozialaren protagonismoa eta inizatiba erakunde publikoen aldetik onartu ondoren, hiru forma daude elkarlana eratzeko:

- a) erakunde eta mugimendu sozialen ekimenetik sorturiko proiektuei laguntzea,
- b) erakunde publikoen plan konkrituak mugimendu sozialak (sozia-lek) gogoz euskarritzea,
- c) bi aldean artean landuriko proiektuak aurrera eramatea.

Dena dela, onarpen-elkarlan horiek zera eskatzen dute funtsean, era-kunde publikoek militantzian ari diren erakunde herritarren eta mugimendu

mendu sozialaren azpiegiturarako laguntza ematea, beren proiektuak, iniziatibak eta euskarritza bideratu ahal ditzaten, beren zerbitzu soziala bete dezaten. Euskararen aldeko «militantearen» estatutua beharko genuke landu.

6. EUSKARA-MUGIMENDU SOZIALAREN ETORKIZUNA

Euskararen aldeko mugimendu soziala urte ilun-luzetan oso garrantzizkoa izan dela zalantzan jartzetik ez dagoela uste dut²⁵.

Mugimendu sozialak euskalgintzan ukan duen garrantziaz eta azken urteotan horien jokabideaz, ahultasunaz nahiz susperduraz eduki daitekeen iritziaz aparte, badirudi aurrera begira azken urteotan euskalgintzan ari diren indarren artean ezezik, alde politikoen artean ere badagoela iritzi-baterakuntza nabarmena, euskararen berreskurapenerako mugimendu sozialak duen garrantziari eta protagonismoari buru.²⁶

Joxe Manuel Odriozolaren («Euskararen aldeko herri-mugimenduak: praktika eta teoriaren arteko uztardura», in: *Bat*, 36-37) artikuluari helduz, bi aipamen txiki egingo ditut hemen. Euskalgintzako «herri-mugimenduen» indarra eta eragina ahuldu egin diren ustea jasotzen du, eta horren zergatia argitzeko hipotesi batzuk eskaintzen ditu. Hipotesiak hipotesi, errealtatea berretsi nahi du bere aldetik: «Ez dakigu zehatz-mehatz praktikaren maila ezberdinak nola uztartzen diren teoriaren ekarpen-eskuharmenekin.

²⁵ EAEko autonomi estatutuak ekarri zuen aldaketa politikoa hasiera hartan. Euskalgintzan eta euskal kulgurgintzan ordurarte oinarriko mugimendu sozialek izandako protagonismoa airtortuz hasten da agintaritza autonomiko berria, 1980-1984 urteetarako *Egitamua*-n: «Hasta el momento actual, el movimiento cultural y educacional vasco se ha apoyado casi exclusivamente en la iniciativa entusiasta de los ciudadanos. Carente de medios, carente de las infraestructuras mínimas, enfrentándose tantas veces con la hostilidad del mundo oficial, ha constituido una auténtica acción popular, presentándose, por encima de las diferencias ideológicas, como una constatación y una reivindicación permanente y fundamental de la identidad del Pueblo Vasco» (70 or.). Euskal kulturari buruz orokorki esaten duena, berezikiago esaterik dago noski euskarari buruz. Beherago dioenez, horiek ez dute galduko beren protagonismoa: «En Euskadi se da con fuerza una actividad inmensa popular y participativa de estos grupos culturales privados, especializados en general en la práctica de actividades muy concretas (...). Esas organizaciones populares y autogestionarias han tenido y siguen teniendo un protagonismo decisivo en la conservación y en el robustecimiento de la identidad colectiva» (115. or.). «Grupos culturales privados» deitzen ditu hemen, «organizaciones populares y autogestionarias» deitzen dituen bezala. Seguruenik idazlearen buruan «públicos» eta «privados» bereizkuntza soila dago.

²⁶ Hona hemen *Bat* aldizkariaren inkestari emandako erantzunetan agertzen diren esaldiren batzuk: «... norbanakoen nahiz hiritar multzoen egitekoa, lehen mailakoa dugu euskararen berreskurapenerako bidean»; «Lehen mailakoa da erakunde herritarren eta norbanakoen eginkizuna...» (EUE). «Baiezpadakoa» eta «biziki inportantea» deritzo EMAk. Horien eginkizuna «ezinbestekotzat» jotzen du HBk. Dena dela, horrelako hitzetan baino hobeto ikusiko da hori, aurrera begira horiei esleitzen dizkieten eginkizunetan.

Badakigu ordea herri-mugimenduen eragin-indarra gezaldu egin zaigula azken bolada honetan. Honetan aho batekoak dira beste gauza askotan ez ahoz eta bestez batera ez datozenak ere». Mari Karmen Garmendiaren eta Joxe Agustin Arrietaren iritziak dakartza.

Horiek, ordea, emana digute baita ere beren iritzia herritarren protagonismoa suspertu beharraz euskararen berreskurapenerako: «Gizarte zibilaren protagonismoak garrantzi handia du, handi-handia (...) Galdu egin da gizartearen protagonismoa, eta hori errekuiperatu egin behar da» (M. K. Garmendia, *Egin*, 1989-10-09). J.A. Arrietak, bere aldetik, honela dio *Bat* aldizkariaren aipatu inkestari erantzunez: «Euskara jadanik hilik edo hilurren ez badago, mugimendu sozial euskaltzaleen ekimenari zor zaio neurririk handienez, dudarik gabe (87. or.). Hori sendotu beharra azpimarratzen du.

6.1. Aurrerako hiruko jauzi kualitatiboa

Euskalgintza garai oso garrantzizkoan —larrian—, dago, hain zuzen ere mugimendu herritarrari eta beraren protagonismoari dagokionez. Azken urteotako zailtasun ezberdinak gaindituz, jauzi kualitatiboa egiteko unean gaudela esan daiteke, euskararen berreskurapen osorako plangintza orokorrari bultzada berria emateko.

Hiru urratsok funtsezkoak dira horretarako:

- a) Euskararen berreskurapenerako mugimendu sozialaren funtsezko kotasuna eta protagonismoa onartzea; horren ondorioetako bat, horien azpiegiturak diru publikoz egokitasunez finantzatzea izango da.
- b) Mugimendu sozialaren zabaltzea eta koordinaziorako forma bizia bilatzea. (Beherago zehazkiago aipatuko dugu puntu hori).
- c) Erakunde sozialen —oro har, mugimendu sozialaren—, eta erakunde publikoen arteko komunikazioa eta elkarlan berria eratzea. Elkarlanaren baldintzak, formak, metodoak eta ekintza konkretuak definitu behar dira; badirudi horiek, neurri batez, elkarlanaren dinamikan definitu ahal izango direla.

6.2. Baldintzak

Orain arte esandakoen arabera, uler daiteke baldintza behinena honako hau dela: euskalgintzako erakundeengan oinarrituriko mugimendu soziala gizartearen erdigunean jartzea, gizarte osoari (bertako erakunde pribatu, sozial eta publikoekin) barrutik eragiteko, euskararen berreskurapen osoaren bidegintzan.

Bestalde, euskararen berreskurapenerako mugimendu sozialak bere oinarri «ideologikoa» behar du, edozein mugimenduk bezala; mugimendu osoaren bateratzaile eta eragile izango dena.

Hiru puntuotara bilduko nuke hori:

- a) Herriaren kontzeptu komunitarioa —kultur eta hizkuntz komunitatea—, eta horri darion herrigintza: Hizkuntza herritar guztiona eta guztiontzakoa da.
- b) Hizkuntzaren «erdigunetasuna»: hori herriaren «bihotza» da, bertsolariak esan zuenez; eta norberarentzat eta herriarentzat euskararen berreskurapena euskaraz bizitzea da.
- c) Hizkuntz eskubide kolektiboak: hizkuntza bera fenomeno kolektiboa da. Hizkuntzaren berreskurapen etiko-juridikoa oso garrantzizko dela uste dut.

Aldendu egin beharko litzateke, euskararen berreskurapen osoa inolako gatazka sozial eta politikorik gabe egingo den ustea. Hizkuntza minorizatua dagoenean, gatazka bertan dago, barnean. Eta hizkuntzen arteko gatazkak ez dira asmatzen, egon daude edo sortu egiten dira. Zenbat eta kontsentsu sozial handiagoa lortu, orduan eta hobeto joango da hizkuntz politika. Mugimendu sozialak hori bilatu behar du. Baina aginte politikoa-ri, aurrenik, hizkuntzaren berreskurapen-politika tinko eta zuzena markatzea dagokio, eta egitea; gatazkarik ez sortzea ez da printzipio absolutua. Horiek bideratzea eta konpontzea da Administrazio publikoaren eginkizuna²⁷.

6.3. Ekintza-dimentsioak eta funtzioak

EKBk bere burua euskararen aldeko mugimendu sozialaren zerbitzuko koordinakundetzat edo definitzen du. Honako «jardunbideak» jartzen dizkio bere buruari²⁸:

²⁷ Euskararen egoera soziolinguistikoa aztertu izan duten liburuen titulu ugari dago, hizkuntz gatazka eta borroka adierazten duena. Borrokaren eta gatazkaren hizkera nagusitu izan da sarritan: *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (Euskaltzaindia), *Euskararen borroka* (Jakin 26-27), *Euskararen borroka* (Eusko Jaurlaritza), etab. Orain, berriz, edonolako gatazka eta borroka-kutsuri ihes egin nahi zaio, eta, besterik gabe, kaltegarritzat hartzen da. Gatazka ez da sistematikotu behar, noski, alor honetan, baina gatazkarik eza, bereziki alderdi politikoen arteko akordio hutsaren —eta ez akordio sozialaren bidez—, lortu nahi dena, helburuen eta politika tinkoaren dimisioaren seinale izan daiteke.

²⁸ *Euskararen plangintzarako oinarriak* dossierrean (16. or.) azalduko lau jardunbideak beste era horretara formulatu zituen gerora bere buruaren ezagutzera emateko zabalduko liburuxka batean. Aipatua dugun *Crida a la solidaritat en defensa de la llengua, la cultura i la nació catalanas*-ek ere herri-mugimendutzat definitzen du bere burua; horren sail nagusietako bat, izenak berak nabarmentzen duenez, hizkuntzarena izan du. Hiru ekintza-modu bereizten

- Jaberazpena: Euskararen eta euskal kulturaren aldeko defentsa, jaberazpen- eta mentalizazio-lana.
- Plangintza: Euskararen normalkuntza eta berreskurapen osorako plangintzarako herri-indarren partaidetzaren antolakuntza.
- Ekintza: Euskara eta euskal kulturako ekintzen koordinazioa eta bateratzea.
- Eragintza: Administrazio publikoaren, erakunde sozialen eta politikoen eta zerbitzu sozialen aldetiko euskararen erabilera bultzatzea.

Lehen aipatu dugun inkestan (*Bat* aldizkariak egindakoan) euskal alderdi politikoez honelako funtzioak ipintzen dizkiote euskararen aldeko mugimendu sozialari: gizartea sentiberatzea, erakunde publikoei arazoa aurkeztea eta hautabideak eskaintzea, jendea biltzea, euskaldunak bakoitzaren erantzukinaz oharraraztea, instituzio ofizialei presioa egitea, euskaldungoaren trinkotasun eta baterakoitasunezko praxia bultzatzea, erakunde publikoei eskakizun zehatz eta zorrotzak ipintzea, herritarren euskal kontzientzia eta praxia sustatzea.

Hori dena kontuan hartuta, euskararen berreskurapeneko mugimenduak hiru dimentsiotan jokatu behar duela esan daiteke:

1. Gizarteari begira
2. Kulturgintzari begira
3. Erakunde publikoei begira

6.3.1. *Gizarteari begira*

Gizarteari begira, mugimendu soziala berez da jarrera eta jokabide sozialak aldatzeko (egiturak aldatzeko baino lehenago). Euskarari buruzko jabetasuna eta euskararen aldeko jarrerak eta bakoitzaren erantzukizuna bultzatzea da aurrena; eta horrekin batera euskararen berreskurapen osoaren kontrako erasoei erantzutea. Baina hori baino areagokoa da horren eginkizuna: Euskararen erabilera soziala bultzatzea, alegia, horretarako erabilera-guneak eratuz, zabalduz eta indartuz (euskara-taldeak, txokoak edo aisialdiko ekintzak, sektore ezberdinetako erakundeen hitzarmenak, udalerrri euskaldunak, etab.).

ditu Jordi Sánchezek, Cridaren hizkuntz sailari dagokionez: 1. «Berezko hizkuntzaren erabilpena eragiteko kanpainak, herri osoari zuzenduak» —hiru alderdi ditu horrek: alfabetatze-ikastaroak, hizkuntz eskubideen defentsa, hizkuntzaren erabilera—; 2. «Presio-ekimenak, bai administrazioari —herriko, autonomiko nahiz zentralari— zuzenduak eta bai enpresei zuzenduak...»; 3. «Edukin politiko-ideologikoa duten kanpainak» —elebitasuna gainditzea, Konstituzio espainolaren 3. artikulua aldatzea, Normalkuntzaren lege berria egitea, etab. aipatzen ditu— (ik. «Herri partaidetza eta katalanaren normalizazioa», in: *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, 5 [1991], 52-53 orr.).

6.3.2. *Euskalgintza eta kulturgintzari begira*

Euskalgintza eta euskal kulturgintza batera doaz: horrela joan behar dute. Euskararen berreskurapena eta euskal kulturaren bizkundera mugimendu sozio-kulturalaren bi aurpegiak besterik ez dira. Horregatik, euskararen aldeko mugimenduak euskal kulturgintzako —kreazioko, eskaintzako, eskabideko, erabilerako—, mugimendua izan behar du²⁹.

6.4. **Mugimendu soziala eta erakunde publikoak**

Aginte politikoak, hizkuntzaren berreskurapen osoaren aldekoena izanda ere, ezin du berez eta dekretuz hizkuntzaren berreskurapena lortu³⁰.

Mugimendu sozialaren eta erakunde publikoen arteko harremana euskalgintzako mugimendu sozialaren erdi-erdian dago. Horrek ere argitasuna eskatzen du aurrera begira. Alderdi politikoei egin zitzaien aipaturiko inkestako galderetako bat harreman horiei buruzkoa zen. Hainbat iradokizun interesgarri daude horietan: laburbilduz, esan daiteke erakunde herritarren autonomia eta ekimena eskatzen dutela, baina aldi berean erakunde publikoekiko solaskidetza eta lankidetza bultzatuz, erakunde publikoen alternatiba izan nahia baztertuz³¹.

²⁹ J.A. Fishmanek hizkuntza kulturaren zatia («part»), indizea («index») eta sinboloa («symbolic») dela dio berak editatutako *The rise and fall of the ethnic revival* liburuaren sarrean (XI. or.). Ik. baita ere, P. AGIRREBALTZATEGIren «Perspectiva Antropológica», in: EUSKALTZAINDIA, *El Libro Blanco del Euskera*, 56-78 (bertan hizkuntzaren alderdi antropologikoa azaltzen du, hizkuntzaren eta kulturaren, hizkuntzen eta kulturen arteko harremana).

³⁰ Oso zorrotzak dira Txepetxen hitzak horri buruz: «La primera superstición que los hablantes de una lengua minorizada deben dejar de lado es la muy extendida de que será la acción del Gobierno (sea del estado, comunidad autónoma, cantón, etc.) la que por sí sola, o con la ayuda del *cualeficado experto contratado de fuera*, querrá resolver todos los males y adoptar todas las medidas capaces de restituir —en el periodo crítico de tiempo del que se dispone— a la lengua amenazada su uso normal» (*lib. aip.*, 206. or.).

³¹ 1. EAren ustez, erakunde herritarren eta erakunde publikoen arteko artikulazioak ez du organikoa izan behar; bestalde, erakunde publikoekiko solaskide izan behar dute haiek, eta beren ekarpenak egin behar dituzte hizkuntz politikari begira; dena dela, estrategia politikoen menpe ez dute egon behar erakunde herritarrek.

2. EBrentzat erakunde publikoak dira demokrazioaren oinarria; herri-erakundeen eta boterearen artean harreman dialektikoa egon behar du.

3. EMaren ustez, erakunde publikoen eta erakunde herritarren, bi aldetako askatasun osoa zaindu behar da; elkar ulertzean eta elkar laguntzean gauzatu behar du harremanak; bestalde, herri-erakundeen ekimenak suspertu beharko litzukete erakunde publikoek; gainera, diru publikoz finantzatu beharko lirateke horiek.

4. EUEn ustez, adostasun zibila bilatu behar da euskararen inguruan; erakunde herritarren burujabetza errespetatu behar da, alde batetik, eta erakunde politikoen autonomia, bestetik; bi aldean arteko lankidetza eskatzen du.

5. HBk artikulazio dialektikoa eskatzen du erakunde publikoen eta erakunde herritarren artean.

6. EAJrentzat herri-agintaritzak gizarte zibilaren nahiarekin bat egin behar du; bestalde, herri-agintaritzaren egitekoa onartu behar dute erakunde herritarrek eta ez horren alternatiba izan.

Garbi dago bi aldeetako erakundeen arteko harremanak hizkuntzaren berreskurapenaren planteamendu politikoan oinarritu behar duela: hizkuntzarena arazoa politikoa da eta horren plangintzak zentzu guztiz politikoa du. Alde batetik, erakunde politikoei, duten garrantzi guztia eman behar zaie hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan. Bestetik, hizkuntzaren ikuspegi pertsonalista edo komunitario soilaren kontrakoa da planteamendu politiko hori. Herritarren hizkuntz kontzientzia oinarri-oinarrian dago, berak egiten duelako funtsean hizkuntz komunitatea; baina hori ez da nahikoa. Hizkuntza gutxituaren berreskurapenak «hizkuntz boterearen banaketa berria» lortu behar du, hau da, egitura eta egoera soziolinguistikoak aldatu behar ditu, hizkuntzaren berreskurapen osoa ez delako herritarren borondate soilan oinarritzen.

Bestalde, hizkuntzaren eta horren berreskurapenaren «politizazioa» baztertu behar da. Horrek bi gauza eskatzen ditu: a) Hizkuntz komunitatean oinarritzea hizkuntz politika; b) Euskararen politika autonomoa egitea, eta ez aukera politiko eta partidista konkretuen araberrako eta menpekkoa.

Hasteko, erakunde publikoen eginkizunari dagokionez, bai instituzionalismotik eta bai anti-instituzionalismotik ihes egin behar da. Agian biak egon dira azken urte luze hauetan. Instituzionalismoa da, dena erakunde publikoetatik atera nahia, eta erakunde herritarren ekimena irentsi nahia³².

Anti-instituzionalismo absolutuak ez du zentzurik euskalgintzan, hainbat urtetan horien bila ibili ondoren, eta hainbat erakunde herritar zerbitzu publiko gisa eratu denean eta erakunde publiko izateko bokazioarekin gainera. (Besterik da gero publikotasun hori nola ulertzen den). Printzipiozko anti-instituzionalismoa da erakunde publikoek euskararekiko politikarik ez dutela egin behar, hau da, euskara eta erdara beren arteko jokoan utzi behar direla esatea. Anti-instituzionalismoa gerta daiteke, absolutua eta printzipiozkoa izan gabe ere, oraingo erakunde ofizialei euskararen berreskurapenaren alorrean legitimotasunik aitortzen ez zaizkion; edota horien politika linguistikoaren aurkako jarrera sistematikoa hartzen denean.

Euskararen aldeko mugimendu sozialaren aldetik erakunde publikoen eginkizuna aitortuz eta berretsiz, eta alde bien arteko harremana eta elkarlana eratu eta burutu ahal izateko, funtsean euskararen berreskurapen osorako borondate politikoa erakutsi behar dute, eta horren araberrako politika bultzatu, euskarari lehentasun osoa emanaz, diskriminazio «positiboarekin».

³² Erakunde herritarrek programaren edo planen bat proposatzen badute, erakunde publikoek ez lukete hori irenstera joan behar, beraien ekintza huts bihurtuz, edota horren orde besteren bat eratzuz. Horixe gertatu zen zoritxarrez EKBk antolatu zuen «Euskararen eguna» harekin, esate baterako.

Horrezaz gain, erakunde publikoen aldetik honako eskakizunok bete beharrekoak direla uste dut:

1. Hizkuntz politika autonomia, ez momentuko politikaren edo hiztarmen politikoen arabera.
2. Erakunde publiko bakoitzeko departamentu ezberdinen arteko kontradikzioak baztertea, hizkuntz politikari dagokionez.
3. Euskal Herri osoko erakunde publikoen (gobernu autonomiko, foral edo departamentalaren, diputazioen, udalen) arteko hizkuntz politika koordinatua.
4. Gobernuetako Hizkuntz Idazkaritzek edo Zuzendaritzek ahalmen politikoa beharko lukete hizkuntz politika markatzeko, bai gobernuko beste sailetan eta baita beheragoko erakunde publikoetan ere.

6.5. Mugimendu sozialaren antolamendua

Euskararen aldeko mugimendu sozialak hizkuntz komunitatea sortzera, zabaltzera eta osotzera jo behar du. Horretarako tresna dira erakunde herritarak eta horietan oinarrituriko mugimendu soziala bera.

Hizkuntz elkartearen (komunitatearen) eta erakunde herritar koordinatuen ideiak, uste dut biak direla funtsezkoak eta osagarriak euskararen aldeko mugimendu sozialaren antolamendurako. Honi begira, lau antolamendu-maila bereiziko nituzke:

1. Taldeak eta elkarteak. Oinarrian daude eremu kultural eta sozial ezberdinetako nahiz herrietako edo auzoetako taldeak edo elkarteak. Azken urteotan, eremu sozial eta kulturaletako talde eta elkarte espezifikoek (unibertsitate eta eskoletako EKTak, enpresetako, kutxetako eta bankuetako euskara-taldeak, zerbitzu sozialetako euskarataldeak, etab.) orohar beren bizitasuna moteldu egin dutela dirudi; baina berriak ere sortu dira, OEE bezalakoak. Indarberritu beharko liriateke. Bestalde, hirietako, herrietako eta auzoetako elkarten fenomeno zabaltzen ari da. Gogoz bultzatzekoa da. Horiei dagokie, bakoitzari bere barrutian, bertako sektore edo maila ezberdinetako erakunde herritarren arteko koordinazioaren egitekoa. Bestalde, elkarte horien arteko koordinakundea ere oso garrantzizkoa da.
2. Kultur sektoreetako koordinakundeak. Kultur sektore bakoitzeko erakunde ezberdinen arteko koordinakundea lortu beharrekoa da mugimendu sozial sektore-artekoa sortzeko, hizkuntzaren normal-kuntzaren prozesuak eskatzen duen bezala. Horrelakoak badaude (irakaskuntzan, alfabetatze-euskalduntzean, etab.); areagotu egin behar liriateke.
3. Maila nazionaleko erakundeak. Euskararen berreskurapen osoari begira helburu eta jokabide espezifikoak dituzten erakunde nazio-

- nalak edo herrialde bakoitzekoak badaude: Ikastolen Konfederakundea, AEK, EHE, UEU, Euskaldunon Egunkaria, UETS (Udaletako Euskara-Teknikarien Sarea), etab. Garrantzi handia dute horiek euskararen aldeko mugimendu sozialaren artikulazioan.
4. Koordinakunde orokorra. Talde, elkarte, erakunde, mugimendu guzti horien koordinakunde ahal denik zabalen eta irekiena bilatu behar da, euskararen aldeko mugimendu sozialari nolabaiteko gorputz unitarioa emango diona, beraren aniztasun osoan. Konfederazioaren forma har lezake horrek, gorago adierazi dudanez.

6.6. Hiru mailako urratsak

Goian aipaturiko hiruko jauzi kualitatiboa eman ahal izateko, urrats zehatzak egin beharko dira euskararen aldeko mugimendu soziala indartzeko eta eratzeko, eta horien eta erakunde publikoen arteko harremanak zuzentzeko. Hemen, hiru bakarrik aipatuko ditut. Horien forma eta bestelako zehaztapenak lantzeko daude; elkarrizketa zabala ireki behar horretarako.

1. Euskaingintzako erakunde herritarren arteko akordio zabala, euskararen berreskurapen osorako mugimendu sozial nazionalari benetako gorputza emateko.
2. Euskararen aldeko mugimendu sozialak eraginda, bestelako erakunde eta indar sozialen, ekonomikoen, politikoen, etabarren arteko hitzarmen soziala, maila ezberdinetakoa, euskararen berreskurapen osoari eta erabilerari begirakoa.
3. Erakunde publikoen eta euskaingintzako erakunde herritarren arteko elkarlanerako plataforma zabala, Administrazioaren hiru mailatan «Euskararen Kontseilu Sozialaren» forma hartuko lukeena.

Horietako bi aipaturiko Bat aldizkariaren inkestan jaulkita daude alderdi politikoen ahoetatik: EUEk «Kontseilu Nagusia» eskatzen du, hizkuntz eta kultur adostasunaren oinarriak finkatzeko; HBk, berriz, euskararen aldeko «Itun Nazionala» eskatzen du. Hala ere, horrelako proposamenak ez dituzte alderdi politikoei eraman behar, eta bai euskararen aldeko mugimendu sozialak, erakunde publikoekin elkarlanean eta alderdi politiko eta bestelako indar eta organismo sozial eta pribatuen erdigunean jarrita.

6.7. Konfidantza eta itzaropena

Arrakastaren esperantzan eta indar kolektiboaren konfidantzan oinarritzen da edozein mugimendu sozial. Egonezina eta insatisfakzioa ez dira nahikoa, mugimendua indartzeko. Horregatik, euskararen berreskurapen

osoaren mugimendu soziala zabaltzeko eta indartzeko, nahitaezkoa da helburuari buruzko, hori lortzeko indarrei buruzko, horretarako ahaleginen emankortasunari buruzko konfidantza suspertzea eta mantentzea, ez noski hitzez eta publizitatez bakarrik eta bai aurrerabidean egindako benetako urratsen gain. Hortik sortuko da kemen berria ere, aurrera jarraitzeko. Etsipena izango litzateke okerrenetarikoa euskararen aldeko mugimendu soziala zabaltzeko eta indartzeko.

POSDATA

Hitzaldi hau eman zenetik hona, hainbat aldaketa izan da gure artean. Horietako bat Euskararen Unibertsoaren mugimendua, eta horren ondorioz, 1997ko abenduaren 6an Durangon formalki eraikitako Euskararen Erakunde Sozialen Kontseilua, non euskalgintzako eta euskal kulturgintzako 49 erakunde elkartu baitziren, euskararen unibertsua eraikitzeko asmoz.

EUSKARRA INSTITUTUA

Pedagogia

«Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak» gaia Euskal Herriko Unibertsitateak antolaturiko XII. Ikastaroetako aztergaia izan zen, 1993an.

Ikastaro hartan Euskal Herriko eta Atzerriko ikertzaileak bildu ziren. Katalunia eta Québec aztertu zituzten atzerritik, eta Euskal Herrian, ostera, hemengo mugimenduen historia eta oraina, biak.

Euskararen normalkuntzak guztiz premiazkoak ditu, hemen bertan egindakoaren ezagumendu on bat eta beste herrietakoa gogoan izatea.

Hortaz, berriemate bikoitz horrekin dator liburu hau.